# Abuztuaren 2ko 38/2006 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duena.

**AZALPEN OHARRA**

Testu hau dibulgaziozkoa da soilik, eta ez du inolako izaera ofizialik. Eguneratutako foru dekretua eta beronek onartzen duen erregelamendu osoa jasotzen da bertan.

Testuaren bukaeran zerrendatu egiten dira foru dekretuak onartutako erregelamenduaren jatorrizko zenbait artikulutan aldaketak sartu dituzten xedapenak.

**AURKIBIDEA**


**I. TITULUA** .......... 7

**XEDAPEN OROKORRAK** .......... 7

I. KAPITULUA. .......... 7
ZERGABILKETAREN KUDEAKETA. .......... 7
*1. sekzioa. Xedapen orokorrak.* .......... *7*
1. artikulua. Zergabilketaren kudeaketari buruzko kontzeptua. .......... 7
2. artikulua. Aplikaziozko araudia eta aplikazio eremua. .......... 8
*2. sekzioa. Zergabilketa organoak.* .......... *8*
3. artikulua. Zergabilketa organoak. .......... 8
4. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiak foru organismo autonomoen aldeko kredituak biltzea. .......... 9
5. artikulua. Tokiko enteek zergak biltzea. .......... 9
6. artikulua. Zergabilketako entitate laguntzaileak. .......... 10
*3. sekzioa. Zergabilketaren kudeaketan informazioa lortzea, ahalmenak erabiltzea eta badaezpadako neurriak hartzea* .......... *10*
7. artikulua. Zergabilketa organoen ahalmenak. .......... 10
II. KAPITULUA. .......... 11
ZERGABILKETAREN KUDEAKETAKO SARRERAK .......... 11
8. artikulua. Zerga-bilketaren kudeaketako sarrerak. .......... 11
*1. sekzioa. Zergabilketaren kudeaketako sarrerak borondatezko epean eta epe exekutiboan* .......... *11*
9. artikulua. Sarrerak ordaintzeko lekua. .......... 11
1. azpisekzioa. Zergabilketako entitate laguntzaileen bidez jasotako sarrerak .......... 11
10. artikulua. Zergabilketako entitate laguntzaileak. .......... 11
11. artikulua. Zergabilketako entitate laguntzaileen bidez jasotako sarrerak. .......... 13
12. artikulua. Entitate laguntzailearen bidez ordaintzeko prozedura. .......... 13
13. artikulua. Bitarteko elektronikoz ordaintzeko prozedura. .......... 15
2. azpisekzioa. Kreditu entitateetan eta organo kudeatzaileen kutxetan irekitako kontu baimenduetan ordaintzea .......... 15
14. artikulua. Kontu baimenduetan eta organo kudeatzaileen kutxetan ordaintzea. .......... 15
3. azpisekzioa. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusian ordaintzea .......... 16
15. artikulua. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusian ordaintzea. .......... 16
4. azpisekzioa. Foru organismo autonomoek bildutako zorren ordainketaren berezitasunak .......... 16
16. artikulua. Foru organismo autonomoetan ordaintzea. .......... 16
*2. sekzioa. Aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorren bilketa* .......... *16*
17. artikulua. Kobratzeko modalitatea. .......... 16
18. artikulua. Kobrantza iragarkiak. .......... 17
19. artikulua. Aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorrak ordaintzea 17
*3. sekzioa. Zergabilketaren kudeaketan lortutako kopuruak Foru Diruzaintzaren kontuetan ordaintzea* .......... *18*

20. artikulua. Foru Diruzaintzaren kontuetan egindako ordainketei buruzko xedapen orokorrak. 18
21. artikulua. Zergabilketako entitate laguntzaileetan ordaintzea. 18
22. artikulua. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiaren kutxan ordaintzea. 18
23. artikulua. Kreditu entitateetan irekitako kontu baimenduetan ordaindutako beste sarrera batzuk. 19

**II. TITULUA 19**

**ZORRA 19**

I. KAPITULUA 19
ZORRA IRAUNGITZEA 19
24. artikulua. Zorra iraungitzea. 19
*1. sekzioa. Ordainketa 19*
25. artikulua. Legitimazioa, eta ordaintzeko tokia eta modua. 19
26. artikulua. Esku-dirutan ordaintzeko bitartekoak eta momentua. 19
27. artikulua. Txeke bidez ordaintzea. 20
28. artikulua. Kreditu eta zordunketa txartelaren bidez ordaintzea. 21
29. artikulua. Banku transferentzia bidez ordaintzea. 21
30. artikulua. Banku-helbideratzearen bidez ordaintzea. 21
31. artikulua. Agiri zigilatuen bidez ordaintzea. 22
32. artikulua. Gauza bidez ordaintzea. 23
33. artikulua. Ordainketaren frogagiriak eta ziurtapenak. 25
34. artikulua. Kontsignazioa. 26
35. artikulua. Zerga bateraezinak badira egin beharreko jarduketak. 27
*2. sekzioa. Gerorapena eta zatikapena 28*
36. artikulua. Gerorapenak eta zatikapenak. 28
37. artikulua. Eskumena. 28
38. artikulua. Eskaera. 29
39. artikulua. Eskaerak ez onartzea. 32
40. artikulua. Bermeak. 33
41. artikulua. Badaezpadako neurriak hartzea, ordaintzera behartutako pertsonak eskatuta, gerorapen edo zatikapen berme gisa. 35
42. artikulua. Bermeak aurkeztetik salbuestea. 36
43. artikulua. Tramitatzea. 38
44. artikulua. Ebazpena. 38
45. artikulua. Interesen kalkulua. 40
46. artikulua. Nola jokatu zorra ordaintzen ez denean eta hartzekodunen konkurtsoa dagoenean. 42
47. artikulua. Ordainketa aurreratuak. 43
*3. sekzioa. Konpentsatzea 43*
48. artikulua. Konpentsatu daitezkeen zorrak. 43
49. artikulua. Ordaintzera behartutakoak eskatutako konpentsazioa. 43
50. artikulua. Entitate publikoen zorrak ofizioz konpentsatzea. 45
51. artikulua. Foru Ogasunaren beste hartzekodun batzuen zorrak ofizioz konpentsatzea. 45
52. artikulua. Konpentsazioaren ondorioak. 46
*4. sekzioa. Kontu korronte fiskala 47*
53. artikulua. Kontzeptua. *(edukirik gabe)* 47
54. artikulua. Aplikazioaren eremu subjektiboa. *(edukirik gabe)*. 47
55. artikulua. Baimentzea. *(edukirik gabe)* 47
56. artikulua. Kontu korronte fiskalean jaso daitezkeen zor eta kredituak. *(edukirik gabe)* 47
57. artikulua. Kontuaren likidazioak. *(edukirik gabe)* 47
58. artikulua. Berandutza interesa. *(edukirik gabe)* 47
59. artikulua. Saldo eta interesak zehaztea. *(edukirik gabe)* 47
60. artikulua. Kontu korronte fiskala iraungitzea. *(edukirik gabe)* 47
*5. sekzioa. Behin-behineko baja kaudimengabeziagatik 47*
61. artikulua. Zordun huts eginaren eta kreditu kobraezinaren kontzeptua. 47
62. artikulua. Kaudimengabezia dela eta emandako behin-behineko bajaren ondorioak. 48
63. artikulua. Zordun huts eginak berrikustea eta kreditu kobraezinak birgaitzea. 48
II. KAPITULUA. 48
ZORRAREN BERMEAK 48
64. artikulua. Lehentasun eskubidea. 48
65. artikulua. Isileko lege hipoteka. 49
66. artikulua. Foru Ogasunaren kredituen berme gisa emandako beste hipoteka eta eskubide erreal batzuk. 49
67. artikulua. Ondasunak afektatzea. 49

**III. TITULUA 50**

**ZERGABILKETA BORONDATEZKO EPEAN ETA EPE EXEKUTIBOAN** ..... **50**

I. KAPITULUA ..... 50
XEDAPEN OROKORRAK ..... 50
68. artikulua. Borondatezko epearen hasiera eta amaiera. ..... 50
69. artikulua. Epe exekutiboko zergabilketa. ..... 50
II. KAPITULUA ..... 51
PREMIAMENDUZKO PROZEDURA ..... 51
*1. sekzioa. Premiamenduzko prozeduraren hasiera* ..... *51*
70. artikulua. Premiamenduzko probidentzia. ..... 51
71. artikulua. Premiamenduzko probidentzia jakinaraztea. ..... 51
*2. sekzioa. Premiamenduzko prozedura garatzea* ..... *52*
1. azpisekzioa. Xedapen orokorrak. ..... 52
72. artikulua. Berandutza interesa. ..... 52
73. artikulua. Premiamenduzko prozedura etetea. ..... 53
74. artikulua. Ordainketak egoztea. ..... 53
75. artikulua. Bermeak exekutatzea. ..... 54
2. azpisekzioa. Bahiturei buruzko arauak ..... 55
76. artikulua. Ondasun eta eskubideak bahitzea. ..... 55
77. artikulua. Bahituren jarduna. ..... 56
78. artikulua. Prozedurak metatzea. ..... 57
79. artikulua. Esku-dirua bahitzea. ..... 58
80. artikulua. Kreditu entitateetan irekitako kontuetan dirua bahitzea. ..... 58
81. artikulua. Baloreak bahitzea. ..... 59
82. artikulua. Beste kreditu, efektu eta eskubide batzuk bahitzea. ..... 60
83. artikulua. Soldata eta pentsioak bahitzea. ..... 61
84. artikulua. Ondasun higiezinak eta horien gaineko eskubideak bahitzea. ..... 61
85. artikulua. Ondasun higiezinen eta horien gaineko eskubideen bahituraren prebentziozko idaztoharrak egitea Jabetzaren Erregistroan. ..... 62
86. artikulua. Ondasun higiezinak eta hauen gaineko eskubideak bahitzeko prebentziozko idaztoharrei buruzko aginduen beharkizunak. ..... 63
87. artikulua. Prebentziozko idaztoharren aginduak Jabetza Erregistroan aurkeztea. ..... 63
88. artikulua. Gorabeherak Jabetza Erregistroan bahituraren prebentziozko idaztoharrak egitean. ..... 64
89. artikulua. Erregistratzaileen erantzunak. ..... 64
89 bis artikulua. Ondasun higiezinak xedatzeko debekua akzioak edo partaidetzak enbargatzeagatik. ..... 64
90. artikulua. Interesak, errentak eta mota guztietako fruituak bahitzea. ..... 65
91. artikulua. Merkataritza eta industria establezimenduak bahitzea. ..... 65
92. Gainerako ondasun higikorrak eta abereak bahitzea. ..... 66
93. artikulua. Pentsio fondoetako edo gizarte aurreikuspeneko entitate edo erakundeetako partaide edo bazkideek jaso ditzaketen kopuruak bahitzea. ..... 67
3. azpisekzioa. Bahitutako ondasunen gordailuari buruzko arauak. ..... 67
94. artikulua. Bahitutako ondasunen gordailua. ..... 67
95. artikulua. Gordailuzainaren zereginak. ..... 68
96. artikulua. Bahitutako ondasunen gordailuzainak dituen eskubide, betebehar eta erantzukizunak. ..... 69
*3.sekzioa. Bahitutako ondasunak besterentzea.* ..... *69*
1. azpisekzioa. Ondasunak bahitu aurreko jarduketak. ..... 69
97. artikulua. Enbargatutako ondasunen balorazioa. ..... 69
98. artikulua. Balorazio zerbitzuak izendatzea. ..... 70
99. artikulua. Nahitaezko besterentzean erabiliko den neurria kalkulatzea. ..... 71
100. artikulua. Jabetza tituluak. ..... 71
101. artikulua. Loteak. ..... 72
2. azpisekzioa. Besterentzea. ..... 72
102. artikulua. Nahitaezko besterentzearen printzipioak. ..... 72
103. artikulua. Besterentzeko erak. ..... 72
104. artikulua. Besterentzeko erabakia nola hartu eta jakinarazi eta enkantea nola iragarri. ..... 73
105. artikulua. Lizitatzaileak. ..... 74
106. artikulua. Eskaintzak aurkeztea eta enkantea egitea lehen lizitazioan. ..... 75
107. artikulua. Eskaintzak aurkeztea eta enkantea egitea bigarren lizitazioan. ..... 77
108. artikulua. Jarduketa komunak enkantean. ..... 77
109. artikulua. Enkantea enpresa edo profesional espezializatuen bidez egitea. ..... 78
110. artikulua. Lehiaketa bidez besterentzea. ..... 79
111. artikulua. Zuzeneko esleipena. ..... 79
3. azpisekzioa. Ondasunak besterendu ondorengo jarduketak. ..... 80
112. artikulua. Salmenta eskritura eta lehentasunezkoak ez diren kargen deuseztapena. ..... 80
113. artikulua. Bahitura kentzea. ..... 81

*4. sekzioa. Gipuzkoako Foru Aldundiari ondasunak zorraren ordainez esleitzea.* ............................ *81*
114. artikulua. Bidezkotasuna. ............ 81
115. Ondasun higiezinak esleitzea. ............ 81
116. Ondasun higikorrak edo eskubideak esleitzea. ............ 82
117. artikulua. Inskribapena eta lehentasunezkoak ez diren kargen deuseztapena. ............ 82
118. artikulua. Azken jarduketak. ............ 82
*5. sekzioa. Premiamenduzko prozeduraren kostuak.* ............ *83*
119. artikulua. Prozeduraren kostuak. ............ 83
120. artikulua. Gordailu eta administrazioagatik sortutako ordainsari eta gastuak. ............ 83
121. artikulua. Kostuak zehaztu eta kobratzea. ............ 84
*6. sekzioa. Premiamenduzko prozeduraren amaiera.* ............ *84*
122. artikulua. Premiamenduzko prozedura amaitzea. ............ 84
*7. sekzioa. Hirugarrengotzak.* ............ *85*
123. artikulua. Hirugarrengotzaren izaera. ............ 85
124. artikulua. Eskumenak hirugarrengotza gaietan. ............ 85
125. artikulua. Hirugarrengotza aurkezteko era, epeak eta ondorioak. ............ 85
126. artikulua. Hirugarrengotza tramitatu eta ebaztea. ............ 86
127. artikulua. Hirugarrengotzaren erreklamazioa onestearen ondorioak. ............ 87
128. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeko hirugarrengotzak. ............ 87
*8. sekzioa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduketak prozedura konkurtsaletan eta bestelako exekuzio prozeduretan.* ............ *87*
129. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduketak prozedura konkurtsaletan eta bestelako exekuzio prozeduretan. ............ 87

**IV. TITULUA.** ............ **88**

**ERANTZULEEN ETA ONDORENGOEN AURREAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA.** ............ **88**

I. KAPITULUA. ............ 88
ERANTZULEAK. ............ 88
130. artikulua. Erantzukizuna deklaratzeko prozedura. ............ 88
130 bis artikulua. Erantzukizun deklarazioaren berezitasunak delituari lotutako likidazioekin zerikusia duenean. ............ 90
131. artikulua. Ustiapen edo jarduera ekonomikoak eskuratzeagatik eskatzen diren ziurtapenak. ..... 91
132. artikulua. Obra edo zerbitzuen kontratistek edo azpikontratistek eskatuta egindako ziurtagiria. 91
II. KAPITULUA. ............ 92
ONDORENGOAK. ............ 92
133. artikulua. Zergabilketa prozedura pertsona fisikoen ondorengoen aurrean. ............ 93
134. artikulua. Zergabilketa prozedura pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen ondorengoen aurrean. ............ 94

**V. TITULUA** ............ **95**

**XEDAPEN BEREZIAK** ............ **95**

135. artikulua. Erantzukizun zibila eta isuna ordainaraztea Herri Ogasunaren aurkako delitu kasuetan. ............ 95
XEDAPEN GEHIGARRIA. Tokiko entitateen eta gipuzkoako foru sektore publikoa osatzen duten beste ente publikoen organoak. ............ 96
XEDAPEN IRAGANKORRAK ............ 96
Lehena. Eskuz aldatzeko eskubideak. ............ 96
Bigarrena. Zergabilketa kudeatzean informazioa lortu, ahalmenak eskuratu eta badaezpadako neurriak hartzea. ............ 96
AMAIERAKO XEDAPENA. Arauak emateko ahalmena. ............ 96

# HITZAURREA

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua, Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorra, onartu izanak berarekin zergak aplikatzeko kontzeptu berria ekarri du. Hori dela eta, kudeaketa, ikuskaritza eta zergabilketa arloak sartu dira kontzeptu berriaren barruan. Dena den, nahiz eta III. tituluaren V. kapituluan jasotako bilketa sistema erabat berria izan gaur egungo kontzeptuagatik nahiz egitura eta

konnotazioengatik, ez dago erabat osatuta; horrelakoa gertatzea ohikoa da foru arau mailako xedapen batean, askotan jotzen baita ondorengo arauzko garapen batera.

Foru dekretu honen bidez, orduan, Zergabilketa Erregelamendua onartu da. Horren bitartez, zergabilketaren arloa garatu da, eta aurreko erregelamendua eta hainbat foru dekretu ordezkatuko ditu, bilketa arloa hobeto sistematizatze aldera.

Kontua, ordea, ez da horretan gelditzen bakarrik. Gainera, erregelamendu honen egitura aurrekoaren desberdina da, eta arau multzoa askoz antolatuago eta sistematizatuago dago, legegileak hala izatea nahi izan baitu eta martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak arau egituran sartutako aldaketetara egokitzeko beharra baitzegoen.

Hori horrela, Erregelamendua bost titulutan banatuta dago. I. tituluan prozedura guztiei eragiten dieten xedapen orokorrak jaso dira; horien artean bereziki aipatu daiteke aplikazio eremua, ez baititu bakarrik hartzen Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde onartutako zerga zorrak. Hori dela medio, lehenago gertatzen zen bezala, erregelamendu honetan araututako prozedurek zerga zorrak, zerga zigorrak eta izaera publikoko baliabideak biltzeko balio dute, hartzekoduna Gipuzkoako Foru Aldundia izan, tokiko entitateak izan edo foru edo tokiko organismo autonomoak izan.

Zergabilketaren kudeaketako sarrerei beste toki bat eman zaie Erregelamenduan. lehenago borondatezko epeari buruzko liburuan araututa zeuden; oraingo erregelamenduan, ordea, I. tituluan kokatuta daude, hain zuzen Erregelamenduak jasotako prozedura guzti-guztiei aplikatzen zaien horretan.

II. titulua, bestetik, zorrari buruzkoa da. Alde batetik, ordainketa arautu da eta, bestetik, horren bermeak. Lehendabizikoari dagokionez, bereziki aipatu behar da Erregelamenduak ordainbideak gehitu izana aurreko erregelamenduaren aldean, banku transferentzia eta helbideratzea, kreditu eta zordunketa txartela eta gauza bidezko ordainketa jaso baititu. Era berean, Herri Ogasunaren aldeko izaera publikoko zorrak zordun berari onartutako kredituekin konpentsatzeko aukera arautu da, eta ofizioz edo interesatuak eskatuta egin daiteke konpentsazioa.

III. tituluan borondatezko epea eta epe exekutiboa jasota daude; azken hori erabat bereizita geratu da premiamenduzko prozeduratik, eta kapitulu osoa hartu du titulu horren baitan. Premiamenduzko prozedurari dagokionez, berrikuntza nagusia da bahituren lehentasun ordena desagertu izana, betiere proportzionaltasun muga eta zordunentzako ahalik eta kalterik txikienaren muga betez. Aipatu lehentasun ordena oztopo handia zen orain indargabetu den Zergabilketa Erregelamendua onartu zenez geroztik, ondorio kaltegarria ekarri baitziezaiekeen zordunei nahiz bahitura egin zuen administrazioari.

IV. titulua guztiz berria da. Zorren erantzule eta ondorengoen kontrako prozedura arautzen du, eta lehengo kokalekua (atariko titulua) baino egokiagoa du orain. Era berean, ustiapen edo jarduera ekonomikoak eskuratzeagatik eskatutako ziurtapena eta kontratista eta birkontratistek eskatutako ziurtagiria ere arautzen dira.

Amaierako tituluan jasota dago Herri Ogasunaren aurkako delituari lotutako erantzukizun zibiletik eratortzen diren zorrak premiamenduzko prozeduraren bidez exijitzeko aukera. Hori ere berria da erregelamendu honetan.

Azkenik, komenigarria da gogoraraztea erregelamendu honen idazkeran 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren espiritua dagoela indarrean, eta garai berrietara eta bitarteko eta teknologia berrietara egokitzeko printzipioari eta prozedurak erraztu eta epeak bateratzeko printzipioei jarraitu zaiela.

Horiek horrela, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta Lege Aholkularitzako Batzordearekin bat etorriz, Diputatu Kontseiluak gaurko bileran eztabaidatu eta onartu ondoren, hau

# XEDATU DUT

## Artikulu bakarra. Zergabilketa Erregelamendua onartzea.

Onarturik geratzen da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua, jarraian txertatzen den testua duena.

## XEDAPEN IRAGANKORRA. Erregelamenduaren erregimen iragankorra.

1. Foru dekretu hau indarrean sartzean izapidetzen ari diren prozedurak hemen onartzen den erregelamenduak dioenari jarraiki arautuko dira geroko jarduketei dagokienez, hurrengo paragrafoan xedatutakoan izan ezik.

Prozedura horiei dagokielarik, zilegi izango da ondasunak besterentzeko jarduketak foru dekretu hau indarrean sartu aurretik aplikatzen zen araudiaren arabera erregulatzen jarraitzea, baldin eta enkante bidez besterentzeko erabakia, lehiaketaz besterentzeko baimena edo zuzeneko kudeaketa eta esleipen bidez saltzeko tramitearen hasiera foru dekretu hau indarrean sartu baino lehen gertatu badira.

2. Foru dekretu hau indarrean sartu aurretik onartutako gerorapen eta zatikapenak onarpenaren unean indarrean zegoen araudiari jarraiki arautuko dira, baita horiek ez betetzeak izan ditzakeen emaitzei dagokienez ere.

3. Ordaintzeko borondatezko epean eskatutako gerorapen, zatikapen edo konpentsazioak ukatzeko erabakiak foru dekretu hau indarrean sartu aurretik hartu badira, horien jakinarazpenetan jasota agertuko da zeintzuk diren ordaintzeko epeak eta nola kalkulatu den berandutza interesen likidazioa, erabaki horiek hartzeko garaian indarrean dagoen araudiari jarraiki.

## XEDAPEN INDARGABETZAILEA.

1. Foru dekretu hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko dira bertan xedatutakoarekin bat ez datozen maila bereko edo txikiagoko xedapen guztiak eta, bereziki, honako hauek:

a) Apirilaren 9ko 27/1991 Foru Dekretua, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua onartzen duena.

b) Abenduaren 10eko 91/1996 Foru Dekretua, zergen kontu korrontea sortzen duena.

c) Maiatzaren 2ko 42/2000 Foru Dekretua, zerga zorrak eta zuzenbide publikoko gainerako zorrak banku helbideratzearen bidez ordaintzeari buruzko gai batzuk arautu eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamenduaren zenbait artikulu aldatzen dituena.

2. Aurreko apartatuan aipatutako testu indargabetuak garatzeko ematen diren erregelamenduzko arauak indarrean egongo dira aurrerantzean ere, foru dekretu honetan jasotakoaren aurka ez doazen neurrian, harik eta foru dekretu hau garatzeko eman daitezkeen erregelamenduzko arauak indarrean jarri arte.

3. Indarrean dauden arauetan espresuki indargabetzen diren xedapenei buruz jasotako aipamenak ulertu beharko dira foru dekretu honetan haien gai bera arautzen duten xedapenei buruzkoak direla.

4. Lehenagotik formalizatuta dauden zergabilketa prozedurek beren indarra gordeko dute, nahiz eta horrek ez duen eragotziko haietan zerbait aldatu behar izatekotan erregelamendu honen 3.3 artikuluan jasotakoari egokituta egitea.

**AMAIERAKO XEDAPEN BAKARRA. Indarrean jartzea.**

Foru dekretu hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen denetik hilabetera jarriko da indarrean.

# Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergabilketa Erregelamendua

# I. TITULUA

# XEDAPEN OROKORRAK

## I. Kapitulua.

## Zergabilketaren kudeaketa.

### *1. sekzioa. Xedapen orokorrak.*

**1. artikulua. Zergabilketaren kudeaketari buruzko kontzeptua.**

Ordaintzera behartutakoek ordaindu behar dituzten zorrak, zerga zigorrak eta izaera publikoko gainerako baliabideak kobratzeko Herri Ogasunetik betetzen den funtzio administratiboa gauzatzea da zergabilketaren kudeaketa.

Erregelamendu honen ondorioetarako, artikulu honetan aipatzen diren izaera publikoko kreditu guztiak zorrak deitzen dira. Herri Ogasunak exijituta zor osoa edo haren zati bat ordaindu behar duten pertsona edo entitateak izango dira ordaintzera behartutakoak.

Aurreko paragrafoan aipatu diren baliabideak epe exekutiboan kobratzeko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrean eta Erregelamendu honetan araututa dagoen premiamenduzko

prozedurari jarraituko zaio, aipatutako foru arauaren 172. artikuluko 2. apartatuan jasotakoa eragotzi gabe.[1]

### 2. artikulua. Aplikaziozko araudia eta aplikazio eremua.

1. Zuzenbide arau hauek izango ditu gidari zergabilketaren kudeaketak:

a) Zergen Foru Arau Orokorra, eta Gipuzkoako Finantza eta Aurrekontu Araubidearen Foru Araua.

b) Zergen eta izaera publikoko gainerako baliabideei buruzko foru arauak eta legeak, bai eta haiek garatzeko arauak ere.

c) Nazioarteko itun eta hitzarmenak, eta Europar Batasuneko aplikaziozko arauak.

d) Erregelamendu hau, eta bera garatzeko arauak.

e) Modu osagarrian, prozedura administratiboei buruzko xedapen orokorrak.

2. Erregelamendu hau dela medio martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak jasotako zergabilketaren kudeaketa erregulatuta geratzen da, eta Gipuzkoako lurralde historikoaren Administrazioaren eremuan aplikatuko da.

3. Erregelamendu hau tokiko entitateen esparruan ere aplikatuko da, horiek bereziki arautzen ez dituzten alderdietan, hain zuzen ere.

4. Beste herri administrazio publiko batzuen aldeko kredituak premiamenduzko bidean biltzen direnean, erregelamendu honetan arautako prozedurari jarraituko zaio, bilketa hori egiteko erabiltzen den araudian espresuki jasota ez dagoen guztian.

## *2. sekzioa. Zergabilketa organoak.*

### 3. artikulua. Zergabilketa organoak.

1. Erregelamendu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek dira zergabilketa organoak:

a) Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuaren antolaketa arauek zergabilketa arloan eskumenak ematen dizkieten unitate administratiboak.

b) Gipuzkoako Foru Aldundian eta bere foru organismo autonomoetan borondatezko epean zuzenbide publikoko baliabideak biltzen dituzten unitate administratiboak.

c) Borondatezko epean zuzenbide publikoko baliabideen bilketa kudeatzen duten ente publikoetako unitate administratiboak.

2. Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuaren antolaketa arauek epe exekutiboko zergabilketa arloan eskumenak ematen dizkieten unitate administratiboei, aldiz, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta bere foru organismo

[1] Paragrafo hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

autonomoen baliabide guztiak premiamenduzko prozeduran biltzeko ardura emango zaie.

3.[2] Ogasun eta Finantza Departamentuko organoek beste herri administrazio batzuen baliabideak biltzeko kudeaketa hartu dezakete beren gain, hitzarmenak formalizatuta eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta. Haien ezaugarriek hala exijitzen badute, hitzarmenen iraupena 4 urtetik gorakoa izaten ahalko da.

### 4. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiak foru organismo autonomoen aldeko kredituak biltzea.

1. Foru organismo autonomoen kredituen epe exekutiboko bilketa erregelamendu honen bidez arautuko da, eta berezitasun hauek izango ditu:

a) Borondatezko epean ordaindu gabeko zorren zerrenda ziurtatuak foru organismo autonomoen organo eskudunek luzatuko dituzte. Zorrak txikiagoak direnean Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuak zergabilketa exekutiboaren gutxieneko kostu gisa finkatzen duen kopurua baino, zordun berak kopuru horren gainetik zorrak metatu dituenean bakarrik sartuko dituzte zerrendetan aipatu organismoek.

b) Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko organo eskudunak emango du premiamenduzko probidentzia.

c) Bildutako kopuruak foru organismo autonomoaren kontu ofizialetara transferituko dira, salbu epe exekutiboko errekarguak eta kostuak.

2. Berandutza interesak erregelamendu honek 72. artikuluan jasotakoaren arabera likidatuko dira.

3. Zorduna huts eginaren deklarazioa eta, hala badagokio, kreditu kobraezinarena Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko organo eskudunak egingo du, eta foru organismo autonomoari jakinaraziko dio horren berri izan dezan.

Kreditu horiek birgaitu daitezke, organismoaren beraren ekimenez nahiz zergabilketa exekutiboko organo eskudunen ekimenez, kasu berdinetan eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren kredituetarako aurreikusitako antzeko prozedura erabilita.

4. Erregelamendu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiari ondasunak esleitzeari buruz jasotakoa aplikatuko da, eta Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Ondareari buruzko uztailaren 9ko 8/1996 Foru Arauak jasotakoa betez gauzatuko da.

### 5. artikulua. Tokiko enteek zergak biltzea.

Tokiko entitateak arduratuko dira zorrak biltzeaz, horien kudeaketa esleitu bazaie. Honelaxe bilduko dira:

a) Entitateek beraiek bilduko dituzte bilketako eskumenak esleitzeko arauetan jasotakoaren arabera.

---

[2] Apartatu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 6. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean.

b) Zorren esparruko beste lurralde ente batzuek bilduko dituzte, haiekin hitzarmena formalizatu bada edo ahalmen horren eskuordea eman bazaie.

### 6. artikulua. Zergabilketako entitate laguntzaileak.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak baimendutako kreditu entitateek zergak biltzen lagundu dezakete, erregelamendu honek 10. artikuluan jasotako moduan eta baldintzetan.

Erregelamendu honen ondorioetarako, bakarrik kreditu entitate hauek jardun daitezke entitate laguntzaile gisa:

a) Bankuak.

b) Aurrezki kutxak.

c) Kreditu kooperatibak.

2. Laguntzaileei ematen zaien baimenak edo formalizatzen den hitzarmenak inoiz ere ez die administrazioko organoen izaera emango zergabilketan laguntzen duten entitateei.

3. Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko diputatuak baimena eman diezaieke kreditu entitateei erregelamendu honek 11. artikuluan aipatutakoak ez diren Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru sarrerak biltzean entitate laguntzaile gisa aritzeko.

4.[3] Halaber, zerga-bilketako entitate laguntzailetzat hartu ahal izango dira, kreditu entitateentzat aurreikusitako modu eta baldintza berberetan, honako hauek:

a) Diru elektronikoko entitateak.

b) Ordainketa entitateak.

c) Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen duen beste edozein.

## *3. sekzioa. Zergabilketaren kudeaketan informazioa lortzea, ahalmenak erabiltzea eta badaezpadako neurriak hartzea*

### 7. artikulua. Zergabilketa organoen ahalmenak.

1. Zergak biltzeko eginkizuna betetzen duten funtzionarioak agintaritzat hartuko dira, eta martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 166. artikuluan eta aipatu artikuluak garatzeko onartzen den araudian jasotako ahalmenak izango dituzte

Era berean, Gipuzkoako Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak egiaztapen eta ikerketa prozedura aurrera eramateko 166. artikuluan aipatzen dituen badaezpadako neurriak hartu ahal izango dituzte.

---

[3] Apartatu hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 5 artikuluko bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

2.[4] Zergak biltzeko eginkizuna betetzen duten funtzionarioek 2005eko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako lurralde historikoaren Zergen Foru Arau Orokorrak, 90. eta 91. artikuluetan informazioa lortzeko aurreikusitako jarduerak egin ditzakete, betiere artikulu horietan eta Zerga betebehar jakin batzuk garatzen dituen Erregelamenduan jasotakoaren arabera.

## II. Kapitulua.

## Zergabilketaren kudeaketako sarrerak

### 8. artikulua. Zerga-bilketaren kudeaketako sarrerak.[5]

1. Zerga-bilketaren kudeaketako sarrerak, hala borondatezko epealdikoak nola epe exekutibokoak, kapitulu honetan xedatutakoaren arabera egingo dira.

2. Sarrera ordaintzeko epea egun baliogabean amaitzen bada, hurrengo lehen egun baliodunera luzatuko da.

## *1. sekzioa. Zergabilketaren kudeaketako sarrerak borondatezko epean eta epe exekutiboan*

### 9. artikulua. Sarrerak ordaintzeko lekua.

Sarrerak hemen ordaindu daitezke:

a) Zergak biltzen laguntzeko entitateek dituzten erabilera mugatuko kontuetan.

b) Kreditu entitateetan irekitako kontu baimenduetan.

c) Kudeaketa organoen kutxetan.

d) Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusian.

e) Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak erabakitzen duen beste edozein tokitan.

### *1. azpisekzioa. Zergabilketako entitate laguntzaileen bidez jasotako sarrerak*

### 10. artikulua. Zergabilketako entitate laguntzaileak.

1. Kreditu entitate baimenduek zergak biltzen lagundu dezakete. Laguntza zerbitzua ematea ez da ordainduko.

2. Zergak biltzen lagundu nahi duten entitateek baimena eskatu behar diote Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuari, eta adierazpen espresua aurkeztu behar diote laguntza zerbitzua indarrean dagoen araudian kasu bakoitzerako jasotako baldintzetan emateko prest egoteari buruz.

---

[4] Apartatu hau abenduaren 17ko 47/2013 FORU DEKRETUAren amaierako hirugarren xedapenak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen du. Indarrean sartzen da 2013ko abenduaren 20ean (2013/12/19ko GAO).

[5] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak ahalmena du zerbitzua nola eta zein baldintzatan eman ebazteko. Horretarako, kontuan hartuko du nolako kaudimena duen entitateak eta zer ekarpen egin dezakeen zergak biltzeko laguntza zerbitzuan, eta egoki deritzen txostenak eskatu ditzake.

Ebazpena hiru hilabeteko epean jakinarazi beharko zaio entitateari. Epe hori igaro eta ebazpen espresurik eman ez bada, eskaera ez dela onartu uler daiteke. Baimen onarpenari buruzko ebazpena Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta entitate baten bulego guztiak hartuko ditu kontuan, non eta bulego batzuk ez diren salbuesten.

Baimen ukapenari buruzko ebazpena arrazoitua behar da izan.

3. Establezimendu bat baino gehiago dituen entitateak horietako bat izendatu beharko du Ogasun eta Finantza Departamentuarekiko harremanetarako.[6]

Era berean, laguntza zerbitzua noiz hasiko den adierazi beharko du. Betiere, hasteko bi hilabete izango du, hari baimena jakinarazi eta ondorengo egunetik aurrera gehienez.

4. Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko organo eskudunek entitate laguntzaileen jarduna kontrolatu eta jarraipena egingo diote, eta horretarako entitate horietan egiaztapenak egitea agindu dezakete.

Entitate laguntzaile gisa aritzen diren arloa egiaztatuko da bakarrik, entitatearen bulegoetan edo Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuaren egoitzetan.

Egiaztatze jardueretan, eragiketa jakinei buruzko dokumentazioa aztertu daiteke edo, bestela, aipatu entitateek edo horien bulegoek denbora tarte jakin batean emandako laguntza jarduera ere.

Jarduera egiaztatzeko izendatutako funtzionarioen esku utzi beharko dute entitateek, era berean, laguntzaile gisa egindako jarduerari dagokionez haiek eskatzen dieten dokumentazio osoa eta, bereziki, erabilera mugatuko kontuen laburpenak, ordainketa agiriak eta Foru Diruzaintzako kontuetan ordaindu izanaren frogagiriak. Halaber, entitatearen erregistro informatikoetan sartzeko bidea eman beharko dute, entitate laguntzaile gisa egindako eragiketei dagokienez.

5. Entitate horiek ez badituzte betetzen erregelamendu honek jasotako obligazioak eta aplikaziozko gainerako arauak, Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko laguntza obligazioak edo zerga arau orokorrak, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuak aldi baterako eten edo behin betiko ezeztatu dezake zergak biltzen laguntzeko kreditu entitateei emandako baimena. Nolanahi ere, kasu bakoitzean gerta daitekeen erantzukizuna eskatuko zaie.

Bereziki, aurreko paragrafoan aipatutako ahalmenak erabili ditzake, zirkunstantzia hauetako bat gertatzen denean:

a) Epez kanpo behin eta berriz aurkeztea, osatu gabe edo hutsune handiz, entitate laguntzaile gisa Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu behar dion informazioa.

---

[6] Paragrafo hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 5 artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

b) Gipuzkoako Foru Aldundiari aurkeztu beharreko informazioan, entitateak zaindu behar duen informazioan edo zergadunei eman beharreko argibidean jasotako datuak manipulatzea.

c) Zerga arloan garrantzia duten edozein motatako datu, txosten edo aurrekariak eman edo aitortzeko obligazioak ez betetzea.

d) Bahitura aginduak ez betetzea, bai eta aurrez enbargatu diren edo badaezpadako neurria edo bermea eratua duten ondasunen bahitura kentzen laguntzea edo adostasuna ematea ere.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiaren lanaren aurka egitea, oztopoak edo aitzakiak jartzea edo uko egitea.

f) Bildutako kopuruak egunez egun ez sartzea erabilera mugatuko kontuetan, edo ez sartzea edo atzerapenez sartzea Foru Diruzaintzaren kontuetan bildutako kopuruak, Herri Ogasunari edo partikular bati kalte larria eragin zaionean.

g) Baimena eraginkorra ez izatea, entitateak batere sarrera edo sarrera gutxi bilduz gero.

h) Gipuzkoako Foru Aldundiak emandako ezaugarri tekniko edo informatikoetara ez egokitzea.

## 11. artikulua. Zergabilketako entitate laguntzaileen bidez jasotako sarrerak.

1. Ordaintzera behartutako subjektuek, entitate laguntzailetan kontuak irekita izan edo ez, zor hauek sartu beharko dituzte haietan:

a) Arauz finkatutako ereduetan egindako autolikidazioetatik ateratako zorrak, bai eta telematikoki aurkeztutakoetatik ateratakoak ere.

b) Administrazioak egindako likidazioen ondorioz ordaintzera behartutako subjektuei jakinarazitako zorrak, borondatezko epean egon edo epe exekutiboan egon.

c) Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak erabakitzen duen beste edozein zor.

2. Era berean, entitate laguntzaileek sarrerarik eragiten ez duten autolikidazioak onartu behar dituzte, bai eta zerga araudian jasotako informazioa emateko obligazioak betez izaera orokorrez exijitutako aitorpenak ere.

## 12. artikulua. Entitate laguntzailearen bidez ordaintzeko prozedura.

1. Aipatu entitateetan irekitako erabilera mugatuko kontuetan ordainduko dira sarrerak. Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak erabakiko ditu, foru agindu bidez, kontuen izendapena eta funtzionamendua.

2. Nolanahi ere, entitate laguntzaileek legezko dirua onartu behar dute ordaintzeko modu gisa. Era berean, trafiko bankarioan ordaintzeko ohiko beste modu bat onartu dezakete, nahiz eta entitateak berak erabakiko duen modu horiek onartzea arriskuak bere gain hartuta.

Ordaintzeko modua edozein izanik ere, inoiz ere dira Administrazioaren konturakoak izango legezko diruaz besteko ordainketa moduak erabiltzeak ekar ditzakeen gastuak. Gastu horiek direla eta, inoiz ere ezin izango dira gutxitu aurrez sartutako zenbatekoak.

3. Entitate laguntzaileek beraientzat lanegun diren egun guztietan onartuko dituzte sarrera horiek kutxa orduetan, eta segidan erabilera mugatuko kontuan abonatuko dituzte.

4. Entitate laguntzaileek ez dute hartuko zergadunek jasotako datuen zehaztasunaren erantzukizuna, salbu aitortzailearen identifikazio fiskaleko zenbakiarena, eta bilketarako mugaegunei erreparatu gabe onartu beharko dituzte sarrerak.

5. Autolikidazioak direnean, ordaintzera behartutako pertsonak inprimakia aurkeztuko dio entitate laguntzaileari.

Sarrera Administrazioak egindako likidazioaren ondorio bada eta ordaintzera behartutako pertsonari jakinarazi bazaio, horrek ordainketa agiria aurkeztu beharko du ereduaren arabera.

6.[7] Diru-sarrera bat onartu behar duen entitate laguntzaileak honako hau egiaztatu behar du, kontuan ordaindu aurretik:

a) Diru-sarreraren zenbatekoa guztiz bat datorrela autolikidazioaren edo ordainketa agiriaren «Ordaintzekoa, guztira» atalean agertu behar duenarekin.

b) Agiri horietan zergadunaren izena, helbidea eta identifikazio fiskaleko zenbakia jasotzen direla, baita kontzeptua eta ordainketa horri dagokion ekitaldia edo epealdia ere.

Aurreko egiaztapena balekoa bada, entitate laguntzaileak hurrengo kontzeptuak balidatu beharko ditu, dela mekanikoki, kontabilitate makina bidez, dela eskuz zigilatuta, autolikidazioa osatzen duen dokumentuan edo ordainketa agirian: diru-sarreraren data, guztira zenbat ordaindu den, kontzeptua eta entitatearen eta bulego hartzailearen gakoa. Horrela, diru-sarreraren kontzeptua geratuko da ziurtatuta, baita diru-sarrera hori Foru Diruzaintzaren kontuetan egin dela ere.

Administrazio bakoitzak ezarri ahal izango du diru-sarrerak balidatzeko garaian entitate laguntzaileek aurreko paragrafoan jasotakoez bestelako prozedurak erabili ahal izango dituztela, bereziki, diru-sarrera modu ez-presentzialean egiten den kasuetan.

Nolanahi ere, ezartzen diren balidazio prozedurek bermatu beharko dute diru-sarrerari lotutako informazioa behar bezala identifikatzen dela.

7. Zergadunari aukera ematen bazaio ordainketa edo itzulketa agiria, autolikidazioa eta dokumentazio osagarria kartazal itxian aurkezteko, arau hauei jarraituta egin beharko du:

[7] Apartatu hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 5 artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

a) Ordainketa edo itzulketa agiria aurkeztu behar du entitate laguntzailean, non autolikidazioaren funtsezko datuak eta ordaindu edo itzultzeko kopurua jasoko dituen.

b) Entitateak ordainketa edo itzulketa agiria behar bezala beteta ote dagoen egiaztatu behar du.

Sarrera bada, lehenago aipatutako formalitateak eta baldintzak beteta ziurtatuko du.

Transferentzia bidezko itzulketa eskatzen bada, agiriak zigilatuko ditu, eta kontu bankarioaren benetakotasuna eta zergadunaren titulartasuna ziurtatuko ditu.

Bi kasuotan, entitate laguntzaileak beretzat gorde behar du entitatearen alea, eta zergadunari harenak emango dizkio.

c) Zergadunak bere ordainketa edo itzulketa agiriaren administrazio alea erantsi behar dio autolikidazioari, eta entitate laguntzaileari emango dio Administrazioari kartazal itxian bidal diezaiola. Kartazalaren atzealdean, izena eta deitura, sozietate izena edo izendapena eta zerga kontzeptua jarri behar ditu.

d) Zergadunak eskatuta, entitate laguntzaileak zigilua jarri behar du autolikidazioaren administrazio eta zergadun aleen lehendabiziko orrian, datu hauek jasota: aitorpenaren aurkezpen eguna, eta entitatearen eta bulego hartzailearen gakoak.

8. Zergadunak ordainketa agiria aurkeztutakoan entitate laguntzaileak balioztatu duen zenbatekoa zuzena denean baina horrek bidezko sarrera baino handiagoa ordaintzen duenean, entitate laguntzailearen aldeko itzulketa tramitatuko da aplikaziozko araudian jasotakoaren arabera, eta sarrera horiei ez zaie aplikatuko berandutza interesa.

### 13. artikulua. Bitarteko elektronikoz ordaintzeko prozedura.[8]

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezarri ahal izango du nola eta zer baldintzatan ordaindu daitekeen zorra bitarteko elektronikoak erabilita.

## *2. azpisekzioa. Kreditu entitateetan eta organo kudeatzaileen kutxetan irekitako kontu baimenduetan ordaintzea*

### 14. artikulua. Kontu baimenduetan eta organo kudeatzaileen kutxetan ordaintzea.

1. Kreditu entitateetan irekitako kontu baimenduetan ordaindu daiteke kudeaketari, zerbitzu prestazioaren hobekuntzari, fondoen zaintzari edo antzekoei lotutako arrazoiak direla medio beharra frogatuta gelditzen denean.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak banaka baimenduko du kontu baimenduak irekitzea, eta erabiltzeko baldintzak jarriko ditu.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak kontu baimenduak deuseztatzea erabakiko du, organo kudeatzaileak edo berak

---

[8] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO)..

egiaztatzen duenean kontuak irekitzeko arrazoirik ez dagoela edo erabiltzeko baldintzak ez direla betetzen.

2. Organo kudeatzaileen eskariz, haien dependentzietan kokatutako kutxetan ordaintzea baimendu dezake Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak, ekonomiari, eraginkortasunari edo erabiltzaileentzako zerbitzu prestazio hobeari lotutako arrazoiak daudenean.

Horrela gertatzen bada, gutxienez arau hauek bete beharko dira:

a) Ordainketa guztien frogagiria aurkeztu behar da.

b) Ordainketa bakoitzaren kopia edo ordezkagiria egon behar da.

c) Fondoak Foru Diruzaintzaren kontuetara eraman behar dira egunez egun edo organo eskudunak jarritako epean, kudeaketa onaren irizpideak betez.

3. Agiri zigilatuen bidez ordaintzen diren sarrerak erregelamendu honetan ordainbide horretarako jarritako arauei lotuko zaizkie.

*3. azpisekzioa. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusian ordaintzea*

**15. artikulua. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusian ordaintzea.**

1. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiak, organo eskudunaren bidez, organo horretan likidatu edo atxikitzen diren kopuruak bilduko ditu, bai eta Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak erabakitako kopuruak ere.

2. Kopuru horiek kreditu entitateetan sartu behar dira.

3. Salbuespen gisa, Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiaren kutxan ordaintzea baimendu dezake Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiak.

*4. azpisekzioa. Foru organismo autonomoek bildutako zorren ordainketaren berezitasunak*

**16. artikulua. Foru organismo autonomoetan ordaintzea.**

Foru organismo autonomoek beren gain hartutako sarrerak, bestetik, kreditu entitateetan edo foru organismo autonomoaren kutxetan foru organismo autonomoaren izenean irekitako kontu baimenduetan ordaindu daitezke.

Organismoaren kontu edo kutxetan ordaindutako sarrera guztiak banaka edo taldeka erregistratuko dira, eta salmentaren, zerbitzuaren edo bestelako eragiketaren fakturez, ordainagiriez eta gainerako frogagiriez egiaztatuko dira.

Kutxetan bildutako fondoak kontu baimenduetan sartu behar dira egunez egun edo organo eskudunak jarritako epean, kudeaketa onaren irizpideak betez.

## *2. sekzioa. Aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorren bilketa*

**17. artikulua. Kobratzeko modalitatea.**

Aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorrak honelaxe bildu daitezke, kasu bakoitzean jasotzen denaren arabera:

a) Baliabideen kudeaketa beren gain hartua duten enteetako bilketa organoen bidez.

b) Entitate laguntzaileen bidez, Foru Administrazioak horretarako luzatutako agiria aurkeztuta.

c) Foru Ogasunaren baliabideak sartzeko jasotzen den beste edozein modalitatetan.

## 18. artikulua. Kobrantza iragarkiak.

1. Ordainketa epearen berri jendartean emango da. Horretarako, kobrantza iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta lurralde historikoko udalerri interesatuetan ere jarriko da ikusgai. Gainera, iragarkiaren laburpena egoki iritzitako hedabideetan argitaratu daitezke.

2. Kobrantza iragarkian datu hauek eman behar dira gutxienez:

a) Ordainketa epea.

b) Zein kobrantza modalitate erabiliko den erregelamendu honek 17. artikuluan jasotakoen artean.

c) Ordaintzeko tokiak, egunak eta orduak.

d) Hala badagokio, ordainagiriak sartzeko helbideratze bankarioak zein mugaegunetan izango duen ondorioa aldi horretan.

e) Ohartarazpen hau: ordainketa epea amaitu bada zorrak sartu gabe, zorrak premiamenduzko prozeduraz exijituko dira, eta epe exekutiboko errekarguak, berandutza interesak eta, hala badagokio, kostuak sortuko dira.

3. Kobrantza iragarkiaren ordez, banakako jakinarazpenak egin daitezke.

## 19. artikulua. Aldizkako mugaeguna duten eta jakinarazpen kolektibokoak diren zorrak ordaintzea

1. Foru Administrazioak ordaintzera behartutako pertsonen zerga helbidera bidaliko du, informazio gisa, zorra ordaintzeko behar den agiria.

2. Dena den, aipatu agiria ez dagoenean, ordaintzera behartutako pertsonak edo ordainketa egin nahi duen beste batek Foru Administrazioari eskatu behar dio kobrantza iragarkian jasotzen den tokian eta orduan.

Eskaera hori egitean, ordainketa agiria emango zaio eskatzaileari.

3. Ordainagirien ordainketa helbideratu nahi duten ordaintzera behartutako pertsonek komunikazio bat zuzendu beharko diete kreditu entitateei, zein ordainagiri abonatu behar duten zehaztuta.

4. Ordainketa helbideratzeek ez dute epemugarik, hau da, harik eta interesatuak deuseztatu arte egongo dira indarrean, edota kreditu entitateak errefusatu arte edo Foru Administrazioak bidezko arrazoiak tarteko helbideratzea berariaz indargabetu

arte. Azken kasu horretan, Foru Administrazioak helbideratzea indargabetzeko erabakia jakinarazi beharko die ordaintzera behartutakoari eta entitate laguntzaileari.

## *3. sekzioa. Zergabilketaren kudeaketan lortutako kopuruak Foru Diruzaintzaren kontuetan ordaintzea*

### 20. artikulua. Foru Diruzaintzaren kontuetan egindako ordainketei buruzko xedapen orokorrak.

1. Zergabilketaren funtzioa betetzean organo eta entitateek jasotako kopuruak Foru Diruzaintzaren kontuetan sartu beharko dituzte beraiek, sekzio honetan finkatutako xedapenei jarraituta.

2. Zergak biltzen laguntzen duten entitateek eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontura biltzen duen beste edozein pertsona edo entitatek Foru Diruzaintzaren kontuetan sarrerak ez dituztenean epe barruan ordaintzen, organo eskudunak berehala sartzeko exijituko die eta berandutza interesen likidazioa egin eta horiek ere ordaintzeko jakinaraziko zaie.

3. Ordainketen atzerapenak eta zerbitzuak ematean gertatzen diren gainerako gorabeherak organo eskudunari jakinarazi behar zaizkio, bidezko neurriak har ditzan.

### 21. artikulua. Zergabilketako entitate laguntzaileetan ordaintzea.

1. Entitate laguntzaileek bildutako kopuruak Foru Diruzaintzan sartzeko eragiketa zentralizatuko dute, bai eta 2 apartatuan jasotzen den Gipuzkoako Foru Aldundiako informazio igorpena ere.

Izaera orokorrez, entitate laguntzaileek Foru Diruzaintzaren kontuetan sartu behar dituzte haiek hamabostaldi bakoitzean bildutako kopuruak. Horretarako, balorazio data hil bakoitzaren 15a eta azken eguna izango da eta ordainketa data, aldiz, egun horiek edo ondoko lehen egun balioduna. Hamabostaldia aurrekoaren amaieran hasiko da, eta ondorengo 10ean edo 25ean edo, 10 edo 25 egun baliogabeak badira, ondoko lehen egun baliodunean bukatuko da.

Dena den, entitate laguntzaileek banku helbideratzearen bidez sartuko dute urteko zerga kanpainetan bildutakoa, zergadunaren kargu dataren ondorengo bost egun naturalen barruan gehienez.

2. Finantza eta Aurrekontuetako zuzendari nagusiak zergabilketako urteko egutegia onartuko du, behar adina egokituta, eta bildutako kopuruen komunikazio eta ordainketa datak nahiz balorazio datak adieraziko ditu.

Era berean, zehaztuko du entitate laguntzaileek noiz, nola eta zein euskarritan emango dioten zergabilketako organo eskudunari sarrerak kudeatu eta jarraipena egiteko behar den informazioa.

### 22. artikulua. Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiaren kutxan ordaintzea.

Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza Nagusiaren kutxak kobratutako kopuruen batura osoa kudeaketa onaren irizpideekin bat datozen epeetan sartu behar da Foru Diruzaintzaren kontuetan.

### 23. artikulua. Kreditu entitateetan irekitako kontu baimenduetan ordaindutako beste sarrera batzuk.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo bere foru organismo autonomoen kontu baimenduen bidez zuzenean bildutako kopuruak egunez egun sartu behar dira, non eta Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak beste epe bat ez duen finkatzen kontua baimentzeko foru aginduan.

# II. TITULUA

# ZORRA

## I. Kapitulua

## Zorra iraungitzea

### 24. artikulua. Zorra iraungitzea.

Zorrak iraungiko badira, ordaindu, preskribatu, konpentsatu edo barkatu egin behar dira, edo foru arauetan edo lege xedapenetan jasotako gainerako bitartekoak aplikatu ere bai.

## *1. sekzioa. Ordainketa*

### 25. artikulua. Legitimazioa, eta ordaintzeko tokia eta modua.

1. Edozein pertsonak ordaindu dezake, obligazioa betetzeko interesatua izan edo ez, borondatezko epean nahiz epe exekutiboan, bai ordaintzera behartutakoak horren berri izan eta onartzen badu eta bai ez badu horren berri.

Zorra ordaintzen duen hirugarren bat ez dago legitimatuta ordaintzera behartutakoaren eskubideak Administrazioaren aurrean erabiltzeko.

2. Zorrak entitate laguntzaileetan ordaindu daitezke, zuzenean nahiz telematikoki, eta organo eskudunen kutxetan, indarrean dagoen araudiak hala jasotzen duenean.

3. Jasotzeko eskumenik ez duten organoei edo horretarako baimenduta ez dauden pertsonei egindako ordainketek ez diote zordunari kenduko ordaintzeko betebeharra. Nolanahi ere, horrek mota guztietako erantzukizunak ekar diezazkioke ordainketa oker onartzen duen jasotzaileari.

4. Esku-dirutan, agiri zigilatuen bitartez eta gauza bidez ordaindu daitezke zorrak.

### 26. artikulua. Esku-dirutan ordaintzeko bitartekoak eta momentua.

1.[9] Zerga zorrak eta zehapenak eskudirutan ordaintzeko, jarraian aipatzen diren bitartekoetako edozein erabili daiteke, betiere erregelamendu honetan horietako

[9] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

bakoitzerako ezartzen diren beharkizunak betez eta kasu bakoitzean erabakitzen diren prozedurei jarraituz:

a) Legezko dirua.

b) Txekea.

c) Kreditu eta zordunketa txartela.

d) Banku-transferentzia.

e) Banku-helbideratzea.

f) Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak baimentzen duen beste edozein.

Zerga arauetan jasotzen diren kasuetan onartuko da aurreko c), d) eta e) letretan aipatutako bitartekoekin ordaintzea. Arau orokor gisa, zerga Administrazioarekiko harremanetan bitarteko elektronikoak erabiltzen dituzten zergapekoek, bereziki, bankutik helbideratuta egin behar dituzte beren ordainketak.

2.[10] Tributuz kanpoko zorrak eskudirutan ordaintzeko, beren araudiak baimentzen dituen bitartekoak erabiliko dira. Arau berezirik ezarri ez bada, ordainketa egingo da aurreko 1. apartatuan aipatutako bitartekoetako bat erabilita, salbu eta c), d) eta e) paragrafoen kasuan, horiek berariazko erregulazioa beharko baitute.

3. Zorra esku-dirutan ordaindutzat hartzen da haren zenbatekoa organo eskudunen, entitate laguntzaileen kutxan edo ordainketa jasotzeko baimendutako gainerako pertsona edo entitateen kutxan sartu denean.

4. Dena den, zergabilketan laguntzen duten entitateen bidez edo baimenduta dauden bestelako pertsonen bitartez ordaintzen denean zorra, zordunari ordainketaren frogagiria emango zaio; horrela, frogagiria egiten den egunetik aurrera zorra berriro ordaintzetik aske geldituko da zorduna, bertan adierazten den zenbatekoagatik betiere. Bestalde, zordunak frogagiria jasotzen duen unetik, entitate laguntzailea edo pertsona baimendua Gipuzkoako Foru Aldundiarekiko behartuta geratuko da hartan adierazten den zenbatekoari dagokionez, non eta ez den egiaztatzen frogagirian agertzen den data edo zenbatekoa oker dagoela modu sinesgarrian.

5. Zordunak entitate laguntzaileei edo ordainketa jasotzeko baimendutako beste pertsona batzuei emandako ordainketa aginduek berez ez dute ondoriorik izango; nolanahi ere, agindu emaileak ekintzak gauzatu ditzake ez-betetzearen arduraduna den entitatearen edo pertsonaren aurka.

## 27. artikulua. Txeke bidez ordaintzea.

Foru Diruzaintzaren kutxetan egin beharreko ordainketak txeke bidez egin daitezke; aipatu txekeak baldintza hauek bete beharko ditu, merkataritzako legeriak exijitutako beharkizun orokorrez gain:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiarentzako txeke izenduna eta zeharkatua izatea.

---

[10] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

b) Igorpena hartzen duen entitateak adostuta edo ziurtatuta egotea.

c) Igorlearen izen-deiturak edo sozietate izen edo izendapen osoa argi jasotzea sinaduraren behealdean.

Txekea emateak ordaintzera behartutako pertsonari obligazioa kenduko dio horrek ordaindutako zenbatekoagatik, txekea diru bihurtzen denean. Hala gertatzen denean, kutxan sartu den egunetik izango du ondorioa.

Dena den, balio osoz adostu edo ziurtatutako txekea ezin denean diru bihurtu osorik edo zati batean, hori adostu edo ziurtatu zuen entitateari exijituko zaio ordaintzea.

## 28. artikulua. Kreditu eta zordunketa txartelaren bidez ordaintzea.

1. Organo eskudunen kutxetan kreditu eta zordunketa txartelen bidez ordaintzea onartuko da, araudian hala jasotzen denean.

2. Entitate jaulkitzaileak txartel bakoitzari banaka jarritako mugak kontuan hartuta, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak mugak jarri diezazkioke bitarteko hori erabiliz egin beharreko ordainketen zenbatekoari, bai eta egoki deritzen baldintzak ere.

Agiri berari dagokionez, aldi berean ezin izango dira erabili txartel bidezko ordainketa eta ordaintzeko beste edozein bitarteko.

3. Ordaintzera behartutakoek kreditu edo zordunketa txartelen bidez sartutako zenbatekoak ezin izango dira gutxitu txartel horiek erabiltzeagatik egindako deskontuak edo beste edozein arrazoi direla medio.

4. Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak ordainbide hori telematikoki erabiltzeko baldintzak jarri ditzake.

## 29. artikulua. Banku transferentzia bidez ordaintzea.

Banku transferentzia bidez ordaintzekotan, ordainketa momentutzat hartuko da zenbatekoa jasotzeko baimendutako entitatean sartu den eguna; momentu horretatik aurrera kenduko zaio obligazioa ordaintzera behartutakoari Foru Ogasunaren aurrean.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak ordaintzeko bitarteko hori telematikoki erabiltzeko baldintzak jarri ditzake.

## 30. artikulua. Banku-helbideratzearen bidez ordaintzea.[11]

1. Banku-helbideratzeak baldintza hauek bete behar ditu:

a) Ordaintzera behartutako pertsonak ordainketa helbideratzeko kontuaren titularra izan behar du, eta kontu horrek entitate laguntzaile batean egon behar du irekita. Dena den, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak baimentzen badu, zilegi izango da ordainketa beste kreditu entitate batzuetan helbideratzea.

---

[11] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak ezartzen dituen modu eta baldintzetan, ordainketa helbideratu ahal izango da behartutako pertsonarena ez den kontu batean, baldin eta kontu horren titularrak helbideratze hori baimentzen badu.

b) Ordaintzera behartutako pertsonak helbideratze agindua jakinarazi behar die Gipuzkoako Foru Aldundiko organoei, araudian kasu bakoitzerako ezartzen diren prozedurei jarraituz.

2. Zerga Administrazioak, oro har, ordaintzeko borondatezko epearen azken egunetik hurrengo hiru egun baliodunera bitartean kargatu ahal izango ditu helbideratzeak ordaintzera behartutakoak adierazitako banku kontuan. Zirkunstantziek horretara bultzatzen badute, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak, foru agindu bidez, erabaki dezake geroko data bat ezartzea kargua egiteko.

Helbideratzeak kargatzeko egunean egiten diren ordainketak ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egunean egindakotzat joko dira. Ordainketaren frogagiritzat hartuko da ordainketa helbideratuta dagoen kreditu entitateak horretarako ematen duen agiria, eta bertan erregelamendu honen 33.3 artikuluan ezartzen diren datuak jaso beharko dira gutxienez.

Hori hala izanik ere, zorren ordainketa geroratzen edo zatikatzen den kasuetan, ebazpenekin batera onartutako ordainketa planetan ezartzen diren epemugen barruan kargatuko dira zorrak kontuan.

3. Aurreko apartatuan xedatutakoaren ondorioetarako, ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egunetik kargua gauzatu arte zergadunak behar besteko saldoa eduki behar helbideratze kontuan.

4. Helbideratze kontuan behar besteko saldoa dagoela ulertuko da baldin eta ordaintzeko borondatezko epea amaitzen den egun osoan zehar eta kargua egin arteko egunetan haren zenbatekoa zorraren zenbatekoaren berdina edo handiagoa bada.

5. Ordainketa ezin bada kontuan kargatu saldoa nahikoa ez izateagatik edo Gipuzkoako Foru Aldundiari egotzi ezin zaion beste edozein arrazoirengatik, zorra ordaindu gabekotzat hartuko da, hurrengo apartatuan jasotakoan izan ezik. Ez dira inola ere onartuko ordainketa partzialei dagozkien karguak.

6. Ordainketa ez bada kontuan kargatzen edo kargua epez kanpo egiten bada ordaintzera behartutakoari leporatu ezin zaizkion arrazoiengatik, behartutakoari ez zaio errekargurik edo berandutze intereseik ezarriko, baina horrek ez du kenduko entitate erantzuleari errekargu edo interesak ezartzea ordainketan gertatutako atzerapenagatik.

### 31. artikulua. Agiri zigilatuen bidez ordaintzea.

1[12]. Honako hauek hartzen dira efektu zigilatutzat:

---

[12] Apartatu hau irailaren 28ko 25/2010 Foru Dekretuaren artikulu bakarrak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2010/10/11ko GAO). Foru Dekretuaren xedapen iragankorraz arabera, indarrean sartzean, ebazteko dauden gerorapen edo zatikapen espediente guztiei aplikatuko zaie bertan xedatutakoa.

a) Notarioek bakarrik erabiltzekoa den paper zigilatua.

b) Kanbio letrak.

c) Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak erabakitzen dituen bestelakoak.

2. Agiri zigilatuen erabilera, itxura, estanpazio, ikus-onespena, deuseztapena, truke baldintzak eta gainerako ezaugarriak ordainbide hori onartzen duten zergei eta izaera publikoko gainerako baliabideei buruzko arauen bitartez eta erregelamendu honen xedapenen bidez gidatuko dira.

3. Agiri zigilatuak sortu eta aldatuko badira, foru agindua eman behar du Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.

4. Zergei eta zuzenbide publikoko gainerako baliabideei buruzko arauak aldatzeagatik agiri zigilatu berriak erabili behar direnean, zirkulaziotik kendu behar dira eta haiek suntsituko direla bermatuko da.

5. Zirkulaziotik kendutako agiri zigilatuen edukitzaileek indarrean dauden beste batzuekin trukatu ditzakete.

## 32. artikulua. Gauza bidez ordaintzea.

1.[13] Gipuzkoako Foru Aldundiari zorrak ordaintzeko garaian ordainbide hori erabili nahi duen pertsonak eskaera bat aurkeztu beharko dio, propio, Ogasuneko zuzendari nagusiari, bertan zorduna identifikatuz eta era horretan zein zor ordaindu nahi duen adieraziz. Eskaerarekin batera, ondasunen balorazioa eta ordainbide hori onartzeko interesari buruzko txostena aurkeztu beharko dira, biak ere ondare edo kultur gaietan eskumena duen foru departamentuak emanak ondasunek interes historikoa edo artistikoa izanez gero; halakorik ezean, horiek eskatu izanaren frogagiria aurkeztuko da.

Gauzen bidez ordaintzeko eskaera borondatezko epean aurkezten bada aurreko paragrafoan aipatutako agiriekin batera, epe exekutiboa ezin izango da hasi, salbu eta Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 165.2 artikuluaren bigarren paragrafoan aipatzen den egoera gertatzen bada. Horrek ez du galaraziko, dena den, berandutze interesak sortzea.

Enbargatutako ondasunak besterentzea erabakitzen duen administrazio egintza behartutako pertsonari jakinarazten zaion arte aurkeztu ahal izango da eskaera epe exekutiboan. Eskaerak ez du ondorio etengarririk izango, baina horrek ez du galaraziko enbargatutako ondasunak besterentzeko jarduketak etetea harik eta Ogasuneko zuzendari nagusiak gauzen bidez ordaintzeko prozedurari amaiera emateko ebazpena eman arte.

2. Eskaerarekin batera aurreko apartatuan aipatutako agiriak aurkezten ez direnean, tramitatzeko organo eskudunak hamar eguneko epea emango dio eskatzaileari derrigorrezko agiriak aurkez ditzan, eta adieraziko dio hala egin ezean haren eskaeran atzera egindakotzat joko zaiola eta eskaera besterik gabe artxibatuko dela.

[13] Apartatu hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

Gauza bidez ordaintzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu denean eta akatsak zuzentzeko errekerimenduari erantzuteko denbora borondatez ordaintzeko epearen ondoren amaitu eta akatsak zuzendu ez direnean, premiamenduzko prozedura hasiko da premiamenduzko probidentzia jakinarazita.

Akatsak zuzentzeko errekerimenduari erantzun arren akatsak ez direnean zuzendu edo agiriak ez direnean aurkeztu, ukatu egingo zaio gauza bidez ordaintzeko eskaera.

3. Ebazpena sei hilabeteko epean jakinarazi behar zaio, interesatuaren eskaera eta 1 apartatuan aipatutako balorazio eta txostena jasotzen direnetik aurrera. Ebazteko epea amaitzen bada ebazpena jakinarazi gabe, interesatuek eskaera ezetsitzat hartu dezakete, ustezko ukapenaren aurka errekurtsoa jartzeko edo ebazpen espresua eman arte itxoiteko.

Ogasuneko zuzendari nagusiak ebatziko du zorra ordaintzeko ondasunak onartzea edo ez. Ebazpenean eskaera ukatzen bazaio, arrazoitu egin beharko da.

4. Eskaera onartu edo ukatzeko ebazpenaren kopia bidaliko zaio ondare arloan eskumena duen foru departamentuari eta, hala badagokio, balorazio eta txostena egin zituen departamentuari, beste esparru funtzional batekoa bada.

5.[14] Eskaera onartzea ebazten bada, eskainitako ondasunak entregatzea edo eskura jartzea ezinbesteko baldintza izango da ebazpena eraginkorra izan dadin. Ondasunak onarpenari buruzko ebazpenean jasotako moduan eta epean entregatzen edo eskura jartzen badira, zorra iraungitzeko ondorioak eskaeraren datatik aurrera gertatzen direla ulertuko da.

Ordainketa gauzen bidez egitea onartzen bada, berandutze interesak likidatuko dira ordaintzeko borondatezko epea amaitzen denetik ebazpena ematen den egunera arte, eta onarpenaren ebazpenean bertan jasota utzi daiteke ordainean emandako ondasunaren balioa behar bestekoa izanez gero ondasun hori berandutze interes horiek kitatzeko baliatu daitekeela. Horrek ez du eragotziko, dena den, gerora bestelako interesak sortzea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 26. artikuluan xedatutakoarekin bat.

6.[15] Ezezko ebazpena ematen bada, ondorioak honako hauek izango dira:

a) Eskaera borondatez ordaintzeko epean aurkeztu bada, ezezko ebazpenaren jakinarazpenak berekin ekarriko du 10 eguneko epea hastea, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuta, diru-sarrera egin dadin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 165.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe.

Zorra ez bada epe horretan ordaintzen, hasiera emango zaio epe exekutiboari, eta premiamenduzko prozedura abiatuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen

---

[14] Apartatu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 6. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean.

[15] Apartatu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 6. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean.

Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluetan jasotako terminoetan.

Era berean, berandutze interesak likidatuko dira ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik ezezko ebazpena ematen den egunera arte, betiere Apartatu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 6. artikuluko bat apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean.Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 26. artikuluan xedatutakoaren arabera gerora sor daitezkeen bestelako interesak eragotzi gabe.

b) Eskaera epe exekutiboan aurkeztu bada, premiamenduzko prozedura hasi beharko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluan aurreikusitako terminoetan, lehenagotik hasi ez bada betiere.

7.[16] Ondasunak 10 eguneko epean entregatu edo jarri behar dira Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku, gauzen bidezko ordainketa onartzeko erabakia jakinarazi eta hurrengo egunetik kontatzen hasita, non eta entrega edo eskura jartzen hori ez den lehenago egin. Zerga-bilketako organoari ondasunak adostasunez jaso izanaren frogagiriaren kopia bidaliko zaio.

Ondasunak ez badira aurreko paragrafoan adierazitako moduan entregatzen edo eskura jartzen, onarpenaren ebazpena ondoriorik gabe geratuko da, eta horrek honako hau ekarriko du:

a) Eskaera borondatez ordaintzeko epean aurkeztu bada eta epe hori igarota badago, ondasuna entregatzeko edo eskura jartzeko epea amaitu eta hurrengo egunean epe exekutiboa hasiko da, eta premiamenduzko prozedura hasi beharko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluan aurreikusitako terminoetan. Horrelakoetan, zorraren tronkoa eta epe exekutiboko errekargua ordaintzea exijituko da.

b) Eskaera epe exekutiboan aurkeztu bada, premiamenduzko prozedurarekin jarraitu beharko da.

8. Artikulu honetan jasota ez dagoen guztiari dagokionez, ordainbide honen ondorioak zorren ordainez emateari buruzko legeria zibilean jasota daude.

## 33. artikulua. Ordainketaren frogagiriak eta ziurtapenak.

1. Zorra erregelamendu honetan jasotakoaren arabera ordaintzen duenak eskubidea izango du ordainketaren frogagiria jasotzeko.

2.[17] Eskudirutan egindako ordainketaren frogagiriak hauek izango dira, kasuan kasu:

---

[16] Apartatu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 6. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean.

[17] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

a) Ordainagiriak.

b) Organo eskudunek edo ordainketa jasotzeko baimendutako entitateek sinatu edo balioztatutako ordainketa-gutunak.

c) Diru-sarrera egin dela frogatzen duten ziurtagiriak.

d) Ordainketaren frogagiri balioa berariaz aitortua duen beste edozein dokumentu, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru agindu bidez ezarria.

3. Esku-dirutan egindako ordainketaren frogagiriek informazio hau eman behar dute gutxienez:

a) Ordaintzera behartutako pertsonaren izen-deiturak edo sozietate izen edo izendapen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea.

b) Zorraren kontzeptua, zenbatekoa eta zergaldia.

c) Ordainketa data.

d) Frogagiria luzatzen duen organoa, pertsona edo entitatea.

4. Ordainketa frogagiriak bitarteko mekanikoez luzatzen direnean, zorduna eta berak ordaindutako zorra identifikatzeko moduko gakoaz edo laburduraz adierazi daiteke aurreko apartatuan jasota informazioa.

5. Agiri zigilatuak erabiltzen direnean, behar bezala deuseztatutako agiriak beraiek balio izango dute ordainketa frogagiri gisa.

6. Gauza bidez ordaintzen denean, ordainketaren frogagiritzat hartuko da organo eskudunak hartutako erabakia, non ondasunak eman edo eskura jarri direla adieraziko den.

7. Zordunak ordainketa frogatzeko ziurtapena eskatu diezaioke Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuari.

### 34. artikulua. Kontsignazioa.

1. Ordaintzera behartutakoek esku-dirutan jarri kontsignatu dezakete zorraren eta kostuen zenbatekoa Foru Diruzaintza kudeatzeko eskumena duen organoan:

a) Bidezko erreklamazio edo errekurtsoak aurkezten direnean.

b) Zergabilketa organoak edo ordainketa jasotzeko baimendutako entitateak ez duenean onartu, nahiz eta horretara behartuta egon, edo ezinbestez ezin duenean onartu.

2. Aurreko apartatuko a) letran jasotakoa gertatzen bada, kontsignazioak auzipeko egintzaren exekuzioa etengo du hori egin denetik, errekurtso eta erreklamazioei buruzko arauei jarraituta egiten denean.

3. Aurreko apartatuko b) letran jasotakoa gertatzen bada, kontsignazioak ordainketatik liberatuko du hura egin denetik aurrera, kontsignatutako zenbatekoari dagokionez, betiere zergabilketa organoari jakinaraziz gero.

4. Nolanahi ere, berariaz izendatutako entitate laguntzailearen bidez egingo da kontsignazio hori.

### 35. artikulua. Zerga bateraezinak badira egin beharreko jarduketak.

1. Martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 61.7 artikuluan jasotako kasuetan, zein den bidezko zerga zehaztu ondoren, honelaxe jokatu behar da:

a) Lehendabizi bidezko zerga likidatu bada, egindako bigarren likidazioa deuseztatuko da eta, hala badagokio, azken horri dagokionez ordaindu diren kopuruak itzuliko dira.

b) Bigarrenik bidezko zerga likidatu bada, kasuaren arabera jokatu behar da:

1.- Bigarrenik egindako likidazioa irmoa denean epe barruan errekurritu ez delako, lehendabizi egindako likidazio bidegabeari dagokionez onartzen den sarrera-itzulketarekin bat datorren zatian iraungiko da zorra, behin itzulketa erabakia irmoa izan ondoren. Kasu horretan, bidezko zergari buruz eskumena duen Zerga Administrazioak iraungipen hori onartuko du 2 apartatuan jasotakoaren arabera.

Hala ere, kasu hauetan zorra ez da iraungita geratuko:

Jasanarazitako zerga bidegabetzat hartu bada oker jasanarazitako zerga jasan duen ordaintzera behartutako pertsonak eskubidea duenean oker jasandako zenbateko osoaren kenkaria egiteko.

Jasanarazitako zerga bidegabetzat hartu bada jasanarazitako zergaren subjektu pasiboak eragiketan jasanarazitako kuotak zuzendu dituenean, zerga horren araudiari jarraituta.

2.- Bigarrenik egindako likidazioa errekurritu denean, ebazpena auzialdi guztietan irmoa izan are itxoin beharko da. Behin ebazpena irmoa denean, ondoren jasotakoari jarraituta jokatu behar da kasuaren arabera:

Ebazpen administratibo edo judizialak zerga likidatua bidegabetzat jotzen badu, hasierako tributazioa bidezkotzat hartuko da. Orduan, itzuli beharko dira aipatu ebazpen administratibo edo judizialaren bidez deuseztatutako likidazioari dagokionez egindako sarreretatik erator daitezkeen kopuruak.

Ebazpen administratibo edo judizialaren bidez zerga bidezkotzat jotzen bada baina likidazioa deuseztatzen bada, beste bat egingo da eta, behin hori irmoa denean, aurreko 1. paragrafoan jasotakoaren arabera jokatu behar da, eta zorra iraungitzat hartuko da. Kontzeptu hori dela-eta beste likidazio bat egitea ezinezkoa denean, deuseztatutako likidazioari dagokionez egindako sarreretatik erator daitezkeen kopuruak itzuliko dira.

Ebazpen administratibo edo judizialaren bidez tributazioa eta likidazioa bidezkotzat jotzen bada, zorra iraungi egingo da aurreko 1. paragrafoan jasotako moduan eta baldintzetan.

2. Zorraren okerreko sarrera hartu duen Zerga Administrazioak hori Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskura jartzen badu, ordainketa efektiboaren datatzat hartuko da administrazio hartan egindako ordainketarena.

3. Aurreko paragrafoan araututako iraungipenak ez du eragotziko zerga jasanarazi zuen ordaintzera behartutakoaren zerga egoera erregularizatzea.

## *2. sekzioa. Gerorapena eta zatikapena*

### 36. artikulua. Gerorapenak eta zatikapenak.[18]

1. Administrazioak ahalmena du zorren ordainketa geroratu edo zatikatzeko, zergapekoak eskatuta, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 64. eta 79. artikuluetan eta erregelamendu honetan ezarritakoari jarraituz.

2. Herri Ogasunaren titulartasunekoak diren zerga zorrak eta izaera publikoko gainerako guztiak geroratu edo zatikatu daitezke, foru arauetan edo legeetan aurreikusten diren salbuespenak eginda.

Atxikitzaileak edo kontura sartzera behartutakoak bete behar dituen zerga obligazioei dagozkien zorrak geroratu edo zatikatu ahal izango dira, bakar-bakarrik, baldin eta haien zenbatekoak 79.2 artikuluko a) letran xedatutakoa aplikatzeko aukera ematen badu edo, bestela, zorra bere osoan bermatzen bada martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 79. artikuluko 1. apartatuan xedatutakoari jarraituz.

3. Ordainketaren zatikapena, gerorapenaren modalitatea den aldetik, haren arauen arabera arautuko da, berariaz araututa ez dagoen guztian.

### 37. artikulua. Eskumena.[19]

1. Ogasun eta Finantza Departamentuak biltzen dituen zorrak geroratu edo zatikatzeko eskaerak departamentu horrek tramitatu eta ebatziko ditu, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 64.8 artikuluan eta erregelamendu honetan jasotakoa eragotzi gabe.

Hona hemen zor horien ordainketa geroratzeko eskaera ebazteko organo eskudunak:

a) Unitate Teknikoko burua, geroratu beharreko zenbatekoa 12.000 eurotik gorakoa ez denean eta urtebeteko epea gainditzen ez denean, eta, orobat, geroratu beharreko zenbatekoa 3.000 eurotik gorakoa izan ez eta urtebeteko epea gainditzen denean.

b) Zerga-bilketako zuzendariorde nagusia, geroratu beharreko zenbatekoa 300.000 eurotik gorakoa ez denean eta epea bi urtetik gorakoa ez denean.

c) Ogasuneko zuzendari nagusia, geroratu beharreko zorra 500.000 eurotik gorakoa ez denean eta epea hiru urtetik gorakoa ez denean.

d) Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua, gainerako kasuetan. Dena den, geroratu beharreko zenbatekoa 3.000.000 eurotik gorakoa denean edo hamar urteko epea gainditzen denean, gerorapena emateko ezinbestekoa izango da Diputatuen Kontseiluak baimena ematea aldez aurretik.

---

[18] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko zazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

[19] Artikulua hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

2. Aurreko apartatuko c) eta d) letretan jasotako kasuetan, zergapekoa bermea aurkeztetik salbuetsita badago Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 79.2.b) artikuluan xedatutakoaren arabera, gerorapena ebazteko organo eskuduna Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatua izango da, Diputatuen Kontseiluak aurrez baimenduta, baimen hori gerorapena emateko beharrezkoa denean.

3. Aurreko 1. apartatuan aipatutakoak ez diren gainerako baliabide publikoak geroratzeko eskaerak diru-sarrera horien arauetan xedatutakoaren arabera izapidetu eta ebatziko dira. Halako araurik ez badago, erregelamendu honetan ezarritako erregulazioa aplikatuko zaie modu subsidiarioan.

## 38. artikulua. Eskaera.[20]

1. Gerorapen edo zatikapen eskaerak Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiari zuzendu behar zaizkio, berak tramitatzeko, epe hauen barruan:

a) Autolikidazioak ordaindu edo aurkezteko borondatezko epean dauden zorren kasuan: Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 61. artikuluko 1., 2. eta 3. apartatuetan edo, hala badagokio, dena delako sarrera publikoaren araudian ordainketa egiteko finkatuta dagoen epean.

Ondorio horietarako, zorrak epez kanpo aurkeztutako autolikidazioetatik badatoz, eskaera borondatezko epearen barruan aurkezten dela ulertuko da, bakar-bakarrik, gerorapen eskaera epez kanpoko autolikidazioarekin batera aurkezten denean.

b) Ordaintzeko epe exekutiboan dauden zorren kasuan: enbargatutako ondasunak besterentzeko erabakia zergapekoari jakinarazi arte.

2. Gerorapen edo zatikapen eskaerak datu hauek jaso behar ditu nahitaez:

a) Ordaintzera behartutakoaren eta, egonez gero, ordezkariaren izen-abizenak, sozietate izena edo izendapena, eta identifikazio fiskaleko zenbakia. Orobat, jakinarazpenak nola jaso nahi diren adierazi behar da, salbu eta Administrazioarekin bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta dauden zergapekoak direnean. Bitarteko elektronikoak erabiltzera behartuta daudenek edo, behartuta egon gabe ere, horiek erabiltzea aukeratzen dutenek, beren helbide elektronikoa eman beharko dute jakinarazpena bidali edo eskura jarri izanaren abisua haren bidez jaso dezaten. Interesdunak ez baditu bitarteko elektronikoak aukeratzen, jakinarazpenetarako helbide bat adierazi beharko du.

b) Geroratzeko edo zatikatzeko eskatzen diren zorren zerrenda. Gutxienez datu hauek adierazi beharko dira: zorraren zenbatekoa, kontzeptua, eta, kasua bada, zorra borondatezko epean ordaintzeko azken eguna.

Gerorapen edo zatikapen eskaera ukatzeko arrazoi izango da epe exekutiboan dauden eta premiamenduzko probidentzia jakinarazita duten zor guztiak haren barruan ez jasotzea eskaera egiteko unean, baldin eta haietarako dagoeneko amaituta badago martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde

[20] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.5 artikuluan ezartzen duen ordainketa epea. Gerorapena edo zatikapena ez da ukatuko baldin eta, bidezko errekerimendua egin ondoren, hari erantzutzeko epean zorrak ordaindu edo haien metaketa eskatzen bada.

c) Gerorapena edo zatikapena eskatzeko arrazoiak.

d) Eskatzen diren epeak.

e) Geroratu edo zatikatu nahi den zorraren ordainketa edo ordainketak helbideratzeko aukeratzen den banku kontuaren zenbakia.

f) Zer berme eskaintzen den martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 79.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz, edo, hala badagokio, zer arrazoi dauden, 79. artikulu horren 2. apartatua aintzat hartuta, berme hori ez aurkezteko.

g) Eskatzailea konkurtso prozesu baten barruan baldin badago, adierazi behar da geroratu edo zatikatu nahi den zorra ez dela masaren kontrako kreditu bat.

h) Eskatzailearen sinadura.

3. Gerorapen edo zatikapen eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Geroratu edo zatikatu nahi den zerga zorra autolikidazio bidez kalkulatu bada, autolikidazio horren eredu ofiziala erantsi beharko da, behar bezala beteta. Alabaina, eredu hori ez da aurkeztu beharko dagoeneko zerga Administrazioaren eskuetan dagoenean, baina, horrelakoetan, noiz eta zer prozeduratan aurkeztu den adierazi beharko da.

b) Ordezkaritzaren kasuan, ordezkaritza frogatzen duten dokumentuak.

c)[21] Gerorapena edo zatikapena indarrean dagoen bitartean zorrak zordunaren alde aitortu litezkeen kredituekin konpentsatzeko eskaera. Nolanahi ere, konpentsazio eskaera hori aurkeztutzat joko da gerorapen edo zatikapen eskaera bermea aurkeztetik guztiz edo partez salbuetsita dagoenean, erregelamendu honen 44.1.A.b) artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe.

d) Diruzaintzako aurreikuspenei buruzko informazioa, gerorapena edo zatikapena eskatzen den denbora-tarterako.

e) Ordainketa epe barruan egitea behin-behinik eragozten dioten zailtasun ekonomiko-finantzarioen justifikazioa.

f) Kreditu entitateen edo elkarren bermerako sozietateen abal solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria formalizatzeko konpromiso berariazkoa eta ezeztaezina, salbu eta beste berme mota bat onartzea edo bermetik salbuestea eskatzen bada hurrengo 4. eta 5. apartatuetan xedatutako moduan.

g) Zordunak eskaera oinarritzeko egoki irizten dituen bestelako dokumentu edo frogagiriak.

---

[21] Apartatu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 6. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean.

4. Onartzeko eskatzen den bermea ez bada kreditu entitateen edo elkarren bermerako sozietateen abal solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria, ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaerarekin eta 3. apartatuko dokumentuekin batera, honako dokumentazioa aurkeztu beharko da apartatu horren f) letrako dokumentazioaren ordez:

a) Aipatutako abal konpromisoa edo kauzio asegurua ezin izan dela lortu dioen erantzukizunpeko adierazpena eta horren frogagiriak, hura lortzeko zer egin den behar bezala dokumentatu behar dutenak.

b) Berme gisa eskaintzen diren ondasunen balorazio eguneratua, enpresa edo profesional espezializatu eta independenteek egina, eta, beharrezkoa bada, kasuan kasuko elkargo profesionalak bisatu behar duena.

c) Kargen ziurtagiri eguneratua, kasuan kasuko Erregistroak emana, eta bermea inskribatua duten zorretan exijigarri diren zenbateko eguneratuen ziurtagiriak, hartzekodunek luzatuak.

d) Gerorapen edo zatikapen eskaera aurkeztu aurretik itxitako azken ekitaldiko balantzea eta emaitzen kontua. Egonez gero, itxi den azken ekitaldiaren auditoretza txostena ere aurkeztuko da.

5. Bermea aurkezteko beharretik partez nahiz osorik libratzeko eskatzen denean Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 79.2 artikuluko b) ezarritakoaren arabera, ordainketa geroratu edo zatikatzeko eskaera eta 3. eta 4. apartatuetako agiriak, kasuan kasu, aurkezteaz gainera, honako dokumentazioa aurkeztu behar da:

a) Erantzukizunpeko adierazpena eta justifikazio dokumentala, aditzera emateko ez duela ondasunik, edo bermetzat eskaintzen dituenak beste ondasunik ez duela.

b) Azken hiru urteetako balantzea eta emaitzen kontua, eta, halakorik badago, auditoretza txostena.

c) Bideragarritasun plana eta, egonez gero, egoki irizten den beste edozein informazio, arlo ekonomiko, finantzario edo patrimonialetik garratzitsua dena eskatutako gerorapena bete daitekeela justifikatzeko.

6. Eskaerak ez baditu betetzen eskatutako baldintzak edo harekin batera ez badira aurkezten beharrezkoak diren agiriak, gerorapena edo zatikapena tramitatzeko organo eskudunak hamar eguneko epea emango dio eskatzaileari, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik aurrera kontatuta, akatsa zuzendu edo eskatutako agiriak aurkez ditzan. Orobat, adieraziko dio hala egin ezean eskaeran atzera egindakotzat joko zaiola, eta eskaera besterik gabe artxibatuko da.

Aurreko paragrafoan adierazitakoaren salbuespen gisa, zorrak autolikidazio batetik eratorritakoak diren kasuetan, gerorapen edo zatikapen eskaerari ez bazaio eransten autolikidazio hori, ez da aukerarik emango akatsa zuzentzeko, eta eskaera ezetsi egingo da erregelamendu honetako 39. artikuluan jasotakoarekin bat.

Gerorapen edo zatikapen eskaera zorra ordaintzeko borondatezko epearen barruan aurkeztu bada, interesdunari egin beharreko errekerimenduan ohartaraziko zaio ezen apartatu honetako lehen paragrafoan adierazitako epea amaitu eta ordaintzeko epea igaro bada zorra ordaindu gabe edo aipatutako

paragrafoan jasotako agiriak aurkeztu gabe, zor hori premiamenduzko bidetik exijituko zaiola, bidezko errekarguak eta interesak aplikatuta.

Akatsak zuzentzeko errekerimenduari interesdunak epe barruan erantzun arren, ulertzen bada atzemandako akatsak zuzendu gabe daudela, gerorapen edo zatikapen eskaera ukatu egingo da. Dena den, interesdunak eskaeran atzera egiten duela ulertuko da baldin eta, aurreko 2. apartatuan aipatzen diren datuak eskaeran jasota ere, errekerimendua bidali bazaio eta emandako epean ez badio erantzuten bertan ezarritako eran. Eskaera, horrelakoetan, besterik gabe artxibatuko da.

Eskaera ukatu ahal izango da eskatzaileak aurkeztutako bermea zerga Administrazioak lehenago errefusatu duenean arlo juridiko edo ekonomikotik nahikoa ez izateagatik edo egokia ez gertatzeagatik.

7. Zor batek zergapeko solidario bat baino gehiago dituenean, gerorapena edo zatikapena haietako batek eskatu eta hura ematen bazaio, zirkunstantzia horrek bereziki ukitutako zergapekoarentzat baino ez ditu sortuko ondorioak.

8. (Ezabatua)[22]

## 39. artikulua. Eskaerak ez onartzea.[23]

1. Organo instruktoreak kasu hauetan ez ditu onartuko gerorapen eta zatikapen eskaerak:

a) Zorra autolikidazio bidez aitortu behar denean eta autolikidazio hori gerorapen edo zatikapen eskaera baino lehen edo harekin batera aurkeztu ez denean.

b) Autolikidazioa aurkeztu denean lehenagotik egiaztapen edo ikerketa prozedura bat hasita egonik, baldin eta prozedura hori etenda geratu bada erruduntasun testigantza jurisdikzio eskudunari pasatu zaiolako edo Fiskaltzari espedientea helarazi zaiolako Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 249. artikuluko kasuetako bat betetzeagatik. Ezinbesteko baldintza da, orobat, gerorapen edo zatikapen eskaera egiaztapen eta ikerketa prozedura horrekin lotuta dauden eta jurisdikzio eskudunari edo Fiskaltzari ezagutarazi zaizkion kontzeptu eta zergaldiei buruzkoa izatea.

Apartatu honen b) paragrafo honetan jasotako zirkunstantziak gerorapen edo zatikapen eskaera tramitatzen hasi eta gero gertatzen badira, eskaera baliorik gabe geratuko da zuzenean, eta Fiskaltzari edo organo jurisdikzionalari haren aurkezpenaren berri eman beharko zaie.

2. Aurkezten diren gerorapen edo zatikapen eskaerak lehenagotik ukatu diren beste batzuen errepikapena badira, eskaera horiek onartu gabe geratuko dira aurretik ukatutakoaren aldean aldaketa nabarmenik ez dakartenean eta, bereziki, errepikatze horren helburua zergabilketaren kudeaketa luzatzea, zailtzea edo eragoztea denean.

---

[22] Apartatu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bi apartatuak ezabatu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

[23] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamar apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

3. Eskaera ez onartzeak berekin ekarriko du gerorapen edo zatikapen eskaera ez aurkeztutzat jotzea ondorio guztietarako.

4. Eskaera ez onartzeko erabakiaren aurka errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztu ahal izango da.

## 40. artikulua. Bermeak.[24]

1. Gerorapena edo zatikapena eskatzen duen zergapekoak bermea aurkeztu behar du, eta berme hori izan daiteke kreditu entitate batek edo elkarren bermerako sozietate batek emandako abal solidarioa edo kauzio aseguruaren ziurtagiria.

Eskatzailea administrazio publiko bat denean, ez da exijituko bermerik.

2. Abal edo ziurtagiri hori lortzerik ez dagoenean edo haren aurkezpenak arrisku larrian jar dezakeenean jarduera ekonomikoaren bideragarritasuna, eskatzaileak berme hauetako bat eskaini beharko du, ondoren zehazten den hurrenkeran:

a) Ondasun higiezinen hipoteka.

b) Ondasun higigarrien hipoteka.

c) Bahia, lekualdaketarekin zein lekualdaketarik gabe.

d) Fidantza pertsonal eta solidarioa.

e) Askitzat jotzen den beste edozein.

3. Borondatezko epean dagoen zorraren zenbatekoa eta gerorapenak sortutako berandutze interesak estali behar ditu bermeak, gehi bi kopuruen baturatik ateratzen denaren ehuneko 25.

Zorra epe exekutiboan dagoenean, bermeak zenbateko hauek estali beharko ditu: geroratutako zenbatekoa, epe exekutiboko errekargua, eta gerorapenak sortzen diten berandutze interesak, gehi kopuru horien baturatik ateratzen denaren ehuneko 5.

4. Zatikapena eskatzen den kasuetan, zilegi izango da berme bakarra eratzea zatiki guztietarako, edo berme partzial eta independenteak eratzea zatiki baterako edo gehiagotarako.

Zorra borondatezko epean badago, bermeak zenbateko hauek estali beharko ditu: bermatzen dituen zatikien zenbatekoa, tronkoagatik eta berandutze interesengatik zatikiei gaineratzen zaien zenbatekoa barne, gehi bi kopuruen baturatik ateratzen denaren 100eko 25.

Zorra epe exekutiboan dagoenean, bermeak zenbateko hauek estali beharko ditu: bermatzen dituen zatikien zenbatekoa, epe exekutiboko errekargua barne, zatikapenak sortzen dituen beraduntze interesa, gehi kopuru horien baturatik ateratzen denaren ehuneko 5.

---

[24] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamaika apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

5. Gerorapena edo zatikapena tramitatzeko eskumena duen organoak baloratuko du bermeak ekonomikoki eta juridikoki aski diren ala ez.

Balorazio hori konplexutasun berezikoa denean, zilegi izango da Gipuzkoako Foru Aldundiko beste zerbitzu batzuei txostena eskatzea edo kanpoko zerbitzuak horretarako propio kontratatzea.

Abala edo kauzio aseguruaren ziurtagiria erabiliz eratzen den bermearen indarraldiak gutxienez sei hilabetetan gainditu behar du bermatutako epearen edo epeen mugaeguna.

Berme gisa eskainitako ondasunaren balorazioa, haren gaineko kargak kenduta, halakorik bada, ez bada nahikoa gertatzen gerorapena edo zatikapena erregelamendu honetan ezarritako eran bermatzeko, eskatzaileari errekerituko zaio hamar eguneko epean, errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik kontatzen hasita, berme osagarria aurkezteko edo hura ezin aurkeztea frogatzeko, eta, horretarako, erregelamendu honen 38. artikuluko 4. eta 5. apartatuetan adierazitako dokumentazioa aurkeztu beharko du.

Errekerimenduari ez bazaio kasurik egiten edo, kasu eginda ere, ulertzen bada bermea osatu gabe dagoela edo hura ezin aurkeztea ez dela justifikatu, eskaera ukatuko da berme nahikorik ez egoteagatikk, eta errekerimenduan horri buruz ohartaraziko zaio eskatzaileari.

6. Bermea bi hilabeteko epean formalizatu behar da, gerorapena emateko erabakia jakinarazi eta biharamunetik aurrera kontatuta, eta hura formalizatzea ezinbestekoa izango da gerorapena eraginkorra izan dadin. Epe hori beste bi hilabetez luzatu daiteke baldin eta, hura amaitu baino lehen, eskatzaileak modu sinesgarrian frogatzen badu bermea ezin duela hasierako epean formalizatu.

7. Bi hilabeteko epea, edo, kasua bada, luzapenarena bermea formalizatu gabe igarotzeak ondorio hauek izango ditu:

a) Eskaera borondatez ordaintzeko epearen barruan aurkeztu bada, bermea aurkezteko epea amaitu eta hurrengo egunean epe exekutiboa abiatuko da, premiamenduzko prozedurari hasiera emango zaio martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 171.1 artikuluan jasotako eran, eta zorraren tronkoa eta epe exekutiboko errekargua ordainaraziko dira.

Ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik bermeak formalizatzeko epea bukatu arte sortutako berandutze interesak likidatu egingo dira, aipatutako foru arauaren 26. artikuluan xedatutakoagatik gerora sor daitezkeenak eragotzi gabe.

b) Gerorapena epe exekutiboan eskatu bada, premiamenduzko prozedurarekin jarraituko da.

8. Bermearen onarpena eta kitapena agiri administratibo bidez formalizatu daiteke, eta hipoteken araudian jasota dauden kasuetarako, agiri hori erregistro publikoetako arduradunei helarazi behar zaie, haren edukia erregistroetan jasota utz dezaten.

9. Bermeak askatuko dira bermatutako zorra bere osoan ordaindu ondoren, errekarguak, gerorapen edo zatikapenaren berandutze interesak eta kostuak ere barne, halakorik bada. Bermeak partzialak eta independienteak badira,

independenteki askatu beharko dira haietako bakoitzak bermaturiko epeak ordaindu eta gero.

Zatikapenen kasuan, zor osoa abal bidez edo kauzio aseguruaren ziurtagiriaren bitartez bermatuta badago, eta epeak mugaegunak iritsi ahala ordaintzen badira, hasierako abal edo ziurtagiriaren ordez beste bat eratu daiteke mugaegunera iritsi gabeko zorra bermatzeko, aurreko artikuluetan jasotako baldintzetan.

10. Nolanahi dela ere, bermea eskaini, formalizatu, onartu, exekutatu eta deuseztatzeak dakartzan gastu guztiak ordaintzera behartutako pertsonaren kontura joango dira.

11. Sententzia edo ebazpen administratibo irmo batek bigabekotzat jotzen badu zerga zorra edo zehapena, haren ordainketa geroratu edo zatikatzeko emandako bermeen kostua Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorraren 33. artikuluan jasotakoaren arabera itzultzeko garaian, tramitazioa eta ebazpena gauzatuko dira inpugnatutako egintzen exekuzioa eteteko ematen diren bermeen kostuak itzultzeko ezarrita dagoenari jarraituz.

12. Errekurtso edo erreklamazio bat partez onesten bada eta onesteko ebazpena ezin bada exekutatu errekurtso eta erreklamazioen araudi erregulatzaileari jarraituz, ordaintzera behartutako pertsonak eskubidea izango du, hala eskatuz gero, zorra geroratu edo zatikatzeko emandako bermea proportzionalki murriztu dadin.

Ondorio horietarako, gerorapen eskaera bideratu duen organoak, interesdunak eskaera aurkeztu eta 15 eguneko epean, kuantifikatu behar du zenbateko zorra aterako zen errekurtso edo erreklamazioaren ebazpena exekutatu izan balitz. Kalkulu hori lagungarria izango da bai murriztapenaren zenbatekoa zehazteko bai, horren ondorioz, eratuta utzi behar den bermearen zenbatekoa ezagutzeko.

Dena den, aurreko bermeak geratzen den zorraren ordainketari lotuta jarraituko du, eta indarrean mantenduko da harik eta geratutako zorraren zenbatekoa estaltzen duen berme berria formalizatu arte.

Aipatutako organo instruktoreak bermea ordezteko eskumena ere izango du, artikulu honetan ezarritako baldintzen barruan.

## 41. artikulua. Badaezpadako neurriak hartzea, ordaintzera behartutako pertsonak eskatuta, gerorapen edo zatikapen berme gisa.[25]

Bermearen formalizazioak gehiegizko kostua badu zorraren zenbatekoaren eta epearen aldean, eta ordaintzera behartutako pertsonak zerga itzulketak edo bestelako ordainketak eskatuak baditu bere alde, edo erregistro publikoetan inskribatuta dauden eta prebentiboki enbarga daitezkeen ondasun edo eskubideen titular bada, beharrezko bermeen ordez kautelazko neurriak hartzeko eskatu diezaioke Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiari.

Gerorapen edo zatikapena ebazteko erabakian bertan, Zerga Administrazioak eskaera onartu edo ukatuko du, eta horretarako kontuan hartuko du, besteak

---

[25] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamabi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

beste, zein den zordunaren egoera ekonomiko-finantzarioa edo zer izaeratakoa den badaezpadako neurria aplikatuko liokeen ondasun edo eskubidea. Nolanahi ere, arrazoituta hartuko du erabakia.

Eskaera ukatuko du, ondasun edo eskubide horiek bahitu ditzakeenean bahitura arauei buruzko III. tituluko II. kapituluaren 2. sekzioko bigarren azpisekzioan jasotakoaren arabera.

Zergabilketako Zuzendariordetza Nagusiak izango du badaezpadako neurriak hartzeko eskumena.

Beharrezko bermeen ordez badaezpadako neurriak hartzeak sortutako kostuak, bestetik, ordaintzera behartutako pertsonaren kargura joango dira, eta III. tituluko II. kapituluaren 5. sekzioan jasotakoa aplikatuko zaie horiei.

Gerorapen edo zatikapena ez bada betetzen, sekzio honetan ordainketa ezari buruzko kasuetarako izaera orokorrez jasotakoa aplikatu behar da. Bermea premiamenduzko prozedura administratiboaz exekutatu aurretik, badaezpadako neurria behin betikotzat hartu behar du, hala badagokio, zergabilketa organoak.

Gerorapen edo zatikapen eskaera borondatezko epean aurkezten bada eta eskaera horretan betetzen badira martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Araua Orokorrak, 78.1 artikuluan aurreikusten dituen zirkunstantziak, kautelazko neurriak hartuko ahal izango dira, artikulu horretan arautuakoak zehazki, zorra kobratzea ziurtatzeko, nahiz eta horrek ez duen eragotziko egindako eskaerari buruz ebazpena ematea hura tramitatzen den bitartean.

### 42. artikulua. Bermeak aurkeztetik salbuestea.[26]

1. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 79.2 artikuluaren a) letran xedatutakoarekin bat etorriz, zilegi izango da zergapekoa erabat edo partez salbuestea bermeak eratzeko obligaziotik, honako kasuotan:

a) Zatikatzeko eskatzen diren zorrak gehienez 3.000 eurokoak direnean.

b) Eskatzen diren zatikapenek hilabeteko epemuga dutenean, baldin eta zorren zenbateko osoa 12.000 eurotik gorakoa ez bada eta zatikapenak urtebeteko epea gainditzen ez badu.

c)[27] Eskatzen diren zatikapenek hilabeteko epemuga duten kasuetan, zorren zenbateko osoa 300.000 eurotik gorakoa ez denean, zatikapenak bi urteko epea gainditzen ez duenean, eta zatikapena eman aurretik eskatzaileak zatikatu beharreko zorraren gutxienez ehuneko 20 ordaintzen duenean.

---

[26] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamahiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

[27] Letra hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

d)[28] Eskatzen diren zatikapenek hilabeteko epemuga duten kasuetan, zorren zenbateko osoa 300.000 eurotik gorakoa denean, zatikapenak bi urteko epea gainditzen ez duenean, eta zatikapena eman aurretik eskatzaileak, zatikatu beharreko zorra 300.000 euro baino handiagoa izan ez dadin, gutxienez 60.000 euroko diru-sarrera egiten duenean.

2. Aurreko apartatuan adierazitako zenbatekoak zordun bakoitzarengatik aplikatuko dira, haren zor guztiak kontuan hartuta.

3. Aurreko 1. puntuko c) eta d) letretan aipatu diren gutxieneko sarrerak kalkulatzeko ez beste ezertarako, ulertuko da zatikatzeko eskatzen den zorra honako hau dela:

— Ordaintzeko epe exekutiboan dauden zorren kasuan, borondatezko epean zor zen eta ordaindu ez den zenbatekoa, gehi premiamenduzko errekargu arruntari dagokiona.

— Gainerako zorren kasuan, borondatezko epean zor zen eta ordaindu ez den zenbatekoa.

4. Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak foru agindu bidez ezarriko du nola eta zein epetan egingo diren gutxieneko sarrera horiek.

5. Gerorapena eskatu aurretik zorren ordainketa erabat edo partez bermaturik badago edozein motatako bermea dela medio, gerorapena besterik gabe eskatzea ez da arrazoi izango bermea itzultzeko, eta hari eutsiko zaio gerorapen prozedurara berariaz zuzendutako berme berri bat aurkeztu arte. Alabaina, zorduna bermea aurkezteko obligaziotik salbuetsita badago artikulu honetan jasotakoari jarraituz, hori ez da hala izango, eta bermea itzuli egingo zaio gerorapena onartu eta gero.

6. Bermea aurkeztetik erabat edo partez salbuetsita dauden gerorapen edo zatikapenak, hain zuzen ere martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 79.2 artikuluaren b) letran aipatutakoak, indarrean dauden bitartean, Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusian gerorapena edo zatikapena instruitzeko eskumena duen organoak zordunaria eskatu diezaioke informazioa eman dezala bere egoera ekonomiko, finantzario eta patrimonialari buruz.

Orobat, bermea aurkeztetik salbuetsitako gerorapen edo zatikapenak irauten duen denboran, onuraduna behartuta dago bere egoera ekonomiko edo patrimonialak izan ditzakeen aldaketen berri ematera gerorapen edo zatikapen espedientea tramitatzen duen organoari, zorra bermatzea ahalbidetzeko. Horrelakoetan, berme nahikoa eratu beharko da.

Bereziki, gerorapenaren edo zatikapenaren indarraldian zehar, mozkinak banatzen edo kapital itzulketak egiten badira, bermea eratu beharko da geratzen diren zorrak ordaintzeko.

Apartatu honetan ezarritako obligazioak aintzat hartu ezean, gerorapena edo zatikapena betegabetzat joko da.

---

[28] Letra hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

## 43. artikulua. Tramitatzea.

1.[29] Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusian gerorapena edo zatikapena instruitzeko eskumena duen organoak likidezia falta eta baliabideak sortzeko ahalmena aztertu eta ebaluatuko ditu martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 64.1 artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, eta bermetik erabat edo partez salbuesteko eskatzen bada, egiaztatuko du hura lortzeko behar diren baldintzak betetzen diren edo ez.

Gerorapen edo zatikapen eskaeraren espedientea ebazte aldera, organo instruktoreak egoki irizten duen informazio eta dokumentazioa errekeritu diezaioke eskatzaileari, eta, bereziki, berme gisa eskainitako ondasunen titulartasunari, deskripzioari, egoerari, kargei eta erabilerari dagokiona.

Aurreko tramiteak egin ondoren, Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusiko organo instruktoreak ebazpen proposamena egingo du, eta organo eskudunari helaraziko dio ebazpena eman dezan.

2. Prozedura ebazteko gehieneko epearen barruan, behin-behineko egutegi arrazoitu bat ezarri daiteke ordainketak egiteko, harik eta gerorapen eskaera ebazten den arte.

3. Tramitazio aldian eskatzaileak zorra ordaintzen badu, bere eskaeran atzera egiten duela ulertuko da, eta berandutza interesak likidatuko zaizkio.

## 44. artikulua. Ebazpena.[30]

1. Edukia.

A. Ordainketa geroratu edo zatikatzea onartzen duen ebazpenak datu hauek zehaztu behar ditu:

a) Epeak, zenbatekoak eta gerorapenaren edo zatikapenaren gainerako baldintzak. Eskatutakoez besteko epe eta baldintzak adierazi daitezke ebazpenean.

Nolanahi ere, epeen mugaegunak kasuan kasuko hilaren 10a edo 25a izan beharko du. Gerorapen edo zatikapen batek zor bat baino gehiago hartzen dituenean, bakoitzaren epeak eta zenbatekoak bereizita adierazi behar dira.

b)[31] Ebazpenean egoki irizten diren baldintzak ezarri ahal izango dira ordainketa eperik laburrenean egingo dela ziurtatzeko, geroratu edo zatikatutako zorraren

---

[29] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamalau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

[30] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamabost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

[31] Apartatu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 6. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean.

lehentasuna bermatzeko, eta eskatzaileak zerga obligazioak behar bezala betetzeko.

Zehazki, eta erregelamendu honen 38.3 artikuluko c) letran aurreikusitako eskaera eragotzi gabe, baldintzak ezarri daitezke Gipuzkoako Foru Aldundiak ebazpenaren indarraldian zehar zergapekoari egin behar dizkion ordainketak gerorapena edo zatikapena betetzeak baldintza ditzan, zenbatekoak jarduera ekonomikoaren jarraipena eta bideragarritasun ekonomikoa arriskuan jarri gabe. Horretarako, eta ebazpenak besterik xedatzen ez badu, gerorapenak edo zatikapenak bermea aurkeztetik erabat edo partez salbuetsita ematen direnean, ulertuko da artikulu horretan aipatutako konpentsazio eskaera egin dela ondorioak izan ditzan kredituak edo zorrak agertu bezain pronto, baita horrek epemugak aurreratzea dakarrenean ere, bidezkoak diren berandutze interesak berriro kalkulatzea eragotzi gabe.

c) Ebazpenaren indarraldian zehar eskatzaileak bere zerga obligazioak egunean izatea baldintza izan daiteke gerorapena emateko.

d) Ebazpenak berandutze interesen kalkulua ekarri behar du.

e) Adierazi behar du zer ondorio izango dituen bermea epe barruan ez eratzeak, epeak ez ordaintzeak edo ezartzen diren gainerako baldintzak ez betetzeak.

B. Gerorapena edo zatikapena ukatzen duen ebazpenak:

a)[32] Eskatzaileari ohartarazi behar dio ezen, gerorapen edo zatikapen eskaera borondatezko epean aurkeztu bada, 10 eguneko epea duela zorra ordaintzeko, jakinarazpena jaso eta biharamunetik kontatzen hasita, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 165.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe. Epea igaro eta zorra ordaindu gabe badago, epe exekutiboa hasiko da.

b) Gerorapena edo zatikapena epe exekutiboan aurkeztu bada, eskatzaileari ohartarazi behar zaio premiamenduzko prozedura abiatuko dela, lehenago abiatu ez bada.

2. Ukatzeko arrazoiak:

Besteak beste, hauek izan daitezke gerorapena edo zatikapena ukatzeko arrazoiak:

- Gerorapen edo zatikapenari aurre egiteko baliabideak sortzeko ahalmena behar bezala ez frogatzea.

- Lehenago emandako beste gerorapen edo zatikapen batzuk ez betetzea.

3. Jakinarazpena.[33]

---

[32] Letra hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

[33] Apartatu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

Ebazpena legez ezarritako epean, moduan eta baldintzetan jakinarazi behar zaio ordaintzera behartuari.

Behin ebazteko gehieneko epea amaituta ebazpena jakinarazi gabe, ulertu ahal izango da geroratzeko eskaera ezetsita dagoela dena delako errekurtsoa jartzeari begira.

4. Baldintzen aldaketa.

Gerorapena edo zatikapena eman eta gero, zordunak haren baldintzak aldatzea eskatzen badu, eskaera gerorapena edo zatikapena eman duen organoak ebatzi behar du. Eskaera horrek ez du inola ere etete ondoriorik izango. Horrelako eskaerak tramitatu eta ebazteko, izaera orokorreko gerorapen eta zatikapen eskaeretarako ezarrita dauden arau berberak aplikatuko dira.

5. Beste betebehar batzuk.

Ematen diren gerorapen edo zatikapenak erregelamendu honen 38. artikuluko 4. eta 5. apartatetan jasotakoak badira, eta haien ebazpenaren indarraldian zehar kapital zabalkuntza bat gertatzen bada, Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusian gerorapena edo zatikapena instruitzeko eskumena duen organoari hartutako erabakien berri eman beharko zaio.

Aipatutako organoak auditoretza prozedurak edo egoki irizten dituen bestelakoak erabili ahal izango ditu ezarritako baldintzak eta obligazioak betetzen direla kontrolatzeko. Orobat, berari dagokio deklaratzea beharrezko zirkunstantziak gertatzen direla gerorapena edo zatikapena betegabetzat jotzeko. Zehazki, gerorapen edo zatikapenen epea bi urtetik gorakoa bada, haien indarraldian zehar, aipatutako organoak informazioa eskatu diezaioke zordunari haren egoera ekonomiko-finantzarioari buruz eta diruzaintzako plan eta aurreikuspenei buruz.

Eskatutako informazioa ez aurkezteak berekin ekarriko du gerorapena edo zatikapena betegabea deklaratzea.

## 45. artikulua. Interesen kalkulua.[34]

1. Gerorapena ematen bada, zor geroratuaren gainean berandutze interesak kalkulatu behar dira borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik hasi eta emandako epea bukatu arteko denboragatik.

Gerorapena epe exekutiboan eskatu bada, epe exekutiboko errekargua ez da sartuko interesak kalkulatzeko oinarrian. Sortutako interesak zor geroratuarekin batera ordaindu behar dira.

2. Zatikapena ematen bada, berandutze interesak zorraren zatiki bakoitzagatik kalkulatuko dira.

Borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik emandako epea bukatu arte sortutako interesak konputatuko dira zorraren zatiki bakoitzeko. Zatiki bakoitzagatik sortzen diren interesak zatiki horrekin batera ordaindu beharko dira dagokion epean.

[34] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamasei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

Zatikapena epe exekutiboan eskatu bada, epe exekutiboko errekargua ez da sartuko interesak kalkulatzeko oinarrian.

3. Gerorapena edo zatikapena ukatzen bada, berandutze interesak honela likidatuko dira:

a) Borondatezko epean eskatu bada, borondatezko epea bukatu ondorengo egunetik ezezko ebazpena eman arte igarotako denboragatik.

b) Epe exekutiboan eskatu bada, ordainketa egin eta gero likidatuko dira interesak.

4. Gerorapenean edo zatikapenean atzera egiten bada, berandutze interesak honela likidatuko dira:

a) Eskaera borondatezko epean aurkeztu bada:

- ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik atzera egin dela ulertu arte igarotako denboragatik, erregelamendu honen 38. artikuluko 6. apartatuan aurreikusitako kasuetan.

- ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik eskaeran atzera egin dela berariaz jakinarazi arte igarotako denboragatik.

- ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik ordainketa egin arte igarotako denboragatik, erregelamendu honen 47. artikuluan aurreikusitako kasuan.

b) Epe exekutiboan eskatu bada, interesak ordainketa egin ondoren likidatuko dira, ordainketaren egunera arte.

5. Gerorapenaren erabakian jasotako termino edo baldintzaren bat ez bada betetzen, berandutza interesak honela likidatuko dira:

a) Eskaera borondatezko epean aurkeztu bada, geroratutako zorrak borondatez ordaintzeko epea amaitu ondorengo egunetik gerorapena betegabea deklaratu arte, edo, erregelamendu honen 46. artikuluko kasuetan, hura betegabetzat hartu arte igarotako denboragatik.

b) Eskaera epe exekutiboan aurkeztu bada, zorra kobratu ondoren likidatuko dira interesak.

6. Zatikapenararen erabakian jasotako termino edo baldintzaren bat ez bada betetzen, berandutza interesak honela likidatuko dira:

a) Eskaera borondatezko epean aurkeztu bada, ordaindu gabeko zor zatikatuari dagokionez, interesak likidatuko dira borondatez ordaintzeko epea amaitu ondorengo egunetik zatikapena betegabea deklaratu arte, edo erregelamendu honen 46. artikuluko kasuetan, hura betegabetzat hartu arte igarotako denboragatik.

b) Eskaera epe exekutiboan aurkeztu bada, zorra kobratu ondoren.

**46. artikulua. Nola jokatu zorra ordaintzen ez denean eta hartzekodunen konkurtsoa dagoenean.[35]**

1. Gerorapenetan, zorra ez bada osorik ordaintzen horretarako emandako epean, honela jokatuko da:

a) Gerorapena borondatezko epean aurkeztu bada, hurrengo egunean epe exekutiboa hasiko da, eta ordaindu ez den zorragatik premiamenduzko probidentzia emango da, beste ezein tramiterik gabe.

b) Gerorapena epe exekutiboan eskatu bada, premiamenduzko prozedura abiatuko da berehala, lehendik ez badago abiatuta, eta hasita baldin badago, orduan harekin jarraituko da besterik gabe; zilegi den kasuetan, emanda dagoen bermea exekutatu daiteke aurrenik.

2. Zatikapenak borondatezko epean eskatu badira eta epemugara behin iritsita bi epe ordaindu gabe badaude, ordaintzeko dauden zatiki guztiak epez kanpokotzat joko dira, eta horrek berekin ekarriko du epe exekutiboa hastea eta premiamenduzko probidentzia besterik gabe ematea ordaindu ez den zorragatik.

Zatikapenak epe exekutiboan eskatu diren kasuetan, epemugara behin iritsita bi epe ordaindu gabe geratu badira, premiamenduzko prozedura abiatuko da berehala, lehendik ez badago abiatuta, eta hasita baldin badago, orduan harekin jarraituko da besterik gabe, ordaindu gabeko zor guztiarengatik; zilegi den kasuetan, emanda dagoen bermea exekutatu daiteke aurrenik.

Zatikapena ondoriorik gabe uzteko ez da beharrezkoa izango aurreko bi paragrafoetan aipatutako bi epeak ez betetzea. Izan ere, zatikapena ondoriorik gabe gera daiteke, baita ere, baldin eta, epe horietako bat urraturik, Zerga-bilketako Zuzendariordetza Nagusian espedientea instruitzeko eskumena duen organoak errekerimendua egin badu eta 10 eguneko epean betetzen ez bada.

Bermeak exekutatzeko garaian, aplikagarria izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 172. artikuluan jasotakoa eta, dagokion kasuan, erregelamendu honen 75. artikuluan araututako prozedura. Lortzen den zenbateko likidoa geratzen den zorra ordaintzeko erabiliko da, kostuak, berandutze interesak eta errekarguak barne.

3. Ordaintzera behartutakoaren konkurtso prozedura judiziala hasteak berekin ekarriko du emanda dauden gerorapen edo zatikapenak eraginkortasunik gabe geratzea eta dauden zor guztiak berehala ordainaraztea.

Horrela, gerorapen edo zatikapen eskaera bat, masa pasiboaren parte den zor bati buruzkoa, zordunaren konkurtso prozedura judiziala hasi eta gero aurkezten bada, eskaera ez da onartuko. Prozedura hori hasi aurretik aurkeztutako eskaeren kasuan, ulertuko da haietan atzera egin dela prozedura judiziala hasi den egunean.

4. Artikulu honetan aipatzen diren bermeak exetutatzeko, aplikagarria izango da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 172. artikuluan jasotakoa eta, dagokion kasuan, erregelamendu honen

[35] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamazazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

75. artikuluan arautako prozedura. Lortzen den zenbateko likidoa geratzen den zorra ordaintzeko erabiliko da, kostuak, berandutze interesak eta errekarguak barne.

### 47. artikulua. Ordainketa aurreratuak.[36]

1. Behin gerorapena eskatuta, ordaintzera behartutakoak osorik edo zati batean aurrera dezake zorraren ordainketa. Hala egiten badu, ordainketa egin izana jakinarazi behar dio gerorapen espedientea bideratzen duen organoari.

2.[37] Aurreko apartatuan jasotako kasuetan, ordainketa horiek ez badute estaltzen zor geroratu edo zatikatu osoa, berekin ekarriko dute epeen mugaeguna aurreratzea eta bidezkoak diren berandutze interesak berriro kalkulatzea. Dena den, zergadunak beti eskatu ahal izango du kuoten zenbatekoa murriztea eta berandutze interesak berriro kalkulatzea, salbu eta erregelamendu honen 42. artikuluko 1. apartatuan aipatzen diren zatikapenak direnean.

Alde horretatik, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak gutxieneko kopuru bat finkatu ahal izango du, foru agindu bidez, ordainketa aurreratuetarako.

## *3. sekzioa. Konpentsatzea*

### 48. artikulua. Konpentsatu daitezkeen zorrak.

Foru Ogasunaren aldeko izaera publikoko zorrak, borondatezko epekoak izan edo epe exekutibokoak izan, osorik edo zati batean iraungi daitezke hark egintza administratiboa dela medio zordunaren alde onartutako kredituekin konpentsatuta.

### 49. artikulua. Ordaintzera behartutakoak eskatutako konpentsazioa.

1. Ordaintzera behartutako pertsonak konpentsazioa eskatzen duenean, eskaera egin beharko dio Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiari, eta bertan datu hauek jaso:

a) Zergapekoaren eta, hala badagokio, ordezkariaren izen-deiturak edo sozietatearen izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta zerga helbidea.

b) Konpentsatzea nahi den zorraren identifikazioa. Horren zenbatekoa eta kontzeptua adierazi behar dira gutxienez, bai eta borondatezko aldian ordaintzeko epemuga ere.

c) Eskatzailearen aldeko kredituaren identifikazioa, konpentsatzeko eskaini denarena. Horren zenbatekoa, kontzeptua eta organo kudeatzailea adierazi behar dira gutxienez.

---

[36] Artikulu hau irailaren 28ko 25/2010 Foru Dekretuaren artikulu bakarrak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Zergabilketa Erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 Foru Dekretua aldatzen du. Aldaketa foru dekretua Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ondorengo egunean jartzen da indarrean (2010/10/11ko GAO). Foru Dekretuaren xedapen iragankorraz arabera, indarrean sartzean, ebazteko dauden gerorapen edo zatikapen espediente guztiei aplikatuko zaie bertan xedatutakoa.

[37] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hamazortzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

d) Lekua, data eta eskatzailearen sinadura.

2. Konpentsazio eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

a) Autolikidazio eredu ofiziala, behar bezala beteta, konpentsatzea nahi den zerga zorra autolikidazio bidez zehaztu bada. Dena den, interesatuak ez badu zertan autolikidazioa aurkeztu, jadanik Zerga Administrazioaren esku egoteagatik, aurkezpen eguna eta prozedura adierazi beharko ditu.

b) Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko kontabilitate bulegoaren, edo gastu edo ordainketarako zentro edo organismo kudeatzailearen ziurtagiria eskatu izanaren frogagiria. Hor jasota utzi behar da ordaindu gabeko kreditu onartua egon badagoela eta, interesatuak eskatuta, kreditua abonatzeko tramiteak eten direla harik eta konpentsazio prozeduraren ebazpena jakinarazi arte.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak bidezko xedapenak eman ditzake aipatu ziurtagiri administratiboak arautzeko.

Konpentsazio gisa eskainitako kreditua zerga itzulketa batetik badator, aurreko ziurtagiriaren ordez hura onartzen duen egintza, ebazpena edo sententzia aurkeztu beharko da.

3. Eskaerak ez baditu baldintzak betetzen edo harekin batera ez badira artikulu honetan aipatutako agiriak aurkezten, Zergabilketako eta Zerga Bulegoetako Zuzendariordetza Nagusiak hamar eguneko epea emango dio eskatzaileari akatsa zuzendu edo derrigorrezko agiriak aurkez ditzan, eta adieraziko dio hala egin ezean haren eskaera ez aurkeztutzat hartuko dela eta besterik gabe artxibatuko dela.

Konpentsatzeko eskaera borondatezko epean aurkeztu bada eta akatsak zuzentzeko errekerimenduari erantzuteko denbora borondatez ordaintzeko epearen ondoren amaitu eta akatsak zuzendu ez badira, premiamenduzko prozedura hasiko da premiamenduzko probidentzia jakinarazita.

Interesatuak akatsak zuzentzeko errekerimenduari epe barruan erantzun arren akatsak zuzendutzat ez direnean hartzen, konpentsazio eskaera ukatu egingo da.

Errekerimendu hori ez da egingo, behin eskaera aztertu eta horretan jasotako datuak Administrazioak bere esku dituenekin alderatu ondoren, frogatuta geratzen denean interesatuak eskainitako kreditua ez dagoela edo, bestela, kreditu hori zerga zorra izanik eskaerarik ez dagoela egiaztatzen denean. Horrela gertatzen denean, konpentsazio eskaera ez aurkeztutzat hartuko da, eta besterik gabe artxibatu egingo da.

4. Eskaera epe exekutiboan aurkezten denean, ondasun bahituak besterentzeko jarduketak eten daitezke.

5.[38] Zerga-bilketako zuzendariorde nagusiak zilegi izango du konpentsazioa deklaratzea, araudi tributario eta zibilean edo berariaz aplikatzekoa den legerian oro har ezarrita dauden beharkizunak betetzen direnean.

Ebazpena ezezkoa bada, ondorioak honako hauek izango dira:

---

[38] Apartatu hau abenduaren 2ko 22/2025 Foru Dekretuaren 6. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean..

a) Eskaera borondatez ordaintzeko epean aurkeztu bada, ezezko ebazpenaren jakinarazpenak berekin ekarriko du 10 eguneko epea hastea, jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatuta, diru-sarrera egin dadin, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 165.2 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe.

Zorra ez bada epe horretan ordaintzen, hasiera emango zaio epe exekutiboari, eta premiamenduzko prozedura abiatuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluetan jasotako terminoetan.

Era berean, berandutze interesak likidatuko dira ordaintzeko borondatezko epea amaitu ondorengo egunetik ezezko ebazpena ematen den egunera arte, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 26. artikuluan xedatutakoaren arabera gerora sor daitezkeen bestelako interesak eragotzi gabe.

b) Eskaera epe exekutiboan aurkeztu bada, premiamenduzko prozedura hasi beharko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak (martxoaren 8ko 2/2005 Foru Araua) 171.1 artikuluan aurreikusitako terminoetan, lehenagotik hasi ez bada betiere.

6. Konpentsazioa eskatzea ez da oztopo izango gainerako zorra geroratu edo zatikatzeko eskatzeko.

7. Ebazpena sei hilabeteko epean jakinarazi beharko da, tramitazioaz arduratzen den Administrazio eskudunaren erregistroetako batean eskaerari sarrera ematen zaion egunetik aurrera.

Epe hori amaitu bada ebazpena jakinarazi gabe, interesatuek eskaera ezetsitzat har dezakete errekurtsoa jarri edo ebazpen espresua itxoiteko.

### 50. artikulua. Entitate publikoen zorrak ofizioz konpentsatzea.

1. Ofizioz konpentsatu daitezke, behin borondatez ordaintzeko epea amaituta, lurralde ente batek, organismo autonomo batek, Gizarte Segurantzak edo zuzenbide publikoko entitate batek Foru Ogasunaren alde ordaindu behar dituen zor epez amaituak, likidoak eta exijigarriak.

2. Aipatu entitateen alde onartutako zerga kredituekin konpentsatuko dira zorrak, bai eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren edo foru organismo autonomoen gastu aurrekontuaren exekuzioagatik edo aurrekontu sarreren itzulketagatik haien alde onartutako gainerako kredituekin ere.

### 51. artikulua. Foru Ogasunaren beste hartzekodun batzuen zorrak ofizioz konpentsatzea.[39]

1. Herri Ogasunaren zordun bat, aurreko artikuluan sartu gabea, aldi berean haren hartzekodun bada aitortutako kreditu batengatik, borondatezko epea behin igaro ondoren, bai zorra eta bai epe exekutiboko errekarguak kreditu horrekin konpentsatuko dira ofizioz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko

---

[39] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hemeretzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 72.4 artikuluan xedatutakoa aplikagarri denean izan ezik.

2. Dena den, ofizioz konpentsatuko dira borondatez ordaintzeko epean honako hauek:

a) Kudeaketa prozeduren ondorioz ordaindu eta itzuli beharreko kopuruak. Diferentzia ordaindu edo itzuli egin beharko da.

b) Aurreko likidazio bat baliogabetu ondoren beste bat egiteagatik ordaindu eta itzuli beharreko kopuruak. Horrelakoetan, likidazio berriaren jakinarazpenean behar den kopurua konpentsatuko da, eta ordaintzera behartutakoari diferentziaren zenbatekoa jakinarazi behar zaio martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.2 artikuluan ezarritako epean diru-sarrera egin dezan. Kasu horretan, zilegi izango da sortutako berandutze interesak likidatzea aipatutako foru arauaren 26.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta interes horiek erabaki berean konpentsatuko dira.

c) Zerga betebehar lotuengatik ordaindu eta itzuli beharreko kopuruak, baldin eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 231.3 eta 244.7 artikuluetan aipatzen dituen errekurtso edo erreklamazio ekonomiko-administratiboen ebazpenak exekutatzearen ondorio badira. Diferentzia ordaindu edo itzuli egin beharko da. Kasu horietan, zilegi izango da sortutako berandutze interesak likidatzea aipatutako foru arauaren 26.5 artikuluan xedatutakoaren arabera, eta interes horiek erabaki berean konpentsatuko dira.

3. Zerga Ikuskaritzak egiaztapen eta ikerketa jarduketa beraren emaitzak dokumentatzeko egiten dituen aktetatik zeinu diferenteko likidazioak ondorioztatzen badira subjektu pasibo edo atxikitzaile berberari dagokionez, likidatzeko eskumena duen Ikuskaritzako organoak ofizioz erabakiko du zorrak eta kredituak konpentsatzea emaitzen zenbatekoraino.

Erabakitako konpentsazioak ez du galaraziko gerorapena edo zatikapena onartzea gainerako zerga zorrerako, halakorik bada.

## 52. artikulua. Konpentsazioaren ondorioak.

1. Behin konpentsazioa erabakita, zorrak eta kredituak iraungitzat hartuko dira zorraren zenbatekoarekin bat datorren kopuruan. Erabaki hori interesatuari jakinaraziko zaio, eta zorra iraungi izanaren frogagiri gisa balio izango du.

2. Kreditua zorra baino txikiagoa bada, honelaxe jokatu behar da:

a) Kreditua gainditzen duen zor zatiarekin araubide arruntaren arabera jokatuko da. Premiamenduzko prozedura hasiko da, behin mugaeguna iritsita ez bada ordaindu; edo, bestela, prozedura harekin jarraitu behar da lehenagotik hasita badago.

b) Zorraren zenbatekoarekin bat datorren zatiari dagokionez, 1 apartatuan jasotakoaren arabera jokatu behar da.

3. Kreditua handiagoa bada zorra baino, behin konpentsazioa deklaratuta, diferentzia ordainduko zaio interesatuari.

## *4. sekzioa. Kontu korronte fiskala*[40]

**53. artikulua. Kontzeptua.** *(edukirik gabe)*

**54. artikulua. Aplikazioaren eremu subjektiboa.** *(edukirik gabe)*.

**55. artikulua. Baimentzea.** *(edukirik gabe)*

**56. artikulua. Kontu korronte fiskalean jaso daitezkeen zor eta kredituak.** *(edukirik gabe)*

**57. artikulua. Kontuaren likidazioak.** *(edukirik gabe)*

**58. artikulua. Berandutza interesa.** *(edukirik gabe)*

**59. artikulua. Saldo eta interesak zehaztea.** *(edukirik gabe)*

**60. artikulua. Kontu korronte fiskala iraungitzea.** *(edukirik gabe)*

## *5. sekzioa. Behin-behineko baja kaudimengabeziagatik*

**61. artikulua. Zordun huts eginaren eta kreditu kobraezinaren kontzeptua.**

1. Ordaintzera behartutakoei ez bazaie ezagutzen zor osoa kobratzeko bahitu edo gauzatu daitekeen ondasun edo eskubide nahikorik, huts egindako zorduntzat hartuko dira. Bereziki, bahitu edo gauzatu daitekeen ondasun edo eskubiderik ez dagoela ulertu behar da ordaintzera behartutakoak dauzkan ondasun edo eskubideak Gipuzkoako Foru Aldundiari esleitu ez zaizkionean erregelamendu honek III. tituluko II. kapituluaren 4. sekzioan jasotakoaren arabera. Era berean, kaudimengabezia partzialarengatik huts egindako zorduntzat hartuko da bakarrik zorraren zati bat kitatzeko balio duen eta bahitu edo gauzatu daitekeen ondare ezaguna duen zorduna.

Huts egintzat jotzean kaudimengabezia osoa edo partziala har daiteke kontuan.

Kreditu kobraezintzat hartuko dira ordaintzera behartutakoak huts eginak izateagatik premiamenduzko prozeduran kobratu ezin izan diren kredituak.

Kobraezin kalifikatzailea kredituei jarriko zaie eta huts egin kalifikatzailea, aldiz, ordaintzera behartutako pertsonei.

2. Behin zordun nagusiak eta erantzukizun solidarioak huts egintzat hartuta, erantzule subsidiarioei kobratzeko ahalegina egingo da.

Erantzule subsidiariorik ez badago edo horiek huts eginak badira, kreditua kobraezintzat hartuko da.

3. Aurrekontuen araudiak jasotakoa eragotzi gabe, eta bitarteko erabilgarriez baliatzeko eraginkortasun irizpideei jarraituta, Ogasuneko zuzendari nagusiak

---

[40] Sekzio hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogei apartatuak edukirik gabe utzi du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

kreditua kobraezintzat jo izana justifikatzeko egin beharreko jarduketa zehatzak erabakiko ditu.

### 62. artikulua. Kaudimengabezia dela eta emandako behin-behineko bajaren ondorioak.

1. Kreditua osorik edo zati batean kobraezintzat hartzeak berarekin ekarriko du kontuetan kredituari baja ematea adierazpen horrek aipatutako neurrian.

2. Kobraezintzat jotzeak ez du eragozten Gipuzkoako Foru Aldundiak behar den pertsonaren aurka foru arauei eta legeei jarraituta bideratu daitezkeen ekintzak zuzentzea, harik eta Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainketa exijitzeko duen eskubidea preskribitu arte.

3. Merkataritza Erregistroan inskribatutako pertsona edo entitateak huts egintzat hartu izana hartan jasota utzi behar da, zergabilketa organoak emandako aginduaren arabera. Idaztoharra egin ondoren, Erregistroak aipatu organoari jakinarazi beharko dio pertsona edo entitate haiei buruz inskribatu edo idatzi nahi den edozein egintza.

4. Behin ordaintzera behartutakoa huts egintzat jo ondoren, baja eman dakieke deklarazioaren ondoren mugaeguna iristen zaien zorrei, deklarazioaren erreferentziaren bidez, ordaintzera behartutako beste inor ez badago.

### 63. artikulua. Zordun huts eginak berrikustea eta kreditu kobraezinak birgaitzea.

1. Zergabilketa organoak arretaz begiratuko du huts egintzat hartutako ordaintzera behartutakoek geroago izan dezaketen kaudimena.

2. Geroago zirkunstantzia hori gertatzen bada, eta preskripzio epea ez badago amaituta, kobraezintzat hartutako kredituak birgaituko dira, eta zergabilketa prozedura berriz hasiko da kreditu kobraezina edo erreferentzia bidezko baja deklaratzean kredituek zuten egoera beretik abiatuta.

## II. Kapitulua.

## Zorraren bermeak

### 64. artikulua. Lehentasun eskubidea.

1. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 75. artikuluan jasotakoaren arabera, Jabetzaren Erregistroan eta Ondasun Higikorren Erregistroan Foru Ogasunak bahitutako ondasun berberen gainean lehenagotik egin dituen bahitura idaztoharrak eginda daudenean, Ogasuneko zuzendari nagusiari horren berri eman dakioke, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan lege aholkularitza ematen duen organoak txostena egin ondoren, bidezkoa bada Foru Ogasunaren eskubide hobea babesteko egoki diren ekintzak bideratu daitezen.

2. Aipatu erregistroetan Foru Ogasunaren aldeko bahitura idaztoharra egin aurretik inskribatu edo jasota utzi diren eskubideak agertzen direnean eta inskripzio edo idaztohar horiek Foru Ogasunaren eskubideen kalterako egindako jarduketen ondorio izan daitezkeelako zantzuak daudenean, Ogasuneko zuzendari nagusiari horien berri eman dakioke, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan

lege aholkularitza ematen duen organoak txostena egin ondoren, bidezkoa bada Foru Ogasunaren interesak babesteko egoki diren ekintzak bideratu daitezen.

## 65. artikulua. Isileko lege hipoteka.

1. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 76. artikuluan jasotako ondorioetarako, ordainketa exijitzen dela ulertu behar da eskubidea Erregistroan inskribatu edo dena delako ondasun edo eskubideak eskualdatu diren ekitaldiko zorrak borondatezko epean biltzeko prozedura hasten denean.

2. Hipoteka hartzekodun batek nahiz hirugarren eskuratzaile batek eskubidea dute beraiek nahi dituzten ondasunen kuotak bereizteko, ordainagiri bakar batean sartuta daudenean ordaintzera behartutako pertsona beraren beste batzuekin batera.

3. Isileko lege hipoteka exekutatze aldera, erregelamendu honek 75.4 artikuluan jasotakoa aplikatuko da.

## 66. artikulua. Foru Ogasunaren kredituen berme gisa emandako beste hipoteka eta eskubide erreal batzuk.

1. Aurreko artikuluan aipatutako lehentasun bera izateko, artikulu horretan jasotakoak baino lehenagoko zorrak egoteagatik edo artikulu hori aplikatuta kopuru handiagoa ateratzeagatik, zordunak hipoteka berezia eratu dezake borondatez edo zergabilketa organoak exijitu dezake. Hipoteka horrek inskribatuta dagoen egunetik aurrera izango du ondorioa, Hipoteka Legeak 145. artikuluan jasotakoaren arabera.

2. Beste zor batzuei dagokienez, borondatez eratu daiteke, Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeko berme gisa, gerorapen eta zatikapen kasuetan edo aplikaziozko araudian aurreikusitako gainerako kasuetan, ondasun higiezinen gaineko hipoteka, ondasun higikorren gaineko hipoteka, ondasuna lekualdatu gabeko bahia edo bermerako beste edozein eskubide erreal.

3.[41] Bermea alde bakarrak eratu badu, hura onartu edo, hala badagokio, deuseztatzeko, agiri administratiboa erabili ahal izango da, eta haren edukia erregistroan jasota utziko da.

4. Berme horiek erregelamendu honen 75. artikuluan xedatutakoaren arabera exekutatuko dira.

## 67. artikulua. Ondasunak afektatzea.

Afekzio eskubidea gauzatzeko, erantzukizun subsidiarioa adierazi beharko da martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 179. eta 181. artikuluetan jasotakoaren arabera.

Afekzioari buruzko albo oharra Ogasuneko zuzendari nagusiak eskatu behar du espresuki eta ofizioz, non eta likidazioa ez den jasotzen erregistroan inskribatuko

---

[41] Apartatu hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

den agirian. Hori gertatzen denean, afekzio oharra azken horrek egingo du zuzenean, espresuki eskatu gabe.

# III. TITULUA

# ZERGABILKETA BORONDATEZKO EPEAN ETA EPE EXEKUTIBOAN

## I. Kapitulua

## Xedapen orokorrak

### 68. artikulua. Borondatezko epearen hasiera eta amaiera.

1. Borondatezko epean biltzeko hasiera data hauek izango dira:

- Likidazioa ordaintzera behartutako pertsonari jakinarazten zaion eguna.

- Zergabilketa epearen hasiera eguna, taldeka eta aldizka jakinarazten diren zorrak direnean.

- Aurkezteko epearen hasiera eguna, autolikidazioak direnean.

2. Borondatezko epean biltzeko amaiera eguna ordainketa epeen mugaeguna izango da. Autolikidazio bidez ordaindu beharreko zorrak badira eta hura epeaz kanpo aurkeztu bada ordaindu gabe edo gerorapena, zatikapena edo konpentsazioa eskatu gabe, autolikidazioa aurkezten den egunean amaituko da zorrak biltzeko epea.

3. Ordaintzera behartutakoek osorik kitatu dezakete zorra borondatezko epean, non eta gerorapen edo zatikapena ez den onartu; kasu horretan, erregelamendu honek II. tituluko I. kapituluaren 2. sekzioan jasotakoa bete beharko da.

4. Zerga arlokoak ez diren zuzenbide publikoko zorrak, borondatezko aldian, horiek exijitzeko erabilitako arauetan jasotzen diren epeetan ordaindu beharko dira. Epea ez badago zehaztuta, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 61. artikuluan jasotakoa hartuko da kontuan.

### 69. artikulua. Epe exekutiboko zergabilketa.

1. Epe exekutiboko zergabilketa martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 165.1 artikuluan jasotakoaren arabera hasten da, borondatezko epean ordaindu ez diren kopuruei dagokienez.

2. Epe exekutiboa hasita, premiamenduzko prozeduraz bilduko dira zorrak, eta erregelamendu honek 70. artikuluan aipatutako premiamenduzko probidentzia jakinarazita hasiko da aipatu prozedura.

3. Ordaintzera behartutakoak osorik edo zati batean ordaindu ditzake zorrak epe exekutiboan. Zorra ez badu osorik ordaintzen, errekargua eta, hala badagokio, prozeduran sortutako kostuak barne, prozedurak aurrera egingo du ordaindu gabe geratu den gainerako zatiari dagokionez.

# II. Kapitulua

# Premiamenduzko prozedura

## *1. sekzioa. Premiamenduzko prozeduraren hasiera*

### 70. artikulua. Premiamenduzko probidentzia.

1. Premiamenduzko probidentziaren egintzan, ordaintzera behartutako pertsonaren ondarearen aurka jotzea agintzen du Gipuzkoako Foru Aldundiak.

Premiamenduzko probidentziak sententzia judizialaren indar exekutibo bera izango du ordaintzera behartutakoen ondasun eta eskubideen aurka jotzeko.

2. Premiamenduzko probidentziak eduki hauek izan behar ditu:

a) Ordaintzera behartutako pertsonaren izen-deiturak edo sozietate izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia eta helbidea.

b) Zorraren kontzeptua, zenbatekoa eta zergaldia.

c) Adierazpen espresua zorra ordaindu ez izanaz, borondatezko aldian ordaintzeko epea amaitu izanaz eta berandutza interesak sortzen hasi izanaz.

d)[42] Era berean, ohartarazi behar zaio zor osoa ez bada ordaintzen, ehuneko 5eko premiamenduzko errekargu murriztua barne, martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.5 artikuluan jasotako epean ordaintzera behartutako pertsonaren ondasunak enbargatuko direla edo zorra kobratzeko dauden bermeen aurka joko dela, eta orduan ehuneko 20ko premiamenduzko errekargua jarriko zaiola.

e) Premiamenduzko probidentziaren data.

3. Eskumenak emateko berariazko araudian, era berean, premiamenduzko probidentzia emateko organo eskuduna finkatuko da.

4. Beste herri administrazio batzuek zorrak ordaindu behar badizkiote Foru Ogasunari, eta haien ondasunak bahitzeko aukera baztertu gabe, lege xedapenen bidez salbuetsi gabe dauden kasuetan, ofizioz konpentsatzeko prozedurara jo daiteke.

### 71. artikulua. Premiamenduzko probidentzia jakinaraztea.

Premiamenduzko probidentzia jakinaraztean, informazio hau jaso beharko da gutxienez:

a) Errekerimendu espresua, zorra eta premiamenduzko errekargu murriztua martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 61.5 artikuluan jasotako epean ordaintzeko.

---

[42] Letra hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko bost apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

b) Informazio hau: premiamenduzko errekargu murriztu eta arruntak, berandutza interesen likidazioa eta prozedura kostuen ondorioa.

c) Ordainketa geroratzea edo zatikatzea eskatzeko aukera.

d) Informazioa, prozedura bakarrik indarrean dagoen araudian jasotako kasuetan eta baldintzetan eteteko aukerari buruz.

e) Zein errekurtso jar daitekeen probidentziaren aurka, zein organori jarri dakiokeen eta zein epetan.

## *2. sekzioa. Premiamenduzko prozedura garatzea*

### *1. azpisekzioa. Xedapen orokorrak.*

### **72. artikulua. Berandutza interesa.**

1. Zorpeko kopuruek berandutza interesak sortuko dituzte epe exekutiboa hasten denetik haiek ordaindu arte.

Zorra eten, geroratu edo zatikatu gabe badago osorik kitatzen denean martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 61.5 artikuluan jasotako epea amaitu aurretik, premiamenduzko zorrak ordaintzeko, ez dira exijituko epe exekutiboa hasi denetik sortutako berandutza interesak.

2. Interes tasa aplikatuko zaion oinarrian ez da sartuko premiamenduzko errekargua.

3. Zerga edo aurrekontu araudian jasotakoaren arabera finkatuko da interes tasa, kontuan hartuta zerga arloko zor eta zigorrak diren edo zerga arlotik kanpokoak diren.

4. Interesak modu hauetako batean kalkulatu daitezke, kasuen arabera:

a) Premiamenduzko zorra ordaintzen denean martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 61.5 artikuluan jasotako epea amaitu ondoren, sortutako interesak likidatuko dira gero. Interesak likidatu eta biltzeko, Gipuzkoako Foru Aldundiak egindako likidazioetarako izaera orokorrez finkatutako prozedurari jarraituko zaio.

b) Aurreko letran aipatutako kasuan, zergabilketa organoak interesak premiamenduzko zorra ordaintzean likidatzea eta ordaintzea erabaki dezake, zerbitzuaren beharrak direla-eta beharrezkoa denean.

c) Ondasun bahituen edo bermeen aurka jotzen bada, interesak likidatuko dira lortutako kopuru likidoa zorra kitatzeko erabiltzean, hura handiagoa bada.

d) Esku-dirua edo kontu, kreditu edo eskubideetan gauzatutako dirua bahitzen bada, interesak likidatu eta atxiki daitezke hura bahitzean, bahituraren zenbatekoa handiagoa bada zorra baino.

Aurreko b), c) eta d) letretan jasotako kasuetan, ez da beharrezkoa izango sortutako interesak espresuki jakinaraztea zor nagusiaren jakinarazpenean edo ondorengo edozein momentutan interesatuari jakinarazi bazaio zorraren zenbatekoa, aplikaziozko interesari buruzko erreferentzia bat (zerga zorrak ala zerga arlotik kanpokoak diren kontuan hartuz) eta sortzapen aldiaren konputua.

5. Ez dira likidatuko berandutza interesak, kontzeptu hori dela-eta ateratzen den kopurua txikiagoa denean Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak ordainarazpen eta bilketa kostua estaltzeko gutxieneko kopuru gisa finkatzen duen zifra baino.

## 73. artikulua. Premiamenduzko prozedura etetea.

1. Premiamenduzko prozedura eteten bada errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzearen ondorioz, etena tramitatu eta ebatziko da martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorra administrazio bideko berrikuspenaren arloan garatzeko ematen diren arauei jarraituta.

2. Interesatuak frogatzen duenean martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 169.2 artikuluan jasotakoaren arabera prozedura etetea dakarten zirkunstantzietako bat gertatzen dela, jarduketak etenda geratzen direla jakinaraziko zaio harik eta erabakia hartu arte.

Eteteko eskaera jaso duen zergabilketa organoak zirkunstantzia horiek baloratzeko eskumenik ez duenean, jarduketak eten ditzake eta horren berri emango dio organo eskudunari. Organo eskudunak aipatu zirkunstantzietako bat gertatu izanaren berri eman behar dio premiamenduzko prozedura tramitatzen ari den zergabilketa organoari.

Azkenean hartzen den ebazpena interesatuari jakinaraziko zaio, eta, hala badagokio, premiamenduzko prozeduraren jarraipena komunikatuko zaio.

3.[43] Premiamenduzko prozedura batek delituari lotutako likidazio baten kobrantzarekin zer ikusia badu, eta zordun nagusiak edo erantzuleak prozedura hori etetea eskatzen badu, eskaera tramitatu eta ebatziko da Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 253., 254. eta 256.3 artikuluetan ezarritakoari jarraituz.

4.[44] Elkar laguntzaren esparruan jarraitzen den zerga-bilketa prozedura eteteko, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko aipatutako foru arauren 164 bis artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

## 74. artikulua. Ordainketak egoztea.

Ordaintzera behartutakoak premiamenduzko prozedura berean hainbat zor pilatuz gero, prozeduran lortutako kopuruek zorrak gutxituko dituzte martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 62. artikuluan jasotako egozpen irizpideen arabera. Horretarako, zerga arlokoak ez diren zuzenbide publikoko zorrak eta zuzenbide publikoko zerga zorrak parekatuko dira.

Ordainketak egozteko, zor bakoitza borondatez ordaintzeko epearen mugaegunaren arabera finkatuko da zorren antzinatasuna.

---

[43] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

[44] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita bat apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

## 75. artikulua. Bermeak exekutatzea.

1.[45] Premiamenduzko prozedura behin abiatuta, gertatzen bada zorra bermaturik dagoela eta hura ez dela ordaintzen Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 61.5 artikuluan jasotako epean, bermea exekutatu egingo da, non eta 172.1 artikuluko bigarren paragrafoan xedatutakoa ez den aplikagarria; horrelakoetan, bermea exekutatu aurretik, zilegi izango da beste ondasun eta eskubide batzuk enbargatu eta besterentzea.

Bermeak exekutatzeko garaian, ez da inola ere aplikatuko Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 176.3 artikuluan xedatutakoa.

2. Bermea abal solidario, kauzio aseguruaren ziurtagiri, fidantza edo beste berme pertsonal baten modura eratu bada, bermatzaileari errekerituko zaio zorra martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 61.5 artikuluan jasotako epean ordaintzeko, prozeduran sor daitezkeen errekarguak eta interesak barne, bermatutako kopuruaren mugaraino. Zorra ordaintzen ez badu, haren ondasunen aurka joko da, ordaintzera behartutakoari buruzko exekuzio tituluari jarraituta, premiamenduzko prozeduran, berriro jakinarazi gabe.

3.[46] Bermea baldin bada ordaintzera behartutako pertsonaren ondasun edo eskubide nahitaez besterengarrien gainean eratu den hipoteka bat, bahi bat edo haien gaineko beste berme erreal bat, horiek besterenduko dira erregelamendu honek izaera bereko edo antzeko ondasun enbargatuak besterentzeko ezartzen duen prozedurari jarraituz, betiere Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 172.2 artikuluan jasotakoa eragotzi gabe.

4. Bermea eratuta badago ordaintzera behartutakoa ez den pertsona baten ondasun edo eskubideen bidez edo horien gainean, bermatutako kopurua ordaindu ez izanaren berri emango zaio pertsona horri, eta errekerituko zaio martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 61.5 artikuluan jasotako epean ondasun edo eskubide horiek zergabilketa organoaren eskura jar ditzan, non eta zorraren zenbatekoa ez duen ordaintzen. Epe hori amaitu bada zorra ordaindu edo ondasun edo eskubideak eman gabe, aurreko apartatuan jasotakoaren arabera besterenduko dira.

5. Bermea esku-dirutan gordailatu bada, gordailuzainari errekerituko zaio martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 61.5 artikuluan jasotako epean zorra ordaintzeko, prozeduran sor daitezkeen errekarguak eta interesak barne, eratutako gordailuaren mugaraino. Era berean, ohartaraziko zaio errekerimendua betetzen ez badu ondasun eta eskubideak bahituko zaizkiola besterik gabe, ordaintzera behartutakoari buruzko premiamenduzko probidentzia

[45] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

[46] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

beraren arabera, berriro hori jakinarazi gabe. Gordailuzaina Gipuzkoako Foru Aldundia bera bada, zorra eta gainerako kopuruak  kitatzeko erabiliko da gordailua.

6.[47] Herri Ogasunaren kredituak bermatzeko eratutako hipotekak eta bestelako eskubide errealak zerga-bilketa organoak exekutatuko ditu premiamenduzko prozedura erabiliz, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 172.2 artikuluan jasotakoa eragotzi gabe.

Exekuzio administratiboa hasten denean, zerga-bilketako organo eskudunak exekuzio agindua komunikatuko dio jabetzaren erregistratzaileari, manamendu baten bidez, jabari eta kargen ziurtapena egin eta bidal dezan. Ziurtapen horrek Prozedura Zibilari buruzko urtarrilaren 7ko 1/2000 Legearen 688. artikuluan ezarritako edukia eta ondorioak edukiko ditu.

Zergabilketako organoak exekuzio prozedura hasi dela jakinarazi behar die bai azken jabari-inskripzioa bere alde egina duen pertsonari, ordainketa egitea errekeritu ez bazaio, bai hipotekaren ondoren eratu diren eta ziurtapenean jasota dauden kargen edo eskubide errealen titularrei.

Hala badagokio, zilegi izango da enkante edo lehiaketarako neurria erregelamendu honen 99. artikuluan jasotako arauei jarraituz finkatzea, hipoteka eratzean ondasuna zer preziotan tasatu den kontuan hartu gabe.

7. Premiamenduzko prozedurarekin jarraitu daiteke bermea nahikoa ez denean ikuspuntu juridiko edo ekonomikotik begiratuta, hori eratu zenetik aurrera, exekutatzera itxoin gabe; horretarako, erabaki arrazoitua hartu eta espedientean jasota utzi behar da.

8. Konkurtsoan deklaratutako pertsonaren ondasunen gainean eratu diren berme errealen exekuzio administratiboa hasi eta jarraitu daiteke, zirkunstantzia hauetako batzuk gertatzen direnean:

a) Bermea konkurtsatuarenak ez diren zorren kobrantza ziurtatzeko eratzea.

b) Ondasunak lotuta ez egotea jarduera profesional edo enpresarialari edo konkurtsatuaren produkzio unitate bati.

c) Konkurtsoa deklaratzean, jadanik argitaratuta egotea bermeari lotutako ondasuna nahitaez besterentzeko iragarkiak, eta ondasuna beharrezkoa ez izatea zordunaren jarduera profesional edo enpresarialak jarraitzeko.

Zirkunstantzia horietako bat ez bada gertatzen, berme errealaren exekuzio administratiborako jarduketak etengo dira, eta organo judizialari eskatuko zaio uztailaren 9ko 22/2003 Konkurtso Legearen arabera hura exekutatzeko bidezkoa izan daitekeena egin dezan.

### *2. azpisekzioa. Bahiturei buruzko arauak*

### 76. artikulua. Ondasun eta eskubideak bahitzea.

---

[47] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita bi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak  Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

Martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 61.5 artikuluan jasotako epea amaitu bada ordainketa egin gabe, betiere zorra ez bada bermeak exekutatuz ordaindu edo modu arrazoituan aurreikus badaiteke exekuzio horretatik lortuko den kopuru likidoa ez dela nahikoa izango zorra kitatzeko, behar diren ondasun eta eskubideak bahituko dira premiamenduzko probidentzian agindutakoa betez, eta prozedura berean zordun beraren zorrak metatu daitezke.

Prozeduraren beharrak direla-eta ezinbestekoa denean, prozeduran metatutako zorrak bereiziko dira.

## 77. artikulua. Bahituren jarduna.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiak, betiere proportzionaltasun printzipioa betez eta martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 173. artikuluan jasotakoaren arabera, ordaintzera behartutako pertsonaren ondasun eta eskubideak bahituko ditu, hain zuzen horien aurka jotzeko errazagoak direnak eta pertsona horri kalterik txikiena sortzen diotenak, ordaintzeko zorraren zenbatekoa kitatu arte. Nolanahi ere, ondasun eta eskubideak trabatze aldera ordaintzera behartuta dagoen pertsonak konstituzionalki babestuta duen helbidean sartzea eskatzen dutenak bahituko dira azkenik.

Bahitura jardun bakoitzarengatik bahitura dilijentzia bana egingo da, jarduketarekin zer ikusia duen pertsonari jakinaraziko zaiona.

Behin ondasun eta eskubideak bahituta, ordaintzera behartutakoari jakinarazi behar zaio dilijentzia eta, hala badagokio, beste hauei: ondasunen hirugarren titularrari, edukitzaileari edo gordailuzainari, horiekin ez badira jarduketak egin; martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 174.1 artikuluan jasotakoaren arabera ordaintzera behartutako pertsonaren ezkontideari edo izatezko bikoteko lagunari, eta kasu guztietan ohiko etxebizitza bada; eta ondasunen jabekide edo titularkideei.

Ondasun eta eskubideak erregistro publiko batean inskribatuta badaude, bahitura jakinarazi beharko zaie bahitura idaztoharra egin ondoren eta ziurtapena luzatzean albo oharra egin aurretik sortu diren kargen titularrei ere.

Zatitu gabe edukitzen diren ondasunetan parte hartzeko kuotak badira, bahitura dilijentziak ordaintzera behartutako pertsonaren partaidetza kuota izango du muga, eta jabekideei jakinaraziko zaie.

2. Traba fasean edo exekuzio fasean aurreko apartatuan jasotakoaren arabera bahitutako ondasunak nahikoak ez direnean, beste ondasun edo eskubide batzuei buruzko informazioa bilatzen jarraitu behar da, eta horiek aurkitu ahala bahitzen joango dira.

Pixkanaka lortutako informazioa dela medio martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 173. artikuluan jasotako printzipio eta irizpideei jarraituta lehendik bahitutako beste ondasun batzuen aurretik bahitu behar izan diren ondasunak bahitzen badira baina oraindik besterendu gabe badaude, aurretik horiexek besterendu beharko dira.

3. Bahitu daitezkeen ondasunak ordaintzera behartutakoaren edo hirugarren pertsona edo entitateen esparru edo lokaletan badaude, aipatu pertsonak prozedurara aurkeztuta egin daiteke ondasunen bahitura. Ondasunen edukitzaileari horiek emateko agindua emango zaio, eta bidezko dilijentzian jasota utziko da hori.

Ondasunak berehala emateari uko egiten badio edo ematea ezinezkoa bada, ondasunak zigilatu daitezke edo ordezkapena edo ezkutaketa eragozteko behar diren neurriak har daitezke. Hori guztia dilijentzian jaso beharko da.

Apartatu honetan xedatutakoa martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 136. eta 143. artikuluetan finka eta lokaletan sartzeari eta horretarako har daitezkeen segurtasun neurriei buruz jasotakoa kontuan hartuz gauzatu behar da.

4. Ordaintzeko dauden zorren identifikazio osoa exijitu behar da martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 166.2 artikuluan jasotakoaren arabera ordaintzera behartutako pertsonaren ondareko ondasun eta eskubideen zerrenda zorra kitatzeko adina Gipuzkoako Foru Aldundiaren esku utz dezan hari egiten zaion errekerimenduan. Errekerimendu horren jakinarazpenak foru arau horrek 67.2 artikuluan jasotako eten ondorioak izango ditu.

5.[48] Enbargoa hertsi-hertsiki exekutatu beharko da, baina horrek ez du eragotziko ordaintzera behartutakoak errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa aurkeztea martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurrale Historikoko Zergen Foru Araua Orokorrak, 174.3 artikuluan aurreikusten dituen arrazoiak gertatzen direla irizten duenean.

## 78. artikulua. Prozedurak metatzea.

1. Beste exekuzio prozesu edo prozedura bakan batzuekin batera gertatzen denean, premiamenduzko prozedurak lehentasuna izango du azken horren barruan egindako bahiturarik zaharrena bada. Horretarako, ondasun edo eskubidea bahitzeko dilijentziaren data hartuko da kontuan.

Nolanahi ere, Gipuzkoako Foru Aldundiak bahitutako ondasunak nahitaez besterendu ditzake, aurreko inskripzio edo idaztoharra duten hartzekodunen eskubideei ez zaienean kalte egiten ondasunak besterenduta.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak bahitutako ondasunen gainean edo haren aldeko bermeak eratuta dituzten ondasunen gainean beste hartzekodun batzuen alde lehendik inskribatu edo idatzi diren eskubideak daudenean, Ogasuna eskubide horietan subrogatu daiteke hartzekodunei beren kredituak abonatuz, horiek nabarmen txikiagoak badira Foru Ogasunak ondasunak besterenduta ustez lor dezakeen emaitza baino. Subrogazio hori gauzatzeko, zergabilketa organoak proposamena aurkeztu beharko dio Ogasuneko zuzendariari, eta horrek bidezko ebazpena emango du.

Kontzeptu hori dela-eta abonatutako kopuruak prozeduraren kostutzat hartuko dira, eta haien ordainketari aplikatu ahal izango zaizkio Gipuzkoako Foru Aldundiak bahitutako ondasunak nahitaez besterenduz lortzen dituen kopuruak.

3. Bahitutako ondasunak nahitaez besterentzeko prozedura baten baitan daudenean, ondasunen aurka jotzeko jarduketak geldituko dira, eta Administrazio desjabetzaileari emango zaio desjabetuari egin beharreko ordainketak bahitu izanaren berri. Ordaintzera behartutakoaren beste ondasun batzuei dagokienez prozedura exekutiboarekin jarraitu edo ez jarraitzeko, ondasun bahituaren prezio

---

[48] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita hiru apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

irmoan egin dela ulertu behar da bahitura. Prezioa irmoa ez denean, adostutako zatiari dagokion prezioan egin dela ulertuko da bahitura eta, adostasunik ez badago, aldiz, Administrazio desjabetzaileak eskainitako prezioan.

### 79. artikulua. Esku-dirua bahitzea.

1. Esku-dirua bahitzen denean, zergabilketa organoak dilijentzian jasota utziko du, ale bikoitzean. Aleetako bat espedienteari erantsiko zaio, eta bestea ordaintzera behartutako pertsonaren esku utziko da. Dirua Foru Diruzaintzaren kontuetan sartuko da berehala.

2. Dirua funtzionatzen ari diren enpresa edo entitateetako kutxetan, txartel-leihatiletan edo antzekoetan biltzen bada, diru-bilketa horren kargura egin behar diren ordainketak adostu daitezke, haiek gelditzea saihesteko behar den kopuruan.

### 80. artikulua. Kreditu entitateetan irekitako kontuetan dirua bahitzea.

1. Kreditu entitateetan irekitako kontuetan dirua bahituko bada, bahitura dilijentzia egin behar da zordun batek entitateko bulego batean dituen saldo guztiak direla-eta, Administrazioak ezagutu edo ez kontu bakoitzaren identifikazio datuak, borondatezko epean ordaindu ez den zorra kitatzeko adina, gehi epe exekutiboko errekargua, interesak eta, hala badagokio, prozeduraren kostuak.

Bahitura dilijentzia kreditu entitateko bulegoan aurkeztu behar zaie horren arduradunei, eta horiek berehala kopuru bahitua atxiki beharko dute, une horretan saldo nahikoa badago, edo, bestela, saldoen zenbateko osoa.

2. Era berean, zordunak entitate bereko bulego guztietan dituen saldo guztiak hartu ditzake bahitura dilijentziak, borondatezko epean ordaindu gabeko zorra, premiamenduzko errekargua, berandutza interesak eta, hala badagokio, prozeduraren kostuak kitatu adina. Kasu horretan, bahitura dilijentzia entitatean edo horren lurralde bulegoetan arduradun direnei aurkeztuko zaie, eta gainerako guztian aurreko paragrafoan xedatutakoa aplikatuko da.

3. Bahitura kreditua kreditu entitateari jakinarazteko modua, bitartekoa, tokia eta gainerako zirkunstantziak, bai eta fondoak atxikitzeko gehieneko epea, adostu dezakete Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak eta prozedurak eragindako kreditu entitateak.

4. Dirua titular bat baino gehiagoren izenean dauden kontuetan gordailatuta badago, ordaintzera behartutako titularraren zatia bahituko da bakarrik. Horretarako, gordailuzainarekiko solidaritate aktiboko titulartasun bereizigabea edo baterako titularitate erkidea duten kontuak badira, saldoa zati berdinetan banatuta dagoela ulertuko da, salbu kontratuan beste gauza bat jasota badago  edo fondoen beste titulartasun material bat frogatzen bada.

5. Gordailua epekako kontuetan eratuta badago ere, dirua berehala bahituko da, ondorengo 7 apartatuko bigarren paragrafoan jasotakoa eragotzi gabe.

6. Errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa jartzeko aukera baztertu gabe, ordaintzera behartutakoak frogatzen badu bahitu ezineko ondasun edo eskubideren bat bahitu zaiola edo bidezkoa baino gehiago bahitu zaiola, traba berehala kentzea edo gehiegi ordaindutako kopuruak itzultzea aginduko du zergabilketa organoak.

Zehazki, horrela jokatu behar da ordaintzera behartutako pertsonak frogatzen badu soldatak edo pentsioak bahitzean martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arauak 175.3 artikuluan jasotako mugak gainditu direla.

7. Atxikitako kopuruen zenbatekoa Foru Diruzaintzaren kontuetan sartuko da berehala, behin zergabilketa organoak kreditu entitateari espresuki errekeritu ondoren.

Epekako kontuak badira, atxikipenaren zenbatekoa aurreko paragrafoan adierazitako momentuan edo epea amaitu ondorengo egunean sartu beharko da, geroagokoa zein den kontuan hartuz. Dena den, gordailu egileak sartutako dirua aurrez erabiltzeko ahalmena badu, ordaintzera behartutakoari bahitura dilijentzia jakinaraztean ohartaraziko zaio ahalmen hori gauzatzeko aukera izango duela gordailuzainaren aurrean, baldintzen arabera; horrela gertatzen bada, deuseztapenaren ondorengo egunean egingo da ordainketa Foru Diruzaintzaren kontuetan.

### 81. artikulua. Baloreak bahitzea.

1. Kreditu entitate bati edo gordailuak zaindu edo kudeatzen dituen beste pertsona edo entitate bati eman edo haren esku utzitako fondoak, baloreak, tituluak, efektu publiko edo pribatuak nahiz beste ondasun batzuk bahituko badira, entitatean bahitura dilijentzia aurkeztu beharko da eta, aurrez identifikatu beharrik gabe, ordaintzera behartutakoaren gainerako ondasun eta eskubideetara zabaldu daiteke, Gipuzkoako Foru Aldundiak horien berri izan edo ez, zorra gehi premiamenduzko errekargua, interesak eta, hala badagokio, prozeduraren kostuak ordaindu adina.

Aurkezpen egintza berean, entitateak zergabilketa organoari jakinarazi beharko dio Gipuzkoako Foru Aldundiak bahitutako balorerik ba ote dagoen. Nolanahi ere, bahitura dilijentzia aurkezten den egunean hartuko dira trabatutzat bahitutako baloreak.

Baloreak kreditu entitate batean edo balore kudeaketan espezializatutako entitate batean badaude, bahitura dilijentzia aurkezteko modua, bitartekoa, tokia eta gainerako zirkunstantziak adostu ditzakete, izaera orokorrez, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak eta entitateak.

2. Aurreko 1 apartatuan aipatutako entitateetan gordailatutako tituluen bitartez ordezkatuta dauden baloreak bahitzen badira, titularrari jakinarazi beharko zaio bahitura dilijentzia, eta horrek bahiturarekin lotutako tituluei buruzko edozein zirkunstantziaren berri eman du. Prozedura tramitatzen ari den zergabilketa organoak tituluen ardura hartuko du, erosketa polizarekin eta eskurapen tituluarekin batera, hori jaso badu.

3. Zergabilketa organoak zor osoa kitatzeko nahikoak ez diren baloreak besterentzeko agindua emango du, berandutza interesak, premiamenduzko errekargua eta kostuak barne.

Baloreek kotizatzen badute eta gordailatuta badaude, edozein merkatu antolaturen bitartez bahituko dira, kudeaketa onaren ohiko jardunen arabera jar daitezkeen baldintza onenetan, eta haiek saltzea aginduko zaio entitate gordailuzainari. Entitate gordailuzain edo kudeatzaileak lortzen duen kopurutik gastuak eta bidezko komisioak kendu ditzake.

Salmentatik lortutako zenbatekoa Foru Diruzaintzaren kontuetan sartu beharko da zorraren mugaraino. Soberan geratzen den kopurua, halakorik badago, jabearen esku utzi beharko da. Zergabilketa organoak gainerako balore trabatuen gaineko bahitura kentzeko agindua jakinaraziko dio entitate kudeatzaile edo gordailuzainari, haiek besterentzea ez denean izan beharrezkoa.

Baloreek kotizatzen badute baina ez badaude gordailatuta, edozein merkatu antolaturen bitartez bahituko dira, kudeaketa onaren ohiko jardunen arabera jar daitezkeen baldintza onenetan, eta operadore batengana joko da haiek sal ditzan. Operadoreak lortzen duen kopurutik gastuak eta bidezko komisioak kendu ditzake. Salmentatik lortutako zenbatekoa Foru Diruzaintzaren kontuetan sartu beharko da zorraren mugaraino. Soberan geratzen den kopurua, halakorik badago, jabearen esku utzi beharko da.

Baloreek ez badute burtsan kotizatzen edo ez badaude gordailatuta, enkante bidez salduko dira, non eta ezin diren zuzenean esleitu. Salmentatik lortutako zenbatekoa Foru Diruzaintzaren kontuetan sartu beharko da zorraren mugaraino. Soberan geratzen den kopurua, halakorik badago, jabearen esku utzi beharko da.

4. Zorra ordaintzeko egokiagoa denean, tituluak besterendu beharrean, zergabilketa organoak mota guztietako dibidendu, interes eta etekinak bahitzea erabaki dezake, eta, hala badagokio, haietatik eratorritako itzulketak.

5. Erantzukizun mugatuko sozietateen kapitaleko partaidetzak badira, bahitura dilijentzia sozietateko administrazio organoari jakinaraziko zaio, bazkideen erregistro liburuan inskribatu dezan.

Aplikaziozko legeriaren arabera sozietateetan bazkideek partaidetzak lehentasunez eskuratzeko eskubidea dutenean, bazkide horiei eta sozietateari jakinarazi beharko zaie.

Partaidetzak esleitzeko prozedura berariazko araudiari jarraituta gauzatuko da.

## 82. artikulua. Beste kreditu, efektu eta eskubide batzuk bahitzea.

1. Aurreko artikuluan aipatutakoak ez diren beste kreditu, efektu eta eskubide batzuk direnean, honelaxe jokatuko da:

a) Bermerik gabeko kredituak, efektuak eta eskubideak badira, bahitura dilijentzia aurkeztuko zaio ordaintzera behartutakoaren zordun den pertsonari edo entitateari, eta ohartaraziko zaio momentu hartatik aurrera ez duela liberatzeko indarrik izango behartutako pertsonari ordaintzeak.

Bahitutako kredituari edo eskubideari mugaeguna iritsi zaionean, ordaintzera behartutakoaren zorduna den pertsonak edo entitateak haren zenbatekoa sartu beharko du Foru Diruzaintzaren kontuetan, zorra kitatu adina. Beste kasu batean, kreditua zor horri afektatuta geratuko da haren mugaeguna iritsi arte, lehenago ez bada kitatzen. Kreditua edo eskubidea segidako ordainketetan gauzatzen bada, ordaintzaileari aginduko zaio haren zenbatekoa Foru Diruzaintzaren kontuetan ordain dezan, zorraren mugaraino.

b) Kreditu bermedunak badira, bermatzaileari ere bahitura dilijentzia jakinarazi beharko zaio edo, hala badagokio, berme gisa eskainitako ondasun edo eskubidearen edukitzaileari, eta kredituaren epemuga amaitu bitartean gordailatu daiteke hura. Kredituaren mugaeguna iritsita, zorra ez bada ordaintzen, bermearen aurka joko da erregelamendu honek 75. artikuluan jasotakoaren arabera.

2. Jarduera profesional, merkantil edo autonomo baten ordainsarietatik eratorritako kreditu edo eskubideak bahitu badira, Auziperatze Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak jasotakoa bete behar da.

### 83. artikulua. Soldata eta pentsioak bahitzea.

1. Soldata eta pentsioak bahitzekotan, Auziperatze Zibilaren urtarrilaren 7ko 1/2000 Legeak jasotakoa bete behar da.

Bahitura dilijentzia ordaintzaileari aurkeztuko zaio. Hori behartuta egongo da kasu bakoitzean bidezkoak diren kopuruak atxikitzera soldata edo pentsio gisa ordaindutako segidako kopuruetatik, eta handik kendutako kopurua Foru Diruzaintzaren kontuetan sartu beharko du zorraren mugaraino.

2. Ordaintzera behartutako pertsonak ordainketa bat baino gehiago jasotzen badu, horiek guztiak metatu egingo dira bahitu ezin daitekeen zatia behin bakarrik kentzeko. Bahitutako kopurua zergabilketa organoak finkatutako ordainketatik edo ordainketetatik kendu daiteke. Ordaintzera behartutako pertsonak beste bat proposatzen badu espresuki, onartu egingo zaio, hori kobrantzarako oztopoa ez denean.

3. Etorkizuneko ordainketak ere bahituta daudenean, nahiz eta oraindik ez sortu, eta beste ondasun batzuk bahitu daitezkeenean, behin mugaeguna iritsitakoak kobratuta, ondasun horiek bahitu daitezke, ondorengo sortzapenak edo mugaegunak iritsi arte itxoin gabe.

Zorra ordaindutakoan, zergabilketa organoak atxikipenak amaitu direla jakinaraziko dio ordaintzaileari.

### 84. artikulua. Ondasun higiezinak eta horien gaineko eskubideak bahitzea.

1. Ondasun higiezinak eta horien gaineko eskubideak dilijentzia bidez bahituko dira. Zirkunstantzia hauek jaso behar dira horretan:

a) Titularraren eta, hala badagokio, finka bahituaren edukitzailearen izen-deiturak edo sozietate izena, identifikazio fiskaleko zenbakia eta identifikatzen lagundu dezaketen datu guztiak.

b) Finka landatarrak badira: finkaren izaera eta izena, udalerria eta izenaren araberako kokalekua, mugak, azalera eta edukiera, eta, jasota utzi badira, erregistro eta katastro identifikazioa.

c) Finka hiritarrak badira: udalerria, kalea eta zenbakia, lokalak eta etxebizitzak, azalera eta, jasota utzi badira, erregistro eta katastro identifikazioa.

d) Bahitutako ondasunen gainean ordaintzera behartutako pertsonak dituen eskubideak.

e) Zorraren zenbateko osoa, kontzeptua(k) eta zorraren zenbateko nagusia, errekarguak, interesak eta kostuak direla-eta ondasun higiezinari lotzen zaion erantzukizunaren zenbatekoa. Era berean, ohartaraziko zaio erantzukizunak exekuzioa amaitu bitartean sor daitezkeen interesak eta horren kostuak har ditzakeela.

f) Ohartaraziko zaio bahituraren prebentziozko idaztoharra hartuko dela Jabetzaren Erregistroan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde edo, hala badagokio, exekuzioa eragiten duen kredituaren titularra den entitate edo organismoaren alde.

2. Erregelamendu honek 77.1 artikuluan jasotakoaren arabera bahitura dilijentzia jakinaraztean, jabetza tituluak errekerituko zaizkie ondasun edo eskubideen titularrei.

3. Mugaketa egin behar bada, zergabilketa organoak Ogasuneko zuzendari nagusiari proposatuko dio Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko funtzionario tekniko bat izendatzea edo enpresa espezializatuen zerbitzuak kontratatzea. Bi kasuotan, hamabost eguneko epean gauzatu behar da mugaketa.

4. Bahitzekotan, merkantzia-ontziak ondasun higiezintzat hartuko dira, eta erregelamendu honetako artikulu honen eta ondorengoen arauak betez aplikaziozkoa diren aspektuetan bahituko dira haiek.

Kasu guztietan, itsasontzi bat edo beste edozein ontzi bahitzea agintzen denean, prebentziozko idaztoharra egingo da hura matrikulatuta dagoen itsas probintziako itsasontzien matrikula erregistroan eta Merkataritza Erregistroko Itsasontzi Liburuan.

**85. artikulua. Ondasun higiezinen eta horien gaineko eskubideen bahituraren prebentziozko idaztoharrak egitea Jabetzaren Erregistroan.**

1. Zergabilketa organoak eskatuko du ondasun higiezinen eta horien gaineko eskubideen bahituraren prebentziozko idaztoharra egiteko dena delako jabetzaren erregistroan.

2. Horretarako, zergabilketa organoak agindua luzatuko dio erregistratzaileari, hipoteka legerian jasotakoa eta ondorengo artikuluetan jasotakoa betez. Gainera, eskatuko dio erregistroan finka bakoitzaren gainean dauden kargen ziurtapena egin dezan, honakoak xehatuta: zeintzuk diren kargak eta titularrak, eta une horretan zein den finkaren jabea edo jabeak eta zein helbide duten.

Ziurtapena aztertuta, araudiak exijitutako jakinarazpen guztiak egin direla egiaztatu behar da eta, baten bat egin gabe badago, gauzatu egingo da. Kasu guztietan, bahitura jakinarazi behar zaie bahitura idaztoharra egin ondoren eta ziurtapenaren luzapenari buruzko albo oharra egin aurretik sortutako kargen titularrei.

3. Premiamenduzko likidazioetan agertzen badira aurretik ordaindu gabe egintzan edo kontratuan inskribatu ezin diren zergak, prozedura bahitura fasera iristean honelaxe jokatuko da:

a) Organo eskudunari proposatuko zaio likidazio horien ordainketa geroratzea, bakarrik ondasunak inskribatzeko eta horien bahituraren prebentziozko oharra Gipuzkoako Foru Aldundiaren alde idazteko. Zerga likidatzea eta inskripzioa erregistroan egitea ekarri duten agirietan jasota utzi beharko da gerorapen erabakia.

b) Agiri horiek eta bahitura agindua jabetzaren erregistratzaileari aurkeztu beharko zaizkio. Behin ordaintzera behartutakoaren eskubidea inskribatu ondoren likidazioaren ordainketa geroratu dela aipatuta, erregistratzaileak bahitura idatziko du berehala.

c) Zergaren likidazioa egin bazen jatorrizko agirien edo matrizen zinezko kopiak ez izateagatik inskribatu ezin diren agirien gainean, agiri horiek baimendu zituzten notario edo funtzionarioei eskatuko zaie zinezko kopia egin eta hor gerorapen erabakia jaso dezaten.

d) Ondasun bahituak besterentzean, hortik lortutako prezioa bidezko likidazioak eta gainerako erantzukizunak kitatzeko erabiliko da, exekuzioa amaitu bitartean sor daitezkeen berandutza interesak eta haren kostuak barne. Erabilpen horren frogagiria erregistroan aurkeztu behar da, eta bahitura eta gerorapen oharrak deuseztatzea ekarriko du. Salmenta eskrituran aspektu horiek utziko dira jasota.

Ondasunak Herri Ogasunari edo ente publiko hartzekodunari saltzea erabakitzen bada, esleipenaren frogagiriak aurreko paragrafoan aipatutako ondorio berberak izango ditu.

### 86. artikulua. Ondasun higiezinak eta hauen gaineko eskubideak bahitzeko prebentziozko idaztoharrei buruzko aginduen beharkizunak.

Bahituraren prebentziozko idaztoharrak egiteko aginduetan honako edukia jasoko da:

a) Premiamenduzko probidentziaren data eta ondasun higiezina edo higiezinak bahitzeko dilijentziaren transkribapena, bahitura nori eta zergatik jakinarazi zaion ere adieraziz.

b) Bahitutako ondasunen gainean zordunak duen eskubidearen deskribapena.

c) Bahitura aginduak ukitzen dituen finken edukitzailearen izen-abizenak edo sozietate izen osoa, halakorik bada.

d) Zorraren zenbateko osoa, zein kontzepturi dagokion adieraziz, eta zenbateko nagusiagatik, errekarguengatiik, interes eta kostuengatik higiezinari lotzen zaion erantzukizunaren zenbatekoa.

e) Aipatuko da idaztoharra hartzekodunaren alde egin beharko dela.

f) Adieraziko da agindua luzatzen den unean Gipuzkoako Foru Aldundiak ezin duela ondasun bahituei buruzko bestelako daturik eman, aginduan ageri direnak baino.

### 87. artikulua. Prebentziozko idaztoharren aginduak Jabetza Erregistroan aurkeztea.

1. Prebentziozko idaztoharren aginduak ale hirukoitzez aurkeztuko dira Jabetza Erregistroan. Momentu horretan bertan, erregistratzaileak aleetako bat itzuliko du agindua aurkeztean hartutako idazpenaren oharra eginda, eta bere garaian, beste ale bat itzuliko du, ohar batean adierazita utziz idaztoharra egina izan dela edo ez dela egiterik izan. Azken kasu horretan, antzemandako akatsak ez ezik, horiek konpontzeko era eta bitartekoak ere zehatz-mehatz adieraziko ditu. Aginduaren hirugarren alea erregistroan artxibatuko da.

2. Finka edo finkak ez badira inskribatuta ageri, edo konpon daitekeen akatsa dela eta idaztoharra egiterik ez badago, bahituraren berri hartuko da eta hala jasoko da aginduaren erantzunean.

3. Aginduak faxez edo bide telematikoz aurkeztu ahal izango dira erregistroan, araudi aplikagarriak ezartzen duen eran.

4. Premiamenduzko prozeduraren jarduketek beharrezko egiten dutenean, agindu bidez eskatu ahal izango da bahituraren prebentziozko idaztoharrak hipoteka legeriak xedatutakoari jarraikiz luzatzeko.

## 88. artikulua. Gorabeherak Jabetza Erregistroan bahituraren prebentziozko idaztoharrak egitean.

1. Jabetzaren erregistratzaileak atzera bueltzatzen badu agindua horretarako argudiatuta idaztoharra konpon daitekeen akats batengatik eten dela, akatsa, ahal bada, unean bertan edo, bestela, hipoteka legerian ezarritako epean zuzenduko da.

2. Akats konpongarriengatik egindako idaztoharra hipoteka legerian jasota dagoen moduan ez iraungitzeko, zergabilketa organoak, behar izanez gero, legeria horretan baimentzen den luzapena eskatuko du.

3. Erregistratzailearen erabakiarekin ados egon ezean, jarduketak Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan lege aholkularitzako funtzioak betetzen dituen organoari helaraziko zaizkio eskumena duen organoak, bidezkoa bada, kalifikazio erregistralaren aurkako errekurtsoa aurkez dezan.

## 89. artikulua. Erregistratzaileen erantzunak.

1. Jabetzaren erregistratzaileek behar diren idazpenak eta prozedura exekutiborako interesa duten ziurtapenak egingo dituzte legeria hipotekarioan ezarritako epeen barruan.

Bahituraren prebentziozko idaztoharraren aginduari jabetzaren erregistratzaileak ematen dion erantzuna eta higiezinen gaineko zama eta kargei buruzko ziurtapena premiamenduzko espedientean sartuko dira.

2. Gipuzkoako Foru Aldundiak legeak baimentzen dituen ekintza zibilak gauzatu ahal izango ditu erregistratzaileek Erregelamendu honen arabera dituzten zerbitzuetan atzeratzeak sortaraz ditzakeen kalte-galeren ordaina lortzeko.

3. Atzerapenak errepikatu eta zergabilketa prozedura oztopatzen badute, Ogasuneko zuzendari nagusiari haien berri emango zaio, eta honek Erregistroen eta Notariotzaren Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko dizkio behar diren ondorioetarako.

## 89 bis artikulua. Ondasun higiezinak xedatzeko debekua akzioak edo partaidetzak enbargatzeagatik.[49]

1. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 174. artikuluko 7. apartatuan ezartzen dituen xedatze debekuak aplikatzearen ondorioetarako, zerga Administrazioak eskatuko du dagokion Jabetzaren Erregistroan ondasun higiezinak eta haien gaineko

---

[49] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita lau apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

eskubideak xedatzeko debekuaren prebentziozko idatzoharra egin dadila titulu baten gainean, idatzoharra eragin duen enbargoaren indarraldi berdinarekin.

2. Horretarako, zerga-bilketako organo eskudunak manamendua igorriko dio erregistratzaileari, hipoteka arloko legeriari erreparatuta, eta, aplikagarri diren kasuetan, erregelamendu honen 85. artikuluetan eta haren hurrengoetan ezarritakoa kontuan hartuta.

## 90. artikulua. Interesak, errentak eta mota guztietako fruituak bahitzea.

1. Ordaintzera behartutakoaren interesak, errentak eta fruituak diru ordainketen bidez gauzatuta bahitzen direnean, bahituraren dilijentzia pertsona edo entitate ordaintzaileari jakinaraziko zaio, eta honek atxiki egin beharko ditu eta Foru Diruzaintzaren kontuetan sartu zor den zenbatekoa estali arte.

2. Bahitu beharreko fruitu edo errentak apirilaren 12ko 1/1996 Errege Dekretu Legegileak, Jabetza Intelektualaren Legearen testu bateratua onartzen duenak, babestutako obra baten ustiapen eskubideei dagozkienean, fruitu eta errenta horiek lansaritzat hartuko dira aipatutako testu bateratuak ezarritako eran, eta bahitura erregelamendu honen 83. artikuluan xedatutakoari jarraiki egingo da.

3. Bahitzen dena merkataritza, industria eta nekazaritza enpresa edo jarduerek lortutako fruitu edo errentak badira, administratzaile edo kontuhartzailea izendatu ahal izango da, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 174.5 artikuluan ezarritakoaren arabera jardungo duena. Izendapena Ogasuneko zuzendari nagusiaren ebazpenaz erabakiko da, enpresaren administrazio organoari edo negozioaren titularrari entzun eta gero. Ebazpen horretan aipatutako artikuluan ezarritako zioak betetzen direla arrazoituko da, eta ebazpena gauzatu baino lehen fiskalizatuko diren kudeaketa edo administrazio lanak ere zehaztuko dira.

4. Fruituak aseguratuta badaude, aseguru etxeari jakinaraziko zaio ezbeharrik izatekotan bidezko diren kalte-ordainak edo prestazioak bahituta geratzen direla. Ezbeharra behin gertatuta, kalte-ordain edo prestazio horiek Foru Diruzaintzaren kontuaren sartuko dira.

## 91. artikulua. Merkataritza eta industria establezimenduak bahitzea.

1. Merkataritza eta industria establezimenduak bahitu egingo dira baldin eta, zirkunstantzia guztiak kontuan hartuta, bahitura hori elementuak bereizita bahitzea baino hobea dela irizten bada.

2. Merkataritza eta industria establezimenduen bahitura funtzionarioak establezimendu horietara edo hauen jabe den pertsona zein entitatearen helbidera bertaratuta hasi ahal izango da.

3. Bahiturak honako ondasun eta eskubideak hartuko ditu, halakorik bada:

a) Negozioaren lokalaren errentamendu kontratua lagatzeko eskubidea, errentan emanda badago, eta bertako instalazioak.

b) Jabetza intelektual eta industrialaren eskubideak.

c) Tresneria, makinak, altzariak, lanabesak eta ekoizpen eta lanerako gainerako tresnak.

d) Salgaiak eta lehengaiak.

e) Egon litezkeen kalte-ordainak.

f) Bahitu daitezkeen bestelako ondasun eta eskubideak.

4. Bahituraren emaitza positiboa zein negatiboa izan, jarduketaren dilijentzia egingo da. Emaitza positiboa bada, bahitutako establezimendu bakoitzean dauden ondasun eta eskubide guztien inbentarioa egingo da, bai eta bahitzen direnena ere.

5. Higiezina errentan emanda badago, bahitura dilijentzia errentatzaileari jakinaraziko zaio.

6. Ondasun higikorren erregistroan bahituraren prebentziozko idaztoharra hartuko da, eta horretarako, zergabilketa organoak bidezko agindua emango du.

7. Kasuan kasuko zirkunstantzien arabera, honako neurri hauetakoren bat hartzea erabaki ahal izango da:

a) Lokala zigilatzea bahitutakoa besterendu arte.

b) Administratzaile bat izendatzea, erregelamendu honen 90.3 artikuluan jasotakoari jarraiki, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arauak 174.5. artikuluan aipatzen dituen kasuetan.

8. Merkataritza eta industria establezimenduak kapitulu honetako 3. sekzioan ezarritako prozedura aplikatuz besterenduko dira.

## 92. Gainerako ondasun higikorrak eta abereak bahitzea.

1. Gainerako ondasun higikorrak eta abereak bahitu ahal izango dira ordaintzera behartutakoa edo hirugarrenen bat lokaletara bertaratuta eta ondasun horien edukitzaileari ondasunak emateko aginduta. Gertaera horren berri dagokion dilijentzian jasoko da.

2. Bahiturak Ondasun Higikorren Erregistroan inskriba daitezkeen ondasunak ukitzen dituenean, zergabilketako organoak bahitura agindua emango du dagokion herriko erregistroan haren prebentziozko idaztoharra har dadin. Agindu horiek beren araudian ezarritako eran tramitatuko dira.

3. Automobil, kamioi, motozikleta, itsasontzi, aireontzi edo bestelako ibilgailuen kasuan, aurreko apartatuetan xedatutako eran egingo da. Ordaintzera behartutakoari bahitura jakinaraziko zaio, eta bost eguneko epea emango zaio zergabilketako organoen esku jartzeko dokumentazioarekin eta giltzekin batera. Hala egiten ez badu, zirkulazioa zaintzeaz arduratzen diren agintariei eta bidezko diren gainerakoei agindua emango zaie esandako ondasunak aurkitu, gordailutu eta zigilatzeko.

4. Epekako salmenta sistemaren bidez eskuratutako ondasunak bahitzen direnean, beren araudian jasotako xedapenak hartuko dira kontuan.

5. Patente, marka, merkataritza-izen eta baliagarritasun-ereduak bahitzen direnean, beren araudian jasotako xedapenak hartuko dira kontuan.

### 93. artikulua. Pentsio fondoetako edo gizarte aurreikuspeneko entitate edo erakundeetako partaide edo bazkideek jaso ditzaketen kopuruak bahitzea.

1. Pentsio planetako, borondatezko gizarte aurreikuspeneko mutualitate edo entitateetako edo gizarte aurreikuspeneko beste ordezko sistemetako partaideak jasotzen duen edo jaso lezakeen prestazio eskubidea kasuan kasuko araudiak baimentzen duen eran bahitu ahal izango da. Nolanahi ere, bahitura ez da gauzatuko harik eta prestaziorako eskubidea sortu, araudi horretan gaixotasun larriari buruz nahiz iraupen luzeko langabeziari buruz jasotzen diren kasuak bete, edo plana zein bestelakoa modu aurreratuan erreskatatzeko aurreikusita dauden zirkunstantziak gertatzen diren arte.

2. Aurreko apartatuan aurreikusitako ondorioetarako, pentsio planak, borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateak edo borondatezko gizarte aurreikuspeneko mutualitateak pentsioen sistema publikoaren ordezko gisa jarduten direnean, pentsio publikotzat hartuko dira eta, beraz, erregelamendu honen 83. artikuluan ezarritako prozedurari jarraituko diote; aldiz, pentsioen sistema publikoaren sistema osagarriak direnean, epe luzera gauzatu daitekeen eskubidetzat hartuko dira eta, kasu horretan, erregelamendu honen 82.1 artikuluan ezarritako prozedura aplikatuko da.

3. Premiatuaren aldeko eskubideak zertan identifikatu gabe aurkeztuko zaie dagokien entitateei bahituraren dilijentzia, eta ordaindu gabeko zorraren zenbatekoa osatu arte egingo da. Entitate horiek bahituraren oharra jasoko dute, eta hala jakinaraziko diote zergabilketako organo jarduleari gehienez ere hamar eguneko epean, honako informazioa bidaliz: kontratatutako plan edo fondoaren ezaugarriak, eskubide finkatuak, modu aurreratuan erreskatatzeko aukera eta data, hartzen dituen prestazioak, eta bahitura gauzatzeko garrantzi ekonomikoa daukan beste edozein datu. Aurretiazko trabarik baldin badago, jakinarazpen horretan haren berri emango diote zergabilketako organoari, behar diren xehetasunak emanez.

4. Bahitura jakinarazten den unetik zergabilketako organoak bahitura kendu dela adierazi arte, entitate kudeatzaile eta gordailuzainak behartuta egongo dira ordaintzera behartutakoaren alde etorkizunean sor litezkeen kopuruak atxikitzera eta aipatutako organoari horren berri ematera. Era berean, eta hala badagokio, zergabilketako organoari jakinarazi beharko diote zein unetan baliatu daitekeen partaidea kapitala erreskatatzeko edo prestazioa modu aurreratuan jasotzeko aukeraz; horren aurrean, organo jarduleak honako hau egin ahal izango du: ordaintzera behartutakoari aukera hori erabiltzeko errekeritu, une horretan dagokion kopurua atxikiz exekutatzen den zorraren mugaraino edo, bestela, aukera horren erabileran zuzenean ordaintzera behartutakoaren tokia hartu.

5. Eskubide finkatuak beste plan batera mugitzen badira, entitate kudeatzaileak zergabilketa organoari jakinarazi beharko dio, bai eta honi frogatuta utzi ere helmugako planaren entitate kudeatzaile eta gordailuzainei bahituraren berri eman zaiela, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 42.4 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako.

## *3. azpisekzioa. Bahitutako ondasunen gordailuari buruzko arauak.*

### 94. artikulua. Bahitutako ondasunen gordailua.

1. Zergabilketako organoak erabakiko du, hala dagokionean, non gordailutuko diren, bahitura gauzatu arte, bahitutako ondasunak, artikulu honetan ezarritako

irizpideei jarraiki eta erregelamendu honen 92.3 artikuluan ezarritakoaren kaltetan gabe.

2. Bahituak izatean ondasunak kreditu entitateetan edo, zergabilketako organo eskudunen iritziz, segurtasun eta kaudimen bermeak eskaintzen dituzten bestelakoetan daudenean, entitate horietan segituko dute gordeta organo horien esku.

3. Gainerako ondasunak honako leku hauetan gordailutuko dira, zergabilketa organoak egokien irizten duenaren arabera:

a) Gipuzkoako Foru Aldundiaren beraren lokaletan, esandako ondasunak gordetzeko baldintza egokiak dituztenean.

b) Beste ente batzuen lokaletan, gordailurako erabiltzen direnean edo horretarako baldintza egokiak biltzen dituztenean, museoak, liburutegiak, ibilgailuen gordailuak edo antzekoak barne.

c) Gordailu lanetan aritu ohi diren enpresen lokaletan.

d) Aurreko lokalen ezean, ondasunak ordaintzera behartutakoa ez diren pertsona fisiko edo juridikoen lokal, helbide edo lokaletan gordeko dira, segurtasun eta kaudimen bermeak eskaintzen badituzte.

e) Ordaintzera behartutakoaren lokaletan, komenigarria izateagatik hala irizten denean edo ondasunak garraiatzea edo mugitzea zaila gertatzen denean; horrelakoetan, lokalak zigilatu egingo dira edo beharrezko neurriak hartuko dira segurtasuna eta osotasuna bermatzeko, eta ordaintzera behartutakoak erregelamendu honen 96. artikuluan gordailuzainari ezartzen zaizkion betebehar eta erantzukizunak izango ditu. Kasu horretan, gordailua nahitaezkotzat joko da eta ordaintzera behartutakoak ezin izango du haren aurka egin.

4. Aurreko 3 apartatuko c) eta d) kasuetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta gordailuzainaren arteko harremanak herri administrazioen kontratuei buruzko legeriak ezarritakoaren arabera arautuko dira azpisekzio honetan aurreikusten ez den guztian.

5. Bahitutako ondasunak gordailutzeko hasieran hautatutako lekuak beharrezko baldintzak betetzeari utziko balio edo gordailuzainak bere zereginak beteko ez balitu, zergabilketako organoak beste leku bat edo beste gordailuzain egoki bat izendatzea erabakiko du.

## 95. artikulua. Gordailuzainaren zereginak.

1. Gordailuzaina behartuta dago bahitutako ondasunak zaindu eta artatzera, bai eta horiek itzultzera ere hala eskatzen zaionean. Zeregin horretan behar den arduraz jokatu beharko du.

Gordailuzainaren zereginek bahitutako ondasunak zaindu, artatu eta itzultze soila gainditzen duten egintzak eskatzen dituztenean, jarduketa horiek zergabilketako organoaren baimena beharko dute.

2. Merkataritza eta industria establezimenduen bahituretan eta interesak, fruituak eta edozein motatako errentak bahitzean gordailuzain edo administratzaile bat izendatu bada, 1 apartatuan esandako zereginez gain, ondasun eta negozioen

kudeaketari propio dagozkionak ere izango ditu, eta hortik ateratzen diren kopuruak Foru Diruzaintzaren kontuetan sartu beharko ditu.

Izendapenean zergabilketako organoaren baimena behar duten eragiketak eta hauen zenbatekoa finkatuko da.

**96. artikulua. Bahitutako ondasunen gordailuzainak dituen eskubide, betebehar eta erantzukizunak.**

1. Gordailuzainak, ordaintzera behartutako pertsona bera denean izan ezik, eskubidea dauka bere zerbitzuak emateagatik hitzartutako ordainsaria jasotzeko eta, ordainsarian sartuta ez badaude, gordailuagatik jasandako gastuak berreskuratzeko.

2. Gordailuzain modura eta, izatekotan, administratzaile modura dituen zereginetatik ondorioztatzen diren betebeharrak egiteaz gainera, behartuta dago zergabilketako organoak agintzen dizkion azalpenak ematera, eta ondasunak ahalik eta ondoen administratu eta artatzera aldera organo horrek erabakitzen dituen neurriak betetzera.

3. Gordailuzain modura dituen obligazioak betetzen ez dituenean, gordailuzaina zorraren erantzule solidario bihurtu ahal izango da martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 42.4 artikuluan ezarritako eran, lepora dakiokeen erantzukizun zibil edo penala eragotzi gabe.

## *3.sekzioa. Bahitutako ondasunak besterentzea.*

### *1. azpisekzioa. Ondasunak bahitu aurreko jarduketak.*

**97. artikulua. Enbargatutako ondasunen balorazioa.**[50]

1. Zerga-bilketako organoak merkatuko prezioak erreferentzia hartuta eta ohiko balorazio irizpideei jarraituta baloratuko ditu enbargatutako ondasunak.

2. Organo horren iritziz ezagupen bereziak behar direnean, zilegi izango da balorazioa Administrazioko beste zerbitzu tekniko batzuek edo kanpoko zerbitzu espezializatuek egitea, hurrengo 98. artikuluko 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoari jarraituz.

3. Ordaintzera behartuta dagoen pertsonari jakinaraziko zaio balorazioa. Pertsona hori ez badago harekin ados, zilegi izango du peritu egoki batek egindako balorazio kontrajarria aurkeztea 15 eguneko epean, perituaren ordainsariak berak zuzenean ordainduta.

Ordaintzera behartutakoak epea luzatzeko eskatu ahal izango du, eta eskaeran perituaren identitatea adierazi behar du beti. Zerga-bilketako organoak bidezko deritzona ebatziko du.

Emandako epea igaro eta balorazio kontrajarririk aurkezten ez bada, ordaintzera behartutakoak bere eskubideari uko egin diola ulertuko da, eta aurreko 1. eta 2. apartatuetan xedatutakoaren arabera egindako balorazioa aplikatuko da.

---

[50] Artikulua hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

4. Zergapekoak balorazio kontrajarria aurkezten badu eta bi balorazioen arteko aldea, ondasun guztiei esleitutako balioen baturan ageri dena, ez bada txikienaren ehuneko 20 baino handiagoa, ondasunen baliotzat tasaziorik handienarena hartuko da.

Aldiz, bi aldeek ondasunei esleitutako balioen baturan ageri den diferentziak ehuneko 20 gainditzen badu, ordaintzera behartutakoari deituko zaio balorazio diferentziak argitzeko eta, adostasun batera iritsiz gero, idatziz jasoko da adostutako balioa, eta hura izango da aplikatuko dena.

5. Aldeen artean ez badago adostasunik, zerga-bilketako organoak, gehienez ere 15 eguneko epean, beste balorazio bat egiteko eskatuko dio hirugarren peritu bati, hurrengo 98. artikuluko 3. apartatuan xedatutakoari jarraituz.

Balorazio hori aurreko bien artean baldin badago, hura izango da behin betiko aplikatuko dena; bestela, balorazio berri horretatik gertuen dagoena hartuko da.

6. Enbargatutakoa efektu publikoak, akzioak, obligazioak edo baloreen bigarren mailako merkatuan kotizatzeko onartutako bestelako titulu edo baloreak direnean ez da tasaziorik egingo.

## 98. artikulua. Balorazio zerbitzuak izendatzea.[51]

1. Balorazioa Administrazioko zerbitzu teknikoek egiten duten kasuan, Ogasun eta Finantza Departamentuko langile batek egingo du, Zerga-bilketako zuzendariorde nagusiak izendatuta.

Enbargatutako ondasunak balio artistiko edo historiko aitortua edo ustezkoa duten pinturak, eskulturak edo objektuak badira, Gipuzkoako Foru Aldundian kulturaren alorreko eskumena duen departamentuko langile batek egingo du balorazioa.

2. Balorazioak aurreko 97. artikuluko 2. paragrafoan xedatutako eran egin daitezen, kanpoko zerbitzu espezializatuen bitartez alegia, Administrazioak kontratuak egin ahal izango ditu zeregin horiek adjudikatzeko.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratuak pertsona fisiko bati zein entitate bati adjudikatu ahal izango zaizkio.

Pertsona fisikoen kasuan, balorazioak egiteko behar besteko titulazioa izan beharko dute, baita arlo horretan duten esperientzia frogatu ere.

Entitateen kasuan, homologatutako tasazio enpresak izatea eta Espainiako Bankuaren Tasazio Entitate Espezializatuen Erregistro Ofizialean inskribatuta egotea exijituko da.

Kontratu horien adjudikazioa jasotzen duten pertsona fisikoek edo entitateek kontratu horietan hitzartutako zenbatekoaren arabera sortuko dituzte beren lansariak.

3. Hirugarren peritu egokiaren izendapena, hain zuzen ere, aurreko 97. artikuluko 5. apartatuan aipatua, Ogasuneko zuzendari nagusiak egingo du Gipuzkoako Lurralde Historikoko zerga kudeaketari eta zerga arloko jarduketa eta

[51] Artikulu hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko zazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

prozeduren arau komunei buruzko Erregelamenduak, apirilaren 21eko 5/2020 Foru Dekretuaren bidez onetsiak, 89. artikuluaren 4. apartatuan arautzen duen eran, eta ordaindu beharreko lansariak 89. artikulu horren 5. apartatuan araututakoarekin bat etorriko dira.

### 99. artikulua. Nahitaezko besterentzean erabiliko den neurria kalkulatzea.

1. Bahituren prebentziozko idaztoharraren ondorioz erregistratzaileak egindako dokumentazioan ageri den informazioa aintzat hartuta, ikertuko da lehendik zeuden zamek bere horretan irauten duten ala inskribatu osteko ordainketen ondorioz edo bestelako arrazoiengatik aldatu diren. Horretarako, zergabilketako organoak lehendik inskribatuta zeuden kredituen titularrengana jo ahal izango du kredituak oraindik badirauen eta gaur egun zein zenbatekoa duen adieraz dezaten.

Informazio hori eskatzen zaien hartzekodunek ahalik eta zehatzen argitu beharko dute kredituak bere horretan dirauen edo zeinahi den arrazoirengatik iraungi den; eta irautekotan, ordaintzeko zenbat geratzen den, mugaeguna zein den eta ordainketa zein epe eta baldintzatan egin behar den zehaztu beharko dute. Kreditua mugaegunera iritsi bada eta ordaindu gabe badago, aditzera emango dira, baita ere, mugaegunera iritsitako berandutza-interesak, atzerapen egun bakoitzeko duten zenbatekoa eta kostuetarako aurreikuspena.

2. Honako hau izango da enkanterako neurria:

a) Zama edo kargarik ez badago, balorazioaren zenbatekoa.

b) Bahitutako ondasunen gainean lehendik datozen zama edo karga errealik badago, honako hau:

1.- Zama edo kargak ondasunaren balorazioa baino handiagoak ez badira: balorazio horren eta idatziz jasotako eskubidea baino lehenagoko zama edo kargen balio eguneratuaren arteko diferentzia.

2.- Zama edo kargak ondasunaren balorazioa baino handiagoak badira, enkanterako neurria zorren eta kostuen zenbatekoa izango da, ondasunari esleitutako balioa gainditzen ez duen heinean, edo bestela, balio hori gainditzen badu, ondasunaren balorazioa.

Aurreko zama edo karga horiek hor iraungo dute, eta iraungitzean ez zaie errematearen prezioa aplikatuko.

3. Zama guztiak edo batzuk simulatuak direlako zantzurik ageri bada, eta horien zenbatekoak zorra kobratzea eragotzi edo oztopatu badezake, jarduketak Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan lege aholkularitzako funtzioak betetzen dituen organoari bidaliko zaizkio bidezko diren neurriei buruz informa dezan, baita erantzukizun zibil edo penalaren exijentziaz ere.

Hori guztia ebazten den bitartean, prozedurak aurrera segituko du ondasun horien gainean edo bahitu daitezkeen bestelakoen gainean.

### 100. artikulua. Jabetza tituluak.

1. Bahitura jakinarazten zaienean ordaintzera behartutakoek ez badute ondasun higiezinen, kreditu hipotekarioen edo, oro har, eskubide errealen jabetza titulurik aurkeztu eta, gainera, exekutatzailearen iritziz titularitatea ez bada behar bezala

frogatu Jabetza Erregistroak emandako ziurtapena dela medio, zordunari bost eguneko epea emango zaio esandako tituluak aurkezteko.

2. Adierazitako epea igaro ondoren ezinezkoa gertatzen bada informazio osagarririk lortzea, prozedurak aurrera jarraituko du ondasun edo eskubide horren gainean, premiamenduzko espedientean jasota dauden eta bertatik sortzen diren datu eta agiriekin.

3. Jabari titulurik inskribatuta ez dagoenean eta ordaintzera behartutakoek horrelakorik aurkezten ez dutenean, ondasunen esleipendunek, interesatzen bazaie, horien ordez Hipoteka Legearen VI. tituluan Jabetza Erregistroa eta errealitate juridikoa bateratzeko finkatuta dauden bitartekoak erabili ahal izango dituzte. Horrelakoetan, esleipendunek bidezko prozedura eskatu beharko dute, eta horri dagokionez Administrazioak ez du beste obligaziorik izango, ez bada besterentzearen agiri publikoa ematea ordaintzera behartutako pertsonak hala egiten ez duenean.

### 101. artikulua. Loteak.

1. Bahitutako ondasunak lotetan banatu ahal izango dira, eta bakoitzean izaeraz antzekoak direnak sartuko dira, zein motatakoak diren eta nolako aprobetxamendu edo zerbitzu izan dezaketen begiratuta.

Hala ere, ondasun higiezinen kasuan, hauek finka independentetan banatu ahal izango dira.

2. Era berean, ondasunak izaera berekoak ez izan arren, loteak eratu ahal izango dira, komenigarri irizten denean, lizitatzaileek lehiatzeko erraztasun handiagoak izan ditzaten.

3. Hipoteka berberaren edo bestelako zama edo zerga errealen mende dauden ondasun bahituekin lote bakarra eratu ahal izango da, eta modu berean jokatu ahal izango da, baita ere, horretarako zentzuzko arrazoiren bat dagoenean eta besterentzeko erabakia hartzeko eskumena duen zergabilketa organoak hala erabakitzen duenean.

*2. azpisekzioa. Besterentzea.*

### 102. artikulua. Nahitaezko besterentzearen printzipioak.

Behin balorazioa egin eta loteak osatu ondoren, ordaintzera behartutako pertsona berberaren ondasunak proportzionaltasun eta eraginkortasun printzipioei jarraituta besterenduko dira.

Hala ere, bestelako ondasunak hurrenez hurren agertzeak ez dio egindako besterentzeen baliotasunari eragingo, nahiz eta besterendutako ondasunen aldean lehentasunez bahitzeko ondasunak izan.

### 103. artikulua. Besterentzeko erak.

1. Hiru modu daude bahitutako ondasunak besterentzeko: enkante publikoa, lizitazio bat edo bi izan ditzakeena, lehiaketa eta zuzeneko esleipena, erregelamendu honetan ondasun eta eskubide jakin batzuetarako zehazten diren prozedurak ahaztu gabe.

2. Enkante publikoa izango da bahitutako ondasunak esleitzeko prozedura arrunta, eta horixe erabiliko da besterentzeko beste modurik espresuki aplikatu behar ez den guztietan.

3. Ondasunak nahitaez besterentzeko prozesuan esku hartzen duen organo administratiboa Besterentze Mahaia da. Bere funtzionamendu eta eraketa organikoa Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuaren foru agindu bidez zehaztuko dira, eta, edonola ere, hiru kide izango ditu beti.

4. Interesatuek bitarteko elektroniko, informatiko eta telematikoak erabiliz hartu ahal izango dute parte bahitutako ondasunak besterentzeko prozeduretan, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuaren foru agindu bidez onartzen diren baldintzen arabera.

### 104. artikulua. Besterentzeko erabakia nola hartu eta jakinarazi eta enkantea nola iragarri.

1. Martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 176.1 artikuluan aipatzen duen besterentze erabakia zergabilketako organoak hartuko du bahitutako ondasunak saltzeko aginduz eta salmenta egiteko eguna, ordua eta lekua ezarriz. Lizitatzeko enkante neurria ere finkatuko du. Hala badagokio, bide telematikoz parte hartzeko aukera ere adieraziko du.

2. Besterentze erabakia honako hauei jakinaraziko zaie: ordaintzera behartutakoari; honen ezkontideari edo izatezko bikote-lagunari martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 174.1 artikuluan esandako kasuetan eta, ohiko etxebizitza besterentzen bada, beti; erregistro publikoan inskribatuta dauden eskubideen titularrei, baldin eta eskubide horien inskripzioa Gipuzkoako Foru Aldundiak duen eskubidea inskribatu ondoren egin bada eta premiamenduzko espediente administratiboan jasota dauden kargen ziurtagirian ageri badira -ondorengo titular horien artean hartzekodun hipotekario eta pignoratizioak sartuko dira-; gordailuzainari, Administraziotik kanpokoa bada; eta egonez gero, enkantean jartzen diren  ondasunen jabekideei eta hirugarren edukitzaileei.

Enkantera ateratzen dena negozio-lokalen errentamendu kontratua lagatzeko eskubideak badira, besterentzeko erabakia errentatzaileari ere jakinaraziko zaio Hiri Errentamenduen Legean ezarritako ondorio eta baldintzekin.

Jakinarazpenean adieraziko da ondasunak esleitu aurreko edozein unetan ondasun bahituak liberatu ahal izango direla prozeduraren zorrak eta kostuak ordaindu ondoren.

3. Besterentzeko erabakia behin jakinarazi eta enkantearen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta,  gutxienez hamabost egun natural igaroko dira enkantea egin arte.

4. Organo eskudunak irizten badu helburua lortze aldera komenigarria dela eta ondasunen baliora egokitzen dela, nahitaezko besterentzeari publizitate handiagoa eman ahal izango zaio ondasunak kokaturik dauden udaletxean, zabalkunde handiko komunikabideetan eta argitalpen espezializatuetan iragarki laburtua argitaratuz.

5. Enkanteari buruzko iragarkian honako hau agerraraziko da:

a) Enkantea egiteko eguna, ordua eta lekua zein diren, eta eskaintzak zein epetan, non eta nola aurkeztu behar diren.

b) Nolako ondasunak besterentzen diren, lotetan deskribatuak, horietako bakoitzerako zein enkante neurri ezarri den eta, egonez gero, lizitaziorako zein tarte jarri diren; baita ere, eskura dauden ondasun edo tituluak non dauden gordailaturik, eta enkantea egin aurreko egunera arte zein egun eta zein orduetan aztertu ahal izango diren.

Erregistro publikoetan inskriba daitezkeen ondasunak direnean, iragarkietan adieraziko da lizitatzaileek espedienteari erantsi zaizkion jabetza-tituluak baino ezingo dutela exijitu; ondasunak ez badaude erregistroan inskribatuta, besterentzearen agiri publikoa dela inmatrikulazioa hipoteka legerian jasotako eran egiteko titulua; eta nahi baldin badute, beharrezkoa den gainerako kasuetan, Hipoteka Legeak VI. tituluan xedatzen duen eran jokatu beharko dutela erregistroa eta errealitate juridikoa ados jartzeko.

c) Ezartzen den lekuan eta epean kopuru jakin bat izango duen berme edo fidantza utzi behar dutela. Esleipendunei ohartaraziko zaie esleipenaren prezioa betetzen ez badute, erregelamendu honetan aurreikusten diren ondorioak aplikatuko direla, eta gordailuari emango zaion erabilera ere adieraziko zaie.

d) Argi azalduko da zorra eta prozeduraren kostuak ordaintzen badira, enkantea bertan behera geratuko dela ondasunak esleitu aurreko edozein unetan.

e) Nolako zamak, kargak eta egoera juridikoak dauden ondasunen gainean, eta haien titularrak zeintzuk diren, ondasunei eragiten badiete eta iraun behar badute.

f) Iragarkian bertan adierazten den tokian eta Erregelamendu honetan ezarritako epean esleipendunak gordailu eratuaren eta esleipen prezioaren arteko aldea ordaindu behar duela.

g) Enkantearen lehen lizitazioan eskaintzak kartazal itxian aurkeztuko direla, Erregelamendu honen 106. artikuluan xedatutakoari egokituta.

h) Besterentze erabakian enkantearen bigarren lizitazioa aurreikusi bada, eskaintzak norgehiagoka sistemaz aurkeztuko direla bigarren lizitazioan, Erregelamendu honen 107. artikuluan xedatutakoari egokituta.

i) Ohartaraziko da ezen enkantea egin ondoren esleitu gabeko loterik geratzen bada eta lote horiek osatzen dituzten ondasunen kontura oraindik exijitu daitekeen zorra badago, loteak Gipuzkoako Foru Aldundiari esleitu ahal izango zaizkiola, bere zorraren ordainez, Erregelamendu honetan jasotako baldintzetan.

j) Espresuki adieraziko da ondasunen eskualdaketari ezartzen zaizkion zeharkako zergak ez direla sartzen enkantearen neurrian.

### 105. artikulua. Lizitatzaileak.

1. Zuzenbidearen arabera jarduteko ahalmena duten pertsona fisiko zein juridiko guztiek hartu ahal izango dute parte nahitaezko besterentzean, betiere beren eskaintzarekin konpromisoa hartzeko legezko eragozpen edo murrizpenik ez badute.

2. Lizitatzaile orok, halakotzat onartua izateko, lehenik eta behin exijitutako fidantza eratu beharko du egiten duen eskaintzan sartzen den lote bakoitzerako, eta hori enkantearen iragarkian zehazten den eran, epean eta zenbatekoan egin beharko du.

Lote bakoitzerako, fidantzaren zenbatekoa enkantearen lehen lizitazioan duen neurriaren %10ekoa izango da, nahiz eta  enkantearen iragarkian zenbateko hori gehitu ahal izango den.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiak inolako gordailu edo fidantzarik jarri gabe hartu ahal izango du parte mota guztietako ondasun eta eskubideen enkantean, beste edozein lizitatzailek dituen baldintza berdinekin.

4. Artikulu honen 1 eta 3 apartatuetan aurreikusitakoa aplikagarria izango da, baita ere, besterentzea lehiaketa bidez edo zuzeneko esleipenaz egiten denean.

### 106. artikulua. Eskaintzak aurkeztea eta enkantea egitea lehen lizitazioan.[52]

1. Lehen lizitazioan, eskaintzak zerga-bilketako organoari zuzenduko zaizkio, eta haren zaintza eta erantzukizunpean geratuko dira.

Eskaintzak enkantearen iragarkian zehazten den lekuan eta epean aurkeztuko dira, eta, betiere, enkantearen iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunetik haiek irekitzeko adierazitako eguna iritsi aurreko azken egun baliodunera bitartean, biak barne.

2. Eskaintza idatziz aurkeztu beharko da, eta dokumentazio hau jaso beharko du:

a) Lizitatzailearen nortasun agiriaren jatorrizko dokumentua edo kopia soila, eskaintza aurkezten zaion funtzionarioak behar bezala erkatua, eta hala bada, emanda daukan ordezkaritza frogatzen duen agiria edo eskritura publikoa.

b) Aurkeztutako fidantzaren jatorrizko dokumentua edo kopia soila, eskaintza aurkezten zaion funtzionarioak behar bezala erkatua.

c) Lizitatzaileak sinatutako idazkia, lizitatzeko asmoa adierazi eta zer lote aukeratu nahi duen azaldu behar duena.

d) Kartazal itxia, eskaintzen den zenbatekoa idatzita jaso behar duena, eta, gutxienez, lehen lizitazioan jarritako enkante neurriaren ehuneko 80 estali behar duena. Kartazalaren kanpoaldean, aukeratutako lotearen erreferentzia adierazi beharko da argi eta garbi.

Aurkeztutako dokumentazioaren frogagiria emango zaio aurkezleari, zein egunetan eta zer ordutan aurkeztu duen zehatz-mehatz adierazita. Hori guztia espedientean jasota geratuko da. Behin eskaintza aurkeztuta, hura ezingo da inola ere erretiratu.

3. Enkantea lehen lizitazioan egiteko unea iritsi eta besterentze mahaia behin eratuta, ekitaldiari hasiera emango zaio ondasunen lotekako zerrenda eta enkantearen baldintza arautzaileak irakurriz, kasuan kasuko iragarkiaren arabera.

Horren ondoren, eta enkantearen iragarkian adierazitako hurrenkerari jarraituz, Mahaiak aztertuko du lizitatzaileek lehen loterako aurkeztutako dokumentazioa, eta dokumentazio hori ontzat emanez gero, kartazalak irekiko dira barruan idatzita

---

[52] Artikulua hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko zortzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

duten zenbatekoa ikusteko. Exijitzen den gutxieneko kopurura iristen den eskaintzarik onenari adjudikatuko dio Mahaiak lotea.

Lote berberaren gainean berdinak diren bi eskaintza egonez gero, espedientearen eta luzatutako frogagirien arabera lehenago jaso den eskaintzari adjudikatuko zaio lotea.

Gainerako loteekin ere modu berean jokatuko da, etenik gabe eta elkarren segidan.

Egintza amaitutzat joko da adjudikatutako ondasunen zenbatekoak exijitutako zor osoa estali bezain pronto.

Enkantearen lehen lizitazioa bukatuta, dagokion akta egingo da, eta hala eskatzen duten lizitatzaileei haren kopia emango zaie.

Adjudikazioa jasotzen duen lizitatzaileak, eskaintza aurkezteagatik, hilabeteko epea du, adjudikazioaren egintzatik aurrera, eratutako gordailuaren eta adjudikazio prezioaren arteko diferentzia ordaintzeko, eta, hala egin ezean, adjudikazioa eraginik gabe geratuko da. Epe hori laburragoa izan daiteke enkantearen iragarkian hala ezartzen bada.

4. Adjudikaziodunak ez badu lotearen adjudikazio prezioa osatzen enkantearen iragarkian ezarritako epean, edo adjudikazio eskubideari uko egiten badio, galdu egingo du lotea bere alde adjudikatzeko eskubidea. Adjudikazio eskubide hori bigarren eskaintzarik onena aurkeztu zuen pertsonari emango zaio, eta horrela hurrenez hurren.

Kasu horretan, enkante mahaiak administrazio egintza emango du, eta bertan hurrengo eskaintzaile onenari jakinaraziko dio adjudikaziodun gertatu dela eta lotearen gaineko adjudikazio eskubidea hari dagokiola. Aldi berean, egintza horretan adieraziko zaio ezen, bost egun baliodunko epean gehienez, egintza jakinarazi eta biharamunetik hasita, enkantearen iragarkian lehenengo lizitaziorako exijitutako fidantza eratu behar duela berriro.

Administrazio egintza horretan bertan, adjudikaziodunari adieraziko zaio zer epe duen eskainitako adjudikazio prezioaren gainerako zatia osatzeko. Epe hori hilabetekoa izango da gehienez, administrazio egintza hori jakinarazi eta biharamunetik hasita, eta enkante mahaiak beste epe bat ezarri ahal izango du, gutxienez hamar egun baliodunekoa.

Era berean, administrazio egintza horretan bertan adjudikaziodunari espresuki ohartaraziko zaio ezen ezarritako epeetan ez badu fidantzarik eratzen edo ez badu osatzen eskainitako adjudikazio prezioaren gainerakoa, besterik gabe galduko dituela bai lotea adjudikatzeko eskubidea eta bai eratutako fidantza.

Enkante mahaiak akta batean jasoko ditu adjudikaziodunarekin egindako jarduketak eta haien emaitza, bertan datu hauek adierazita beti: pertsona hori nor den, zer lote besterendu nahi den, eta, hala badagokio, eskainitako adjudikazio prezioaren zenbatekoa ordaindu den.

5. Lehen lizitazio horren ondoren loteren bat adjudikatu gabe badago, eta lote hori osatzen duten ondasunen kargura exijitu daitekeen zorrik geratzen bada, bigarren lizitazio bat egingo da, besterentze erabakian eta enkantea lehen eta bigarren lizitazioan egiteari buruzko iragarkian zehaztutako baldintzei jarraikiz.

6. Bigarren lizitazioa ez bada deitu lehenengoarekin batera, organo eskudunak besterentze erabaki berria hartuz deitu ahal izango du bigarren lizitazio hori, eta, horretarako, hamabost eguneko epea izango du lehen lizitazioa egin denetik aurrera, erregelamendu honetan lehen lizitaziorako ezartzen diren publizitate eta jakinarazpen izapide berberekin.

Bigarren lizitaziorako besterentze erabakia ez bada hartzen esandako epean, Erregelamendu honetan arautûtako tramiteak hasiko dira ondasunak Gipuzkoako Foru Aldundiari zorraren ordainez adjudikatzeko

## 107. artikulua. Eskaintzak aurkeztea eta enkantea egitea bigarren lizitazioan.[53]

1. Bigarren lizitazioan, lehen lizitazioan aplikatutako enkante neurriaren ehuneko 50 gutxienez estaltzen duten eskaintzak onartuko dira lote bakoitzerako.

Hala ere, loteren bat ondasun higigarriek soilik osatzen badute, lehen lizitazioan erabilitako enkante neurriaren ehuneko 25 gutxienez estaltzen duten eskaintzak onartuko dira lote horretarako.

2. Bigarren lizitazio horretan eskaintzarik aurkeztu ahal izateko, aldez aurretik lizitatzaileek gordailuak eratu behar dituzte enkantearen iragarkian ezarritako zenbatekoan eta baldintzak betez, eta lizitazioa egiteko finkatutako orduan diru-sarrera egin izanaren frogagiriak entregatu beharko dizkiote besterentze mahaiari.

Era berean, hirugarren baten ordezkaritzan jarduten badute, aurretik ordezkaritza hori frogatu behar diote Mahaiari, modu sinesgarrian.

Lizitatzaileak eta gordailuak behin identifikatu eta ontzat eman ondoren, egintza irekitzat joko da, onartuz joango dira hitzez egiten diren eskaintzak, eta, azkenean, aurkezten den eskaintzarik onenari adjudikatuko zaio lotea. Norgehiagoka amaitutzat emango da eskaintzarik altuena ahoz hiru aldiz errepikatu eta hura gainditzen duenik ez dagoenean. Horrelakoetan, eskaintzarik onenari adjudikatuko zaio lotea.

Enkantearen bigarren lizitazioa bukatuta, dagokion akta egingo da, eta hala eskatzen duten lizitatzaileei haren kopia emango zaie.

Adjudikazioa jasotzen duen lizitatzaileak, eskaintza aurkezteagatik, hilabeteko epea du, adjudikazioaren egintzatik aurrera, eratutako gordailuaren eta adjudikazio prezioaren arteko diferentzia ordaintzeko, eta, hala egin ezean, adjudikazioa eraginik gabe geratuko da. Epe hori laburragoa izan daiteke enkantearen iragarkian hala ezartzen bada.

Enkantearen bigarren lizitazioan esleipendun izan denak lote baten adjudikazio prezioa ez ordaintzeak ez du berekin ekarriko lote hori gainerako lizitatzaileetako bati adjudikatzea.

## 108. artikulua. Jarduketa komunak enkantean.[54]

---

[53] Artikulua hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

1. Dena delako lizitazioa bukatuta, besterentze mahaiko buruak fidantzak itzuliko dizkie adjudikaziodun suertatu ez diren lizitatzaileei, eta bi modutara egingo du hori: bankuko txeke izenduna igorriz gordailua egiteko erabilitako kontuaren aurka eta ordainagiriaren aurka, edo banku transferentziaren bidez, dagokionaren arabera.

Adjudikaziodunen gordailuak salmenta prezioaren kontura atxikiko dira; horrela, ordainketa ez badute osatzen erregelamendu honetan ezarritako epean, fidantzaren zenbatekoa galduko dute, betebehar hori ez betetzeak sorrarazi ditzakeen kalte handiagoei aurre egiteko betebeharra eragotzi gabe.

Adjudikaziodunak ez badu ordaintzen, fidantzaren zenbatekoa prozeduraren xede diren zorrak kitatzeko erabiliko da.

2. Salmentaren emaitza zorraren zenbatekoa eta prozeduraren kostuak ordaintzeko erabiliko da.

Soberakinik baldin badago, zordunari emango zaio, eta, jasotzen ez badu, propio erabakitako tokian kontsignatuko da bere esku izan dezan. Frogagiria espedienteari erantsiko zaio beti. Soberakina esandako tokian kontsignatuko da, baita ere, jakina denean enkantea ekarri zuen enbargoa egin ondoren hirugarrenen enbargo edo atxikipen aginduak daudela edo erregistro publikoan hirugarrenen eskubideak inskribatuta daudela.

### 109. artikulua. Enkantea enpresa edo profesional espezializatuen bidez egitea.

1. Zergabilketa organoak enpresa edo profesional espezializatuen esku utzi ahal izango du enkanteen exekuzio materiala.

2. Horrelakoetan, sekzio honetan enkanteetarako xedatutakoa aplikatuko da, honako berezitasunak kontuan hartuta:

a) Lizitazioan parte hartzeko ez da beharrezkoa izango aurretik gordailua eratzea.

b) Besterentze mahaia bertako lehendakariaren bitartez egongo da lizitazio egintzan ordezkatua, eta berak erabakiko du lizitazioan gerta litezkeen gorabeheren inguruan.

d) Zordunak erabakitzen badu enkantearen egintzan zorra ordaintzea, errekargua, interesak eta kostuak barne direla, mahaiko ordezkariak ondasunen likidazioa etengo du.

3. Mahaiko ordezkariak enkanteko aktaren ordez agiri publikoa egingo du, eta bertan likidazioa jasoko du lortutako produktua, zerbitzuaren ordainsaria eta enpresak edo profesionalak ordaindu beharreko likidoa adieraziz. Ondorio horietarako, ordainsaria prozeduraren kostutzat hartuko da.

---

[54] Artikulua hau abenduaren 12ko 56/2023 Foru Dekretuaren 2. artikuluko hamar apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak zenbait zerga erregelamendu aldatzen ditu eta indarrean sartzen da Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean (2023/12/18ko GAO).

Enpresa edo profesional espezializatuak hamabost eguneko epea izango du, esandako likidazioa egiten denetik aurrera, zenbateko likidoa propio ezarritako lekuan ordaintzeko.

## 110. artikulua. Lehiaketa bidez besterentzea.

1. Ondasunak honako kasuotan bakarrik besterendu ahal izango dira lehiaketa bidez:

a) Ondasunen ezaugarriak edo magnitudea direla eta, haien salmentak merkatuan nahasmendu kaltegarriak sortarazten ditzakeenean.

b) Behar bezala frogatuta dauden interes publikoko beste arrazoi batzuk daudenean.

2. Lehiaketa Ogasuneko zuzendari nagusiak baimendu beharko du eta deialdia Gipuzkoako AIdizkari Ofizialean argitaratuko da. Deialdi horretan honako datuok zehaztuko dira: besterenduko diren ondasunak, lehiaketan parte hartzeko epea eta baldintzak, eta ordaintzeko era eta fidantza. Deialdian lehiaketaren baldintza bereziak ere seinalatuko dira, baldin badaude, hau da, bai lehiakideen beharkizunei buruzkoak, eta bai besterendutako ondasunak erretiratu eta erabiltzeari buruzkoak.

Deialdian espresuki aurreikusten ez den guztian, erregelamendu honek ondasunak enkante bidez besterentzeko ezarritakoari jarraituko zaio.

3. Onarpen epea amaitu eta eskaintzak aztertu ondoren, besterentze mahaiak bost eguneko epea izango du lehiaketa esleitzeko edo hutsik uzteko.

Lehiaketa esleitzea erabakitzen bada, eskaintzarik onuragarriaren alde egingo da esleipena, baina ez alderdi ekonomikoa bakarrik kontua hartuta, deialdiaren baldintzak betetzen diren ere begiratuko baita.

Loteren bat esleitu gabe geratzen bada, zilegi izango da Erregelamendu honen 111. artikuluan araututa dagoen zuzeneko esleipenaren tramitea betetzea. Ogasuneko zuzendari nagusiak erabakiko du, beti, tramite hori betetzea, 3 hilabeteko epean lehiaketa egin denetik aurrera, eta besterentze mahaiak proposatuko du.

Epe hori behin igaro ondoren ebazpenik ez bada eman edo zuzeneko esleipena ukatu duen ebazpen espresua emanda badago, Erregelamendu honetan araututako tramiteak hasiko dira Gipuzkoako Foru Aldundiari ondasunak zorraren ordainez esleitzeko.

## 111. artikulua. Zuzeneko esleipena.

1. Honako kasuotan izango da zilegi bahitutako ondasunak zuzenean esleitzeko tramitea irekitzea:

a) Lehiaketa egin ondoren esleitu gabeko loteak geratu direnean eta Ogasuneko zuzendari nagusiak, besterentze mahaiaren proposamenez, espresuki baimentzen duenean. Erregelamendu honetan enkantearen lehen lizitaziorako aurreikusitako tramiteei jarraituta egingo da zuzeneko esleipena, betiere artikulu honetan jasota dauden berezitasunak kontuan izanik.

b) Produktuak galkorrak direnean, presazko beste arrazoi batzuk daudenean, edo, espedientean justifikatuko diren arrazoiengatik, lehia sustatzea posible edo komenigarria ez denean, Ogasuneko zuzendari nagusiak aurrez baimenduta. Baimen horrek esleipenaren mugak eta baldintzak finkatuko ditu.

2. Besterentze mahaiko buruak gestioak egingo ditu tramite honetan loteak ahalik eta baldintza ekonomikorik onenetan esleitzeko, eta horretarako, bere ustez egokienak eta eraginkorrenak diren bitartekoez baliatu ahal izango da, bide telematikoz parte hartu ahal izatea ere erabaki daitekeelarik.

3. Gutxieneko esleipen prezioa honako hau izango da:

a) Ondasunak lehiaketara eraman direnean, lehiaketarako ezarritako neurria.

b) Ondasunak ez badira lehiaketara eraman, merkatuko prezioak erreferentzia hartuta baloratuko dira, eta gutxienez hiru eskaintza lortzen saiatuko da. Seinalatutako baliora ez bada ezein eskaintzarik iristen, edo balio hori gainditzen duen eskaintzarik ez badago, ondasunak eskaintzarik handienari esleituko zaizkio, gutxieneko preziorik gabe.

4. Aurreko 1 apartatuko a) letraren kasuan, esleipena besterentze mahaiak egindako aktaren bidez formalizatuko da, eta b) letraren kasuan, Ogasuneko zuzendari nagusiak emandako ebazpenaz.

5. Espresuki aurreikusi ez den guztian, ondasunak enkante bidez besterentzeko ezarrita dagoenari jarraituko zaio, aplikagarri gertatzen den neurrian.

6. Ondasun higikorrak esleipendunari emango zaizkio esleipenaren zenbatekoa behin ordaindu ondoren eta ondasunen eskualdaketari ezarritako zergak ordaindu direla edo ordainketatik salbuetsita dagoela frogatu eta gero.

### *3. azpisekzioa. Ondasunak besterendu ondorengo jarduketak.*

### 112. artikulua. Salmenta eskritura eta lehentasunezkoak ez diren kargen deuseztapena.

1. Esleitutako ondasun higiezinen salmenta eskritura egin aurretik, espedientea Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan lege aholkularitzako funtzioak betetzen dituen organoari bidaliko zaio berau jaso eta hurrengo bost eguneko epean behar den txostena prestatu dezan. Zergabilketa organoak beharrezkoa den guztia xedatuko du antzematen diren akatsak zuzendu daitezen.

2. Lege aholkularitzako organoak behin espedientea itzuli ondoren, premiamenduzko prozeduran legezko formalitateak bete direla txostenean adierazita, esleitutako ondasun higiezinen salmenta eskriturak egingo dira.

3.[55] Horretarako, exekutatutakoari jakinaraziko zaio aukera duela, zerga-bilketa organoak eskatuta, txandaz dagokion notarioaren aurrean agertzeko, eta agertu ezean, zerga-bilketa organoak ofizioz egingo ditu eskritura horiek, exekutatuaren izenean eta esleipena jaso duen pertsonaren alde. Eskritura horietan jasota utzi beharko da exekutatutako berme errealaren inskripzioa edo, kasua bada, Jabetza

---

[55] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita zortzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

Erregistroan Gipuzkoako Foru Aldundiaren izenean egindako prebentziozko idatzoharrarena, iraungita geratzen dela.

Esleipenduna ez bada agertzen, ondasun higiezina zerga-bilketa organoak emandako agiri publiko administratibo bidez eskualdatu ahal izango da.

4. Halaber, agindua emango da exekuzioa oinarritzeko erabilitako bahitura idaztoharren ondoren egindako inskribapen eta idaztoharrak deuseztatzeko, Hipoteka Erregelamenduak 175. artikuluaren bigarren erregelan xedatutakoari jarraikiz.

### 113. artikulua. Bahitura kentzea.

1. Behin zorra, interesak eta prozeduraren kostuak estali ondoren, zergabilketa organoak bahitura kenduko die besterendu gabeko ondasunei, eta ordaintzera behartutakoari ematea erabakiko du.

2. Zorra, interesak eta prozeduraren kostuak estali gabe geratu direnean, eta besterendu gabeko ondasunak daudenean, kapitulu honetako 4. sekzioan ondasunak Gipuzkoako Foru Aldundiari esleitzeari buruz xedatutako eran jokatuko da.

3.[56] Ondasunak besterentzeko prozedurak eta, dagokion kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiari esleitzekoak behin bukatuta, oraindik esleitu gabeko ondasunak geratzen badira, higigarriak zein higiezinak, zilegi izango da haien aurka besterentze prozedura berriak abiatzea, betiere baldin eta prozedura horiek eragin dituzten zorrak kobratzeko ekintza preskribatu ez badago.

## *4. sekzioa. Gipuzkoako Foru Aldundiari ondasunak zorraren ordainez esleitzea.*

### 114. artikulua. Bidezkotasuna.

1. Kapitulu honetako 3. sekzioan arautatako besterentze prozeduran ondasun bahituren bat edo batzuk esleitu gabe geratu badira, besterentze mahaiko buruak txostena bidaliko dio Ogasuneko zuzendari nagusiari bidezko deritzona erabaki dezan ondasunak Gipuzkoako Foru Aldundiari zorraren ordainez esleitzeari dagokionez.

2. Esleipena kobratu nahi den zorraren balio berdinagatik egingo da, besterentze prozesuan hasierako neurri bezala erabilitako balioaren ehuneko 75 gainditu gabe, eta lizitazio neurriaren eta esleipen prezioaren arteko aldeagatik inolako konpentsazio ekonomikorako eskubiderik izan gabe.

“Kobratu nahi den zorra” honako hau dela ulertuko da: esleitu beharreko ondasunaren edo ondasunen gainean agindutako bahiturak edo bahiturek, exekuzioa ekarri duen horrek edo horiek, bermatutakoa.

### 115. Ondasun higiezinak esleitzea.

---

[56] Apartatu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarrekohogeita bederatzi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

1. Ondasun higiezinek zama edo kargarik ez dutenean, edo edukita ere, karga horien zenbatekoa aurreko artikuluko 2 apartatuaren arabera esleituak izateko ezarritako balioa baino txikiagoa denean, Ogasuneko zuzendari nagusiak bidezko deritzona erabakiko du esleipenari buruz. Dauden zirkunstantziengatik sumatu baldin badaiteke ondasunak ez direla Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat erabilgarriak izango, ondasunak ez esleitzea erabaki ahal izango du.

Zamak edo kargak handiagoak badira, eta Ogasuneko zuzendari nagusiak esleipena bidezkoa dela irizten badu, Diputatuen Kontseiluak baimena eman beharko du, ondare gaietan eskumena duen foru departamentuak esleipenaren interesari buruz egindako txostena jaso eta gero. Txosten hori hilabeteko epean egin beharko da.

2. Espedientearen konplexutasun juridikoak beharrezkoa egiten badu, Diputatuen Kontseiluak baimena eman aurretik, txostena eskatu ahal izango dio Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan lege aholkularitzako funtzioak betetzen dituen organoari.

3. Esleipena erabakiz ematen diren ebazpenetan jasota utziko da, baita ere, karga errealen titularrei zorrekin gutxituko zaiela beren kredituen zenbatekoa baldin eta, zor horiek kobratze aldera, Gipuzkoako Foru Aldundiak isilpeko lege hipotekarako eskubidea badute.

4. Gutxipena Jabetza Erregistroko ziurtapenean azken agertzen denarekin hasiko da, legez ezarritako lehentasunak errespetatuz, eta erregistroan inskribatuko da artikulu honetan aipatzen den esleipen ebazpenari jarraiki.

Kredituak gutxituta egiten den esleipena interesatuei jakinaraziko zaie.

### 116. Ondasun higikorrak edo eskubideak esleitzea.

Ondasun higikorren edo eskubideen esleipena Gipuzkoako Foru Aldundiarentzat interesgarria izan daitekeela uste denean, Ogasuneko zuzendari nagusiak esleipen horren inguruan erabaki ahal izango du, behin kontuan hartuta aldundiarentzat izan lezakeen erabilgarritasuna eta, beharrezkoa izanez gero, ondasunak erabil litzakeen zuzenbide publikoko organo edo entitateari kontsulta egin eta gero.

### 117. artikulua. Inskribapena eta lehentasunezkoak ez diren kargen deuseztapena.

1. Gipuzkoako Foru Aldundiari esleitutako finkak zergabilketa organoak egindako ziurtapena aintzat hartuta inskribatuko dira Jabetza Erregistroan, eta ziurtapen horretan espedienteko jarduketak eta esandako inskribapenerako beharrezkoak diren datuak agerraraziko dira, Hipoteka Erregelamenduak 26. artikuluan xedatutakoa betez.

2. Halaber, agindua emango da exekuzioa ekarri duten bahituren inguruan ezarrita dauden lehentasunik gabeko kargak deuseztatu daitezela, Hipoteka Erregelamenduak 175. artikuluaren bigarren erregelan xedatutakoari jarraiki.

### 118. artikulua. Azken jarduketak.

Ondasunen inmatrikulazioa, hala dagokionean, behin egin ondoren, premiamenduzko espedientea amaitzeko jarduketak burutuko dira kapitulu

honetako 6. sekzioan xedatutakoari jarraiki eta honako berezitasunak kontuan hartuta:

a) Ondasunak esleitzeko erabakiak estalita geratzen diren zorren iraungipena ekarriko du, eta ordaintzera behartutako pertsonak hala eskatzen badu, zorra deuseztatu izanaren frogagiriak emango zaizkio.

b) Era berean, aipatutako erabakiaren indarrez, esleitutako ondasunei alta emango zaie inbentarioan, eta alta hori eta inskripzioaren ziurtagiria ondare gaietan eskumena duen foru departamentuari helaraziko zaizkio.

## *5. sekzioa. Premiamenduzko prozeduraren kostuak.*

### 119. artikulua. Prozeduraren kostuak.

1. Premiamenduzko prozeduraren kostutzat prozedura horretan sortzen diren gastuak hartzen dira. Ordaintzera behartutakoari exijituko zaizkio kostu horiek.

2. Prozeduraren kostuen kontzeptupean honako gastuok sartzen dira:

a) Bahitutako ondasunak baloratu, mugarritu eta besterentzeko jarduketetan esku hartzen duten Gipuzkoako Foru Aldundiaz kanpoko enpresa edo profesionalen ordainsariak.

b) Erregistratzaileen ordainsariak eta erregistro publikoetan egindako jarduketengatik ordaindu beharreko gainerako gastuak.

c) Bahitutako ondasunen gordailu eta administrazioagatik ordaindu behar direnak.

d) Erregelamendu honen 78.2 artikuluan xedatutakoaren arabera, lehentasunezko hartzekodunei egindako ordainketak.

e) Gipuzkoako Foru Aldundiak negozio-alokairu modura ordaindutako zenbatekoak, negozio-lokalaren errentamendu kontratua lagatzeko eskubidea bahitua izan denean.

f) Zergabilketa organoak baimendu ondoren, exekuzioak berak ezinbestean exijitu eta beharrezkoak dituen gainerako gastuak.

3. Gipuzkoako Foru Aldundiaren organoen gastu arruntak ezin izango dira kostu modura sartu.

### 120. artikulua. Gordailu eta administrazioagatik sortutako ordainsari eta gastuak.

1. Enpresen edo profesionalen ordainsariak, beraiek ofizialki ezarrita duten tarifaren arabera edo Gipuzkoako Foru Aldundiarekin hitzartutako kontratuan zehaztutako kopuruaren arabera sortuko dira.

Zerbitzu horiek zergabilketako organo eskudunak adostasuna eman ondoren ordainduko dira, gastu eta ordainketa publikoen prozedurari buruzko arauei jarraituta.

2. Erregistro publikoen jarduketengatik sortzen diren gastuak, indarrean dagoen araudian ezarritakoak izango dira. Zergabilketa organoei informazioa eman behar zaienean, doan emango zaie informazio hori.

Erregistratzaileek edo erregistroetako arduradunek gastuen faktura egingo dute, eta ondasun bahigarriekin lotuta aurkezten zaizkien edo egiten dituzten agindu edo gainerako dokumentatuetan jasoko dituzte.

Ordainsari horiek Gipuzkoako Foru Aldundiak ordainduko ditu, xede horretarako gaitutako fondoen pentzura, baina horrek ez du eragotziko premiatuaren kontura doazen kostutzat hartzea.

3. Honako hauek hartuko dira bahitutako ondasunen gordailuengatik sortutako gastutzat:

a) Gordailuzainentzako ordainsaria, baldin badago.

b) Garraio, paketatze edo txukunketa, biltegiratze, mantenimendu eta artapen gastuak, aurreko apartatuan aipatutako ordainsarian sartuta ez daudenean.

c) Ondasunak kudeatzeko behar diren administrazio zereginak betetzeagatik sortutakoak, erregelamendu honen 90. eta 91. artikuluetan jasotako kasuetan.

Zerbitzu horiek zergabilketako organoak adostasuna eman ondoren ordainduko dira, gastu eta ordainketa publikoen prozedurari buruzko arauei jarraituta.

### 121. artikulua. Kostuak zehaztu eta kobratzea.

1. Premiamenduzko prozeduran sortutako kostuak zehaztu ondoren premiamenduzko espedientean jasoko dira, eta kobratzerakoan lehentasuna izango dute esandako espedientean metatutako gainerako zenbatekoen gainean.

2. Zergapeko bati baino gehiagori eragin dioten kostuak bakoitzari banan-banan egotzi ezin zaizkionean, haien artean banatuko dira beren zorren proportzioan.

3. Ordaintzera behartutakoari ezin izango zaio inolako kostu partidarik exijitu, baldin eta partida hori frogatzen duten ordainagiriak, fakturak edo ordainsarien minutak espedientean ageri ez badira.

4. Ordaintzera behartutakoari ordainketaren frogagiria ematen zaionean, frogagirian bertan edo bereiztuta, bere konturako kostuen zenbatekoa jasoko da, kostuak zein kontzepturi dagozkion ere zehaztuta.

5. Ordaindutako kostuak itzuliko dira horien arrazoi izan den likidazioa edo premiamenduzko prozedura baliogabetzen direnean.

6. Premiamenduzko prozedura administratibo bat amaitu eta likidazioa egin ondoren, lortutako kopuruek sortutako kostuen zenbatekoa estaltzen ez badute, estali gabeko zatia Gipuzkoako Foru Aldundiaren kontura joango da.

## *6. sekzioa. Premiamenduzko prozeduraren amaiera.*

### 122. artikulua. Premiamenduzko prozedura amaitzea.

1. Zorra, kostuak barne, bere osoan ordaindu denean, premiamenduzko espedientean hala agerraraziko da, eta ondorioz espedientea amaituta geratuko da. Zorra beste edozein arrazoirengatik iraungi denean ere berdin jokatuko da.

2. Lortutako zenbatekoa nahikoa ez denean, lehenik kostuei aplikatuko zaie zenbateko hori eta, gero, prozeduran kobratu nahi diren gainerako zorrei.

Horretarako, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren 62. artikuluan eta Erregelamendu honen 74. artikuluan jasota dauden egozpen erregelak aplikatuko dira. Ordaindu gabeko zatiari dagokionez, Erregelamendu honek II. tituluaren I. kapituluko 5. sekzioan xedatzen duenari jarraituko zaio.

## *7. sekzioa. Hirugarrengotzak.*

### 123. artikulua. Hirugarrengotzaren izaera.

1. Erreklamazioa bide administratibotik aurkeztea aldez aurretiko beharkizuna izango da epaitegi eta auzitegi zibilen aurrean hirugarrengotzaren ekintzaz baliatu ahal izateko. Erreklamazio hori sekzio honetan jasota dauden arauei jarraikiz tramitatu eta ebatziko da.

2. Bi arrazoitan baino ezingo da oinarritu hirugarrengotza: ordaintzera behartutakoari bahitutako ondasunen jabarian, edo bere kreditutik ordaindua izateko hirugarrengoak premiamenduzko espedientearen xede den pertsonaren gainean duen lehentasunezko eskubidean.

3. Ordaintzera behartutakoak egindako erreklamazioa ezingo da kalifikatu hirugarrengotzaren erreklamaziotzat.

### 124. artikulua. Eskumenak hirugarrengotza gaietan.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak dauka hirugarrengotzak ebazteko eskumena.

### 125. artikulua. Hirugarrengotza aurkezteko era, epeak eta ondorioak.

1. Hirugarrengotzaren erreklamazioa idatziz aurkeztuko da, hirugarrengoak bere eskubidea oinarritzeko baliatu nahi dituen jatorrizko agiriak erantsita. Agiri horiek berreskuratu nahi izatekotan, hirugarrengoak haien kopia ere erantsi beharko du, eta behin erkatu ondoren itzuli egingo zaizkio. Premiamenduzko prozedura tramitatzen ari den organoko titularrari zuzenduko zaio.

Hirugarrengoak ez baditu aurkezten erreklamazio-idatzirako duen eskubidea oinarritzen duten jatorrizko agiriak, tramitatzeko organo eskudunak akatsa zuzentzeko eskatuko dio. Horretarako hamar eguneko epea emango dio, bai eta espresuki ohartaraziko ere hala egin ezean erreklamazioa artxibatu egingo dela.

Dokumentazioa jasotakoan edo, hala bada, antzemandako akatsak behin zuzenduta, erreklamazioa tramiterako onartuko da bidezkoa izanez gero. Tramitera onartu izanaren erabakia hirugarrengoari eta ordaintzera behartutakoari jakinaraziko zaie. Erabaki hori 15 eguneko epean hartu beharko da erreklamazioa jasotzen denetik edo akatsak zuzendutzat jotzen direnetik aurrera.

2. Ez da bigarren edo ondorengo hirugarrengotzarik onartuko hirugarrengoak lehendabizikoa egiteko unean zeuzkan titulu edo eskubideetan oinarrituta badago.

Ez da jabariaren hirugarrengotzarik onartuko ondasun edo eskubideak erregelamendu honetan jasotako besterentze prozeduren bidez eskuratzen dituen hirugarren bati legeria zibilaren arabera eskualdatu zaizkionean edo Gipuzkoako Foru Aldundiari zorraren ordainez esleitu zaizkionean.

Ez da eskubide hobeko hirugarrengotzarik onartuko salmentaren prezioa nahitaezko exekuzioz jaso ondoren edo, exekutatzaileari ondasun edo eskubideak

esleitu bazaizkio, honek haien titularitatea legeria zibilak dioen eran eskuratu eta gero.

Hirugarrengotza ez onartzeko erabakia hirugarrengoari eta ordaintzera behartutakoari jakinaraziko zaie. Erabaki horren aurka ezingo da errekurtso edo erreklamazio administratiborik aurkeztu.

3. Idatzia behin jaso ondoren premiamenduzko espedienteari gehituko zaio eta hirugarrengotza jabarikoa edo eskubide hobekoa dela kalifikatuko da. Gainera, garaiz eta behar den eran aurkeztu bada, auzipeko ondasunen gaineko prozedura etenda geratuko da edo jarraipena emango zaio martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 169. artikuluaren 4 eta 5 apartatuetan eta artikulu honen hurrengo apartatuetan xedatutakoari jarraiki.

4. Hirugarrengotza jabarikoa bada, behin onartu ondoren honako ondorioak izango ditu:

a) Behar diren segurtasun-neurriak hartuko dira ondasunen izaera kontuan hartuta. Besteak beste, bahituraren oharra hartu ahal izango da erregistroetan edo ondasunak gordailatu. Neurri horiek hartu ondoren, premiamenduzko prozedura eten egingo da hirugarrengotzan sartuta dauden ondasun eta eskubideei dagokienez.

b) Ondasunak diruzkoak badira, dela eskudirutan dela kontuetan, zergabilketa organoak erabakiko du zer egin beren zenbatekoarekin: organo eskudunean kontsignatzea edo zergabilketa organoaren esku dauden kontuetan atxikitzeko agintzea.

c) Ondasun edo eskubideak ezin badira berandutza kasuan artatu hondatu gabe eta balio galera nabarmenik jasan gabe, Erregelamendu honetan jasotakoaren arabera besterentzea erabaki ahal izango da. Kasu horretan, hirugarrengotzaren erreklamazioaren ebazpenetik ondorioztatzen den zenbatekoa kontsignatuko da.

d) Zorra bere osoan ordaindu arte, prozedurak aurrera jarraituko du ordaintzera behartutakoak hirugarrengotzatik kanpo dituen gainerako ondasun eta eskubideei dagokienez. Zorra behin ordainduta, auzipeko ondasun eta eskubideen bahitura ondoriorik gabe geratuko da, baina erreklamatzaileari titularitatea inola ere aitortu gabe, eta planteatutako hirugarrengotzaren erreklamazioa artxibatu egingo da.

5. Hirugarrengotza eskubide hobekoa denean, premiamenduzko prozedurak ondasunak edo eskubideak gauzatu arte egingo du aurrera, eta hirugarrengotzaren erreklamaziotik ondorioztatutako zenbatekoa organo eskudunean kontsignatuko da. Dena den, zilegi izango da prozeduraren exekuzioa etetea hirugarrengoak zenbateko hauetako bat kontsignatzen duenean: martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 173.1 artikuluan aipatzen duen kopurua edo, bestela, hirugarrengotzan sartuta dagoen ondasunaren balioa, azken balio hori txikiagoa bada. Ondorio horietarako, ondasuna Erregelamendu honen 97. artikuluan xedatutakoaren arabera baloratuko da.

Era berean, ondasunak diruzkoak badira, dela eskudirutan dela kontuetan, zergabilketa organoak erabaki ahal izango du beren zenbatekoa organo eskudunean kontsignatzea edo, bestela, zergabilketa organoaren esku dauden kontuetan atxikitzea.

### 126. artikulua. Hirugarrengotza tramitatu eta ebaztea.

1. Aurreko artikuluan xedatutakoaren arabera aurkeztutako hirugarrengotza onartu eta hurrengo hamabost eguneko epean, idatzia Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan lege aholkularitzako funtzioak betetzen dituen organoari bidaliko zaio aurkeztutako dokumentazioarekin eta premiamenduzko espedientearekin batera. Hamabost eguneko epean, organo horrek txostena egin beharko du eta zuzenbidean bidezkoa den Foru Agindua proposatu.

2. Ebazpena hiru hilabeteko epean jakinarazi beharko da.

Epe hori igaro eta ebazpena ez bada jakinarazi, erreklamazioa ezetsitzat hartu ahal izango da dagokion demanda judiziala aurkeztearen ondorioetarako.

3. Aipatu den azken epea amaitu eta hurrengo hamar egunetan hirugarrengotzaren erreklamazioa tramitatzeko organo administratibo eskudunari ez bazaio agiri bidez frogatu demanda judiziala aurkeztu dela, aurrera jarraituko da premiamenduzko prozeduran etenda geratu ziren tramiteekin.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan lege aholkularitzako funtzioak dituen organoak epaitegi edo auzitegi zibiletan jarraitzen diren hirugarrengotza prozesuetan emandako ebazpen judizial irmo edo behin betikoen berri jasotzen duenean, premiamenduzko prozedurak tramitatzen dituen organoari jakinaraziko dizkio.

### 127. artikulua. Hirugarrengotzaren erreklamazioa onestearen ondorioak.

1. Hirugarrengotza jabarikoa denean, erreklamazioa onesteak berekin ekarriko du ondasun edo eskubideen gainean ezarritako bahitura kentzea, non eta aurretik ez den erabaki haiek besterentzea berandutza kasuan ezin izan direlako artatu hondatu gabe edo balioan galera nabarmenik jasan gabe. Horrelakoetan, besterentze horretan lortutako produktua erreklamatzaileari emango zaio, jasotako kopuruaren gainean bere alde duen legezko interesa ere likidatuz. Interes hori gordailua kontsignatu den egunetik ordainketa agintzen den egunera arte kalkulatuko da.

2. Hirugarrengotza eskubide hobekoa bada, erreklamazioa onesteak berekin ekarriko du exekuzioan lortutako produktua erreklamatzaileari ematea premiamenduzko prozeduran exekuziorako beharrezkoak izan diren kostuak kenduta.

### 128. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiaren aldeko hirugarrengotzak.

Ondasunak bahitzerakoan erreparatzen bada beste prozedura exekutibo, judizial edo administratibo batean bahituak izan direla, Ogasuneko zuzendari nagusiari horren berri emango zaio Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskubiderik onena defendatzeko egokien jotzen diren neurriak har daitezen. Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan lege aholkularitzako funtzioak betetzen dituen organoaren txostena beharko da aldez aurretik.

## *8. sekzioa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduketak prozedura konkurtsaletan eta bestelako exekuzio prozeduretan.*

### 129. artikulua. Gipuzkoako Foru Aldundiaren jarduketak prozedura konkurtsaletan eta bestelako exekuzio prozeduretan.

1. Foru Ogasunaren eskubideak organo judizialen aurrean erabili behar direnean, Ogasunak bidezko prozesua hasiko du edo jada hasita dagoen prozesuan agertuko da kasuan kasu aplikagarri diren arauei jarraituta.

2. Zergabilketa organoek ahalmena izango dute organo judizialei herri Ogasunaren eskubideak ukitu ditzaketen prozedurei buruzko informazioa eskatzeko, Ogasuna epaileen aurrean defendatu behar duen organoaren bidez ezin eskura daitekeenean.

3. Zergabilketa organoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren eskubideak epaileen aurrean defendatu behar dituen organoari igorriko dizkio bere zeregina betetzeko beharrezkoak diren dokumentuak. Foru Ogasunaren kredituak organo eskudunak luzatutako ziurtapenaren bidez frogatuko dira.

4. Aurreko apartatuetan xedatutakoa aplikagarria izango da ondasunak exekutatzeko edozein prozedura ez judizialetan, kasuan kasuko berezitasunekin, prozedura horietan Foru Ogasunaren eskubideak eraginda gertatzen direnean.

5. Konkurtso deklarazioa eskatzerakoan edo jada behin eskatuta, konkurtso horrek Foru Ogasunarenak ez diren kredituei eragiten badie eta kreditu horien zergabilketa Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatzen badu Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentua dela medio eta hitzarmen bat aplikatuz, hitzarmenean ezarritakoari jarraituko zaio.

Hitzarmenik ez badago, Gipuzkoako Foru Aldundiak prozesuan ziurtatu diren edo ziurtatuak izan behar duten kredituak jakinaraziko dizkio kredituen titularrari, honek zuzenean haien ordezkaritza eta defentsa bere gain hartu ahal izan ditzan. Era berean, kreditu horien inguruan hitzarmen edo akordioa izenpetu edo adostu baino lehen, Gipuzkoako Foru Aldundiak edukiaren berri emango dio kredituen titularrari, eta ulertuko da errekerimendua jakinarazi eta biharamunetik hasita 10 eguneko epean kontrakoa adierazten ez badu bere adostasuna ematen diola.

6. Gipuzkoako Foru Aldundiari administratzaile konkurtsal izendatzen zaionean, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuko foru diputatuak onartu edo errefusatuko du izendapena, bidezko arrazoiak tarteko.

# IV. TITULUA.

# ERANTZULEEN ETA ONDORENGOEN AURREAN JARRAITU BEHARREKO PROZEDURA.

## I. Kapitulua.

## Erantzuleak.

### 130. artikulua. Erantzukizuna deklaratzeko prozedura.[57]

[57] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita hamar apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

1. Erantzuleen aurrean erabiltzen den prozedurak barruan hartzen ditu zorraren erantzuleak ordaintzera behartutako pertsona edo entitate izendatzeko egiten diren zerga-bilketa jarduketa guztiak, eta jarduketa horiek hasi direla interesdunari jakinaraziz abiatzen da beti.

Entzuteko tramitea oztopatu gabe, aurreko paragrafoan aipatu den jakinarazpenak eskubidea emango die interesdunei bai alegazioak egiteko bai egoki jotzen duten dokumentazioa aurkezteko.

Entzuteko tramiteak hamabost egun iraungo du, tramitea ireki dela jakinarazi eta biharamunetik aurrera kontatuta.

Erantzulearen aurkako prozedura abiatzen bada borondatez ordaintzeko epea zordun nagusiarentzat amaitutakoan, zilegi izango da prozedura hasi izanari buruzko komunikazioa eta entzute tramitea hasi izanarena aldi berean egitea.

Behar den kasuetan, tramite horren barruan beharrezkoa izango da berariazko adostasuna ematea martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 41. artikuluko 4. apartatuan jasotako moduan.

Prozeduraren ebazpena jakinarazteko epea sei hilabetekoa izango da gehienez.

2. Zorrak geroratu edo zatikatzeko eskaerak edo zerga-bilketa prozedura etetekoak erantzule batek egiten dituenean, ez dute eraginik izango eskaerarekin lotutako zorren beste erantzuleen aurka hasita dagoen zerga-bilketa prozeduran.

3. Prozedurari amaiera ematen dion eta erantzukizuna deklaratzen duen egintza erantzuleei jakinarazi behar zaie, eta eduki hau izan behar du:

a) Erantzukizuna deklaratzeko erabakiaren testu osoa, non adierazi behar baita zer egitatek ekarri duen deklarazio hori eta zer likidazio gertatzen diren hargatik ukituta.

b) Egintza horren aurka baliatu daitezkeen errekurtsoak, zer organoren aurrean aurkeztu daitezkeen, eta horiek aurkezteko epeak.

c) Erantzuleari exijitutako zenbatekoa non, nola eta zein epetan ordaindu behar den.

4. Erantzuleak ez badu egiten ordainketa borondatezko epean, epe exekutiboa abiatuko da martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, ezarritako ondorioekin.

5. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 179.5 artikuluan xedatutakoaren ondorioetarako, erantzukizuna deklaratzen duen erabakiaren aurkako errekurtso edo erreklamazioari buruz ematen den ebazpenak ez du sortuko, izatezko egitatean sartzen diren likidazioei dagokienez, inolako eraginik zergapekoengan, haien likidazioak irmoak direnean.

6. Gertatzen bada zordun nagusiaren edo, hala badagokio, erantzule solidarioaren aurka jarraitutako zerga-bilketa prozeduraren ondorioz haren kaudimengabezia partziala deklaratzen dela martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 74.1 artikuluan ezarritako eran,

zilegi izango da horiek hutseginak deklaratzea 41. artikuluan jasotako ondorioetarako.

Zordun nagusia edo erantzule solidarioak hutseginak deklaratzen badira erantzule subsidiarioei deribatu gabeko zatiagatik, zilegi izango da, erabateko kaudimengabeziagatik hutsegintzat jo eta gero, kobratzeko dagoen gainerako zorra erantzule subsidiario horiei deribatzea.

**130 bis artikulua. Erantzukizun deklarazioaren berezitasunak delituari lotutako likidazioekin zerikusia duenean.[58]**

1.[59] Egiaztapen eta ikerketa prozedura batean beharrezkoa bada delituari lotutako likidazio bat egitea eta prozedura horretan jarduten duen organoa jakitun bada badaudela egitateak edo zirkunstantziak zerga erantzukizunen bat eragin dezaketenak, egitate horien berri eman beharko dio zergabilketa organoari, erantzukizuna deklaratzeko prozedura abiatu dezan.

2. Erantzuleari entzuteko tramitea beti egingo da zordun nagusiaren delituari lotutako likidazio proposamena formalizatu eta gero.

Horrelakoetan, erantzuleak 15 eguneko epea izango du, tramite hori zabaldu dela jakinarazi eta biharamunetik hasita, alegazioak egin eta egoki irizten duen dokumentazioa aurkezteko, kontuan izanik, betiere, planteatzen diren auzigaiak erantzukizunaren eta haren hedaduraren ingurukoak bakarrik izan daitezkeela eta araudi aplikagarriaren arabera administrazio bidetik errekurritzeko modukoak izan behar dutela.

Egiaztapen eta ikerketa prozeduran delituari lotutako likidazioa egin beharra gertatzen bada, erantzulea ez da intesduntzat hartuko prozedura horretan, eta haren barruan aurkezten dituen alegazioak ez aurkeztutzat joko dira.

3.[60] Ogasun Publikoaren aurkako delituagatik aurkeztutako salaketa edo kereila onartutzat jotzen den unetik aurrera hartu beharko da erantzukizuna deklaratzeko erabakia. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 256. artikuluko 1. apartatuan aipatzen dituen kasuetan, jasota utzi beharko da prozesu penalean erantzulea ikertu gisa ageri dela formalki.

Erantzukizuna deklaratzeko erabakiaren jakinarazpenak errekerimendua jaso behar du likidatutako zerga zorra martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak,

---

[58] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita hamaika apartatuak gehitu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

[59] Apartatu hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 5 artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

[60] Apartatu hau abenduaren 3ko 55/2024 Foru Dekretuaren 5 artikuluko lau apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzen ditu. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunean sartzen da indarrean (2024/12/5eko GAO).

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.2 artikuluan ezarritako epean ordaindu dadin.

### 131. artikulua. Ustiapen edo jarduera ekonomikoak eskuratzeagatik eskatzen diren ziurtapenak.

1. Martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 180.2 artikuluan aipatzen diren ziurtapenetan honako datuak jaso beharko dira: ustiapen edo jarduera ekonomikoaren titular zergapekoaren izen-abizenak edo sozietate izen osoa, eta bertan jarduteak sortutako zerga zor, zigor eta erantzukizunen ziurtapen xehatua, horietako bakoitzaren zenbatekoa ere adieraziz.

2. Ziurtapena egiteko eskaera  ustiapen ekonomikoa eskuratu eta gero aurkezten bada, ziurtapen horrek ez du eraginik sortuko, bere edukia zeinahi dela ere.

3. Ziurtapen horien ondorioz sortutako erantzukizunetik salbuesteak edo erantzukizun hori mugatzeak ziurtapena eskatu zaion Zerga Administrazioak likidatu behar dituen zorrei bakarrik eragingo die.

4. Ziurtapenik eskatu ez denean, erantzukizunak likidatutako edo likidatu gabeko zor eta erantzukizunak eta ezarrita dauden edo ezar litezkeen zigorrak hartuko ditu.

### 132. artikulua. Obra edo zerbitzuen kontratistek edo azpikontratistek eskatuta egindako ziurtagiria.[61]

1. Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergei buruzko martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arau Orokorrak 43.1.e) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, ulertuko da obra exekuzioak edo zerbitzu prestazioak kontratatzen edo azpikontratatzen dituzten pertsona edo entitateen jarduera ekonomiko nagusian honako hauek sartzen direla: Beren izaeragatik kontratatu edo azpikontratatuak izan beharrean, eta kontratatzailearen edo azpikontratatzailearen helburu produktiboa betetzeko ezinbestekoak gertatzeagatik, kontratatzaileak edo azpikontratatzaileak berak egin beharko zituen obra edo zerbitzu guztiak.

2. Artikulu honetan arautzen den ziurtagiria emateko, ulertuko da pertsona eskatzaileak zerga obligazioak egunean dituela ondoko baldintzak betetzen dituenean:

a) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan eta zergapekoen Zentsuan alta emanda egotea.

b) Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergaren, Sozietateen gaineko Zergaren edo Ez-egoiliarren Errentaren gaineko Zergaren autolikidazioak aurkeztu izana.

c) Lan etekinengatik, jarduera ekonomikoen etekinengatik eta sariengatik atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko obligazioei dagozkien autolikidazioak eta urteko aitorpenlaburpena aurkeztu izana, horretara behartuta dagoenean.

---

[61] Artikulu hau maiatzaren 15eko 24/2012 FORU DEKRETUAren artikulu bakarrak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak  Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Aldaketa Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egun berean sartzen da indarrean (2012/05/24ko GAO).

d) Aurreko c) letran jasota ez dauden etekinengatik atxikipenak eta konturako sarrerak egiteko obligazioei dagozkien urteko aitorpen-laburpenak aurkeztu izana, horretara behartuta dagoenean.

e) Balio Erantsiaren gaineko Zergaren autolikidazioak eta urteko aitorpen-laburpena aurkeztu izana.

f) Hirugarren pertsonekin egindako eragiketen urteko aitorpena aurkeztu izana, horretara behartuta dagoenean, eta izaeraz zein edukiz antzekoa den informazioa emateko obligazioa bete izana.

g) Zerga administrazio gaietan eskumena duten Gipuzkoako Foru Aldundiko organoek eskatu dizkioten zerga autolikidazio eta aitorpenak aurkeztu izana.

h) Ez edukitzea Gipuzkoako Foru Aldundiarekin inolako zerga zorrik edo zehapenik epealdi exekutiboan, non eta zerga zor edo zehapen horiek ez dauden geroratuta edo zatikatuta edo haien exekuzioa ez den eten.

i) Ez edukitzea ordaintzeko Herri Ogasunaren aurkako delituagatik eratorritako erantzukizun zibilak, sententzia irmo batek aitortuak.

Aurreko b), c), d), e), f) eta g) paragrafoetan adierazitako baldintzak autolikidazio edo aitorpen jakin batzuei dagozkie: Hain zuzen ere, aurkezpen-epea ziurtagiria egin aurreko hilabetea baino lehenagoko 12 hilabeteetan amaituta duten aitorpenautolikidazioei.

3. Ondorioak zein ordaintzailerentzat izan behar dituen, haren identifikazio osoa adierazi beharko da ziurtagiriaren eskaeran. Ordaintzaile bat baino gehiago dagoenean, eskaera bat egingo da bakoitzeko.

4. Ziurtagiria edo berau ukatzen duen erabakia hiru egun baliodunekoepean jarri beharko da interesatuaren esku.

Ziurtagiria egin behar duen organoak eskaera jasotzen duen egunetik aurrera kontatuko da epe hori.

Ziurtagiria egiteko epea amaitu ondorengo egunetik aurrera, eskatzaileak egindakotzat jo dezake ziurtagiria. Nahi izanez gero, zirkunstantzia horren frogagiria eskatu diezaioke Ogasun eta Finantza Departamentuari; eta horrek berehala egin beharko du.

Ziurtagiria ez egiteak –aipatutako dokumentuarekin frogatuta beti–, ordaintzailearen aurrean izango du eraginkortasuna, eta berekin ekarriko du kontratistak edo azpikontratistak aurkeztutako eskaeran izaera horrekin ageri dena erantzukizunetik salbuestea.

Ordaintzailea erantzukizunetik salbueste hori ziurtagiria egindakotzat jo ondorengo 12 hilabeteetan egiten diren ordainketetara zabalduko da.

Aurreko paragrafoan aipatutako epean kanbio efektuak onartzea ordainketatzat hartuko da, baita haien epemuga epe hori amaitu ondoren gertatzen denean ere.

## II. Kapitulua.

## Ondorengoak.

**133. artikulua. Zergabilketa prozedura pertsona fisikoen ondorengoen aurrean.**

1. Zor bat ordaintzera behartutako edozein pertsona behin hil eta gero, zergabilketa prozedurak bere oinordekoekin eta, bidezkoa denean, legatudunekin jarraituko du aurrera. Beharkizun bakarrak izango dira bera hil izana egiaztatzea eta zorra ordaintzeko errekerimendua, kausatzaileak ordaindu gabe zituen kostuak barne, ondorengoari jakinaraztea. Ondorio horietarako, ondorengoa kausatzailea heriotzaren unean zegoen posizio berean subrogatuko da, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 187.4 artikuluaren lehen paragrafoan xedatutakoa eragotzi gabe. Ondorengoari bidaltzen zaion jakinarazpenean zorra honako epeetan ordaintzeko errekerituko zaio:

a) Ordaintzera behartutako pertsona borondatezko epean hiltzen bada, ondorengoari jakinaraziko zaio martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arauak 61.2 artikuluan ezartzen duen epean ordaindu behar duela zorra.

b) Ordaintzera behartutako pertsona ordaintzeko epe exekutiboan hiltzen bada eta premiamenduzko probidentzia oraindik jakinarazi gabe badago, probidentzia ondorengoari jakinaraziko zaio. Premiamenduzko probidentzia jakinarazi baino lehen ordaintzen badu, ehuneko 5eko errekargu exekutiboa exijituko zaio.

c)[62] Heriotza gertatzen bada premiamenduzko probidentzia ordaintzera behartuari jada jakinarazi zaionean eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.5 artikuluan aipatzen den epea oraindik amaitu gabe dagoenean, ondorengoari jakinaraziko zaio zorra eta ehuneko 5eko premiamenduzko errekargu murriztua martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.5 artikuluan aipatzen duen epean ordaindu beharko dituela. Hartara, ohartaraziko zaio ezen zorraren zenbateko osoa eta ehuneko 5eko premiamenduzko errekargu murriztua epe horretan ordaindu ezean, ondasunak enbargatuko zaizkiola edo, bestela, zorra kobratzeko dauden bermeak exekutatuko direla ehuneko 20ko premiamenduzko errekargua aplikatuta.

d) Heriotza gertatzen bada martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 61.5 artikuluan jasotako epea behin amaituta, ondorengoari errekerituko zaio zorra, premiamenduzko errekargu arrunta barne, artikulu horretan ezarritako epean ordaintzeko.

Oinordekoak deliberatzeko eskubidea erabili izana alegatzen duenean, horretarako emandako epea igaro arte itxarongo da, eta epe horren barruan kausatzailearen zorren frogagiria eskatu ahal izango dio Administrazioari, ondorio informatibo soiletarako.

Pertsona eskatzaileak oinordeko izaera duela behar bezala behin egiaztaturik, Administrazioak honako datuok jasoko dituen ziurtagiria egingo du: kausatzailearen eta oinordekoaren izen-abizenak edo sozietate izen osoa, identifikazio fiskaleko zenbakia, azken helbidea, eta ziurtagiria egiteko unean kausatzaileak ordaintzeke zituen zorren eta gainerako erantzukizunen xehetasuna.

---

[62] Letra hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko sei apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

2. Herentzia banatu gabe dagoen bitartean, ordaintzeko dauden zorren zergabilketa prozedura herentziako ondasun eta eskubideen aurka zuzendu edo jarraitu ahal izango da. Jarduketak herentziaren administrazioaz edo ordezkaritzaz arduratzen denarekin egingo dira, martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 45.3 artikuluan adierazten duen moduan.

Zergabilketa prozedura martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauaren 182.1 artikuluan jasotako eran eteten bada oinordekoak deliberatzeko eskubidea legeria zibilaren arabera erabili izana alegatu duelako, etete horrek ez du inolako eraginik izango banatu gabeko herentziaren aurka egin litezkeen zergabilketa jarduketetan.

3. Oinordekorik ezagutzen ez denean, edo oinordeko ezagunek herentziari uko egin edo espresuki zein tazituki onartu ez dutenean, Ogasuneko zuzendari nagusiari jakinaren gainean jarriko zaio, eta honek, bere aldetik, Fiskalitaterako eta Finantzetarako Departamentuan lege aholkularitzako funtzioak betetzen dituen organoari helaraziko dio informazioa, organo eskudunak bidezkoa den oinordeko aitorpena eskatu dezan. Dena den, horrek ez du eragotziko zergabilketa prozedurak herentziako ondasun eta eskubideen aurka jarraitzea.

### 134. artikulua. Zergabilketa prozedura pertsona juridikoen eta nortasun juridikorik gabeko entitateen ondorengoen aurrean.

1. Sozietate, entitate edo fundazio bat behin deseginda, zergabilketa prozedurak bazkide, partaide, kotitular edo hartzaileekin jarraituko du aurrera, eta horiek nortasun juridikoa iraungitzeko unean sozietate, entitate edo fundazioak zeukan posizio berean subrogatuko dira. Ondorengoari bidaltzen zaion jakinarazpenean zorra honako epeetan ordaintzeko errekerituko zaio:

a) Nortasun juridikoa borondatezko epean iraungitzen bada, ondorengoari jakinaraziko zaio martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arauak 61.2 artikuluan ezartzen duen epean ordaindu behar duela.

b) Nortasun juridikoa ordaintzeko epe exekutiboan iraungitzen bada eta premiamenduzko probidentzia oraindik jakinarazi gabe badago, probidentzia ondorengoari jakinaraziko zaio. Premiamenduzko probidentzia jakinarazi baino lehen ordaintzen badu, ehuneko 5eko errekargu exekutiboa exijituko zaio.

c)[63] Nortasun juridikoa azkentzen bada premiamenduzko probidentzia ordaintzera behartuari jada jakinarazi zaionean eta martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.5 artikuluan aipatzen duen epea oraindik amaitu gabe dagoenean, ondorengoari jakinaraziko zaio zorra eta ehuneko 5eko premiamenduzko errekargu murriztua martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, 61.5 artikuluan aipatzen den epean ordaindu beharko dituela. Hartara, ohartaraziko zaio ezen zorraren zenbateko osoa eta ehuneko 5eko premiamenduzko errekargu murriztua epe horretan ordaindu ezean, ondasunak enbargatuko zaizkiola edo, bestela, zorra kobratzeko dauden bermeak exekutatuko direla ehuneko 20ko premiamenduzko errekargua aplikatuta.

d) Nortasun juridikoa iraungitzen bada martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak 61.5 artikuluan jasotako epea behin amaituta, ondorengoari errekerituko zaio zorra,

[63] Letra hau urriaren 5eko 12/2021 Foru Dekretuaren 1. artikuluko zazpi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen ditu (2021/10/8ko GAO). Foru Dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunean sartzen da indarrean.

premiamenduzko errekargu arrunta barne, artikulu horretan ezarritako epean ordaintzeko.

2. Nortasun juridikorik gabeko entitateen kasuan, desegiteko unea hartuko da kontuan aurreko erregelak aplikatzeko.

3. Likidaziorik gabeko desegite kasuei ez zaie aplikatuko martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorrak 40.6 artikuluan jasotzen duen muga.

# V. TITULUA

# XEDAPEN BEREZIAK

### 135. artikulua. Erantzukizun zibila eta isuna ordainaraztea Herri Ogasunaren aurkako delitu kasuetan.[64]

1. Herri Ogasunaren aurkako delituagatik abiatzen diren prozeduretan, erantzukizun zibiletik eta isun-zigorretik eratortzen den zorra premiamenduzko administrazio prozedurari metatuko zaio, zordunaren aurka horrelakorik jarraitzen bada, betiere, enbargo eginbideak egiteko eta ondasunak trabatu eta besterentzeko. Erantzukizun zibiletik eratortzen den zenbatekoari ezingo zaizkio gehitu epe exekutiboko errekarguak.

Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, zazpigarren xedapen gehigarriaren 1. apartatuan hizpide dituen isunarekin eta erantzukizun zibilarekin batera, Zerga Administrazioak ordainaraziko ditu ebazpen judiziala irmo bihurtzen den egunetik Foru Diruzaintzaren kontuetan ordainketa egin arte erantzukizun horren zenbatekoaren gainean sortzen diren interesak, gehi premiamenduzko prozeduraren kostuak, non eta epaileak edo auzitegiak ez duen besterik erabakitzen.

2. Ogasun eta Finantza Departamentuko zerga-bilketa organoek Herri Ogasunaren aurkako delituagatik ondorioztatutako isuna eta erantzukizun zibila ordainarazteko abiatzen duen premiamenduzko administrazio-prozedurako egintzen aurka, berraztertze errekurtsoa edo erreklamazio ekonomiko-administratiboa jarri daiteke, salbu eta aurka egiteko arrazoiak inpugnatutako exekuzio egintzak premiamenduzko prozeduraren bidez ordainarazi nahi diren zorrak ezarri dituen sententziari ongi egokitzea edo harekin bat etortzea badira. Horrelakoetan, egintzak exekutatzeko eskudun den epaile edo auzitegiaren aurrean planteatuko da auzia.

3. Epaileak edo auzitegiak Zigor Kodearen 125. artikuluari jarraituz erabakitako isunaren edo erantzukizun zibilaren zatikako ordainketa urratzen bada, ordaindu gabe dagoen zenbateko osoa premiamenduzko prozeduraren bidez ordainaraziko da. Horrelakoetan, ezin izango da aplikatu epe exekutiboko errekargurik, baina bidezkoak diren interesak exijituko dira.

4. Martxoaren 8ko 2/2005 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zergen Foru Arau Orokorrak, zazpigarren xedapen gehigarriaren 4. zenbakian ezarritakoa

[64] Artikulu hau azaroaren 7ko 28/2018 Foru Dekretuaren artikulu bakarreko hogeita hamabi apartatuak aldatu du. Aipatutako foru dekretuak Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen du. Foru dekretua Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean sartzen da indarrean (2018/11/14ko GAO).

betetzeko, herri Ogasunaren aurkako delituagatik ondorioztatutako isuna eta erantzukizun zibila ordainarazteko eskudun diren organoek agindua duten zereginean gerta daitekeen edozein gorabeheraren berri eman behar diote epaileari edo auzitegiari, epaiketan defentsaz arduratzen den organoaren bitartez, eta, nolanahi ere, jarduketa eta erabaki hauek jakinaraziko dizkiote beti:

a) Premiamenduzko prozeduran izan diren diru-sarrerak.

b) Kobrantzako lege agindutik ondorioztatutako zorrak osorik ordaindu direla.

c) Administrazioak erantzule zibilak hutseginaik deklaratu izana eta kredituak kobraezinak deklaratu izana.

## XEDAPEN GEHIGARRIA. Tokiko entitateen eta gipuzkoako foru sektore publikoa osatzen duten beste ente publikoen organoak.

1. Erregelamendu honetan xedatutakoaren ondorioetarako, berariazko araudian jasotakoaren arabera zehaztuko dira tokiko entitateen eta Foru Aldundiaz gain Gipuzkoako foru sektore publikoa osatzen duten beste ente publikoen organo eskudunak.

2. Erregelamendu honetan Gipuzkoako Foru Aldundiaz egindako aipamenak aplikaziozkoak izango zaizkie, gaia dela-eta eskudunak direnean tokiko entitateei eta Foru Aldundiaz gain Gipuzkoako foru sektore publikoa osatzen duten beste ente publikoei.

Era berean, tokiko entitate batek jarduteko eskumena duenean, Foru Ogasunaz egindako aipamenak udal ogasunari buruzkoak direla ulertuko da.

## XEDAPEN IRAGANKORRAK

### Lehena. Eskuz aldatzeko eskubideak.

Negozio-lokalaren errentamendu kontratua lagatzeko eskubideak bahitzeari buruz erregelamendu honetan xedatutakoa aplikaziozkoa izango zaio, baita ere, eskualdatzeko eskubideen bahiturari eskubide horiek dirauten bitartean.

### Bigarrena. Zergabilketa kudeatzean informazioa lortu, ahalmenak eskuratu eta badaezpadako neurriak hartzea.

Martxoaren 8ko 2/2005 Zergen Foru Arau Orokorraren 90. 91. eta 136., 143. artikuluak garatzeko beharrezko diren erregelamenduzko arauak onartzen ez diren artean, Erregelamendu honen 7. artikuluan xedatutakoa ekainaren 5eko 34/1990 Foru Dekretuak, Zergen Ikuskaritzaren Erregelamendu Orokorra onartzekoak, ezarritakoa kontuan hartuz aplikatuko da.

## AMAIERAKO XEDAPENA. Arauak emateko ahalmena.

Fiskalitaterako eta Finantzetarako foru diputatuari baimena ematen zaio Erregelamendu hau garatu eta betetzeko beharrezkoak diren xedapenak eman ditzan.

# ALDAKETAK

Honako zerrendan foru dekretuak izan dituen aldaketak jasotzen dira.

- ***25/2010 FORU DEKRETUA, irailaren 28koa, Gipuzkoako zergabilketa erregelamendua onartzen duen abuztuaren 2ko 38/2006 foru dekretua aldatzekoa (2010-10-11ko GAO).***

    - Artikulu bakarrak prezeptu hauek aldatzen ditu:

        - 30. artikuluko 2 apartatua.
        - 31. artikuluko 1 apartatua.
        - 37. artikuluko1. apartatuaren lehenengo paragrafoa.
        - 38. artikuluaren 2. apartatuko f) letra.
        - 38. artikuluaren 3. apartatuko e) letra ezabatzen da, eta horren ondorioz, f) letra e) letra bihurtzen da eta g) letra f) letra.
        - 38. artikuluaren 6. apartatua.
        - 9. apartatua gehitzen zaio 38. artikuluari.
        - 42. artikulua.
        - 44. artikuluaren 1. apartatuko a) letra.
        - 44. artikuluaren 5. apartatua.
        - 97. artikuluaren 3. apartatua.
        - 135. artikuluaren 1. apartatuko bigarren paragrafoa.

- ***Maiatzaren 15eko 24/2012 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen duena (2012/05/24ko GAO).***

    – Bere artikulu bakarrak 132. artikulua aldatzen du.

- ***47/2013 FORU DEKRETUA, abenduaren 17koa, zerga betebehar formal jakin batzuk garatzen dituen Erregelamendua onartzen duena (2013/12/19ko GAO).***

    – Foru dekretuko amaierako hirugarren xedapenak 7. artikuluko 2. apartatua aldatzen du.

- ***28/2018 Foru Dekretua, azaroaren 7koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Zerga-bilketa Erregelamendua aldatzen duena (2018/11/14ko GAO).***

  Bere artikulu bakarrak prezeptu hauek aldatzen ditu:

  - 1. artikuluko hirugarren paragrafoa.
  - 8. eta 13. artikuluak.
  - 26. artikuluko 1. eta 2. apartatuak.
  - 30. artikulua.
  - 33. artikuluko 2. apartatua.
  - 36. artikulua.
  - 37. artikuluaren 1. apartatuko lehenengo paragrafoa.
  - 38., 39., 40. eta 41. artikuluak.
  - 43. artikuluko 1. apartatua.
  - 44., 45. eta 46. artikuluak.
  - 47. artikuluko 2. apartatua.
  - 51. Artikulua.
  - 75. artikuluko 1., 3. eta 6. apartatuak.
  - 97. artikuluko 4. apartatua.
  - 106. artikuluko 3. apartatua.
  - 107. artikuluko 2. apartatua.
  - 112. artikuluko 3. apartatua.
  - 113. artikuluko 3. apartatua.
  - 130. artikulua.

    135. artikulua.

  – Edukirik gabe uzten du II. tituluaren I. kapituluko 4. sekzioa.

  – 73. artikuluan 3. eta 4. apartatuak gehitzen ditu.

  – 77. artikuluan 5. apartatua gehitzen du.

  – 89 bis artikulua gehitzen du.

  – 130 bis artikulua gehitzen du.

- ***12/2021 Foru Dekretua, urriaren 5ekoa, Zergen Foru Arau Orokorra garatzeko erregelamendu jakin batzuk aldatzen dituena (2021/10/8ko GAO).***

  Bere lehen artikulu prezeptu hauek aldatzen ditu:

  - 37. artikuluaren 1. apartatuko d) letra.
  - 38. artikuluaren 8. apartatua ezabatzen du.
  - 44. artikuluko 3. apartatua.
  - 66. artikuluko 3. apartatua.
  - 70. artikuluaren 2. apartatuko d) letra.
  - 133. artikuluaren 1. apartatuko c) letra.
  - 134. artikuluaren 1. apartatuko c) letra.

- ***56/2023 Foru Dekretua, abenduaren 12koa, zenbait zerga erregelamendu aldatzen dituena (2023/12/18ko GAO).***

  Bere 2 artikuluak prezeptu hauek aldatzen ditu:

  - 32. artikuluko 1. apartatua eta 6. apartatuko a) letra.
  - 37. artikulua.
  - 42.1. artikuluko c) eta d) letrak.
  - 44.1.B artikuluko a) letra.
  - 49. artikuluko 5. apartatua.
  - 97. artikulua.
  - 98. artikulua.
  - 106. artikulua.
  - 107. artikulua.
  - 108. artikulua.

- ***55/2024 Foru Dekretua, abenduaren 3koa, 2024. urterako zenbait zerga aldaketa onesten dituen maiatzaren 10eko 1/2024 Foru Arauaren aldaketa batzuk eta zerga arloko beste arau batzuk erregelamendu bidez garatzekoa (2024/12/5ko GAO).***

  Bere 5. artikuluak aldaketa hauek egiten ditu:

- 6. artikuluari 4. apartatua gehitzen du.
- 10.3 artikuluko lehen paragrafoa aldatzen du.
- 12. artikuluko 6. apartatua aldatzen du.
- 130 bis artikuluko 1. eta 3. apartatuak aldatzen ditu.

- ***22/2025 Foru Dekretua, abenduaren 2koa, maiatzaren 9ko 1/2025 Foru Araua partez garatu eta zenbait erregelamendutan aldaketak sartzekoa (2025/12/02ko GAO).***

Bere 6. artikuluak aldaketa hauek egiten ditu:

- 3. artikuluko 3. apartatua.
- 32. artikuluko 5etik 7ra bitarteko apartatuak.
- 38. artikuluko 3.apartatuko c) letra.
- 44. artikuluko 1. apartatuaren A letrako b) letra.
- 49. artikuluko 5. apartatua.